Aia 1936

Gerra Zibila, errepresio frankista eta Giza Eskubideen urraketa

ENEKO SANZ GOIKOETXEA (Donostia 1981)

Historian Lizentziatua eta Doktoretza Masterra Euskal Herriko Unibertsitatean eskuratua. Honekin batera artikulo eta liburu ezberdinak Idatzi ditu Gai Hauen Inguruan: Gerra zibila Euskal Herrian, Euskal Erbeste Instituzionala, Euskal kultura eta Identitatea Ameriketako Herrialdeetan.

Licenciado en historia y con Master Doctoral por la Universidad del Pais Vasco. Ha escrito diferéntes libros y artículos relacionados con los siguientes temas: Gerra Civil en el Pais Vasco, Exilio Institucional Vasco, Kultura Vasca e Identidad en los Paises de América.

Matxinada eta diktadura frankistaren errepresioa pairatu zuten aiarrei eta Euskal Herriaren askatasunaren eta Errepublikaren alde borrokatu zutenei eskaintzen da liburu hau.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Giza Eskubideak, Lankidetza eta
Berdintasuna Departamentua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General para la Paz
y la Convivencia

Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

AIA 1936

Gerra Zibila, errepresio frankista eta Giza Eskubideen urraketa

Eneko Sanz Goikoetxea

Aia 2015

ARANZADI zientzia elkartea . society of sciences
sociedad de ciencias . societé de sciences

PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA / COORDINADOR DEL PROYECTO
Juantxo Agirre-Mauleon

IKERLARI KOLABORATZAILEAK / INVESTIGADORES COLABORADORES
Javi Buces, Francisco Etxeberria, Lourdes Herrasti eta Cristina Martín.

ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS
Ikerketa honetarako testigantzak eta dokumentazioarekin lagundu duten guztioi, Leioako udal langileei, Aiako udal politika taldeei, Iñaki Egaña, Euskal Memoria, Sabino Arana Fundazioa, Mikel Markez eta Iñaki Iturain eskerrak.

A todas las personas que han prestado sus testimonios, documentación y han colaborado en esta investigación; al personal del Ayuntamiento de Aia, a los grupos políticos municipales de Aia, Iñaki Egaña, Euskal Memoria, Fundación Sabino Arana, Mikel Markez e Iñaki Iturain.

DIGITALIZAZIOA / DIGITALIZACIÓN
Mª Jose Hernández eta Ana Isabel Rodríguez.

AZALEKO ARGAZKIA / FOTO PORTADA
Gabino Alustiza, Aiako alkatea. Aiako herriaren argazki zaharra.
Gabino Alustiza, alkalde de Aia. Fotografía antigua del pueblo de Aia.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. www. aranzadi.eus

Egilea / Autor:
Eneko Sanz Goikoetxea

Maketazioa / Maquetación:
TamTam S.L.

Imprimatzen du / Imprime:
Gráficas Lizarra S.L.

Itzulpenak / Traducciones:
Saretik Hizkuntza Zerbitzuak

ISBN 978-84-943123-7-3
L.G./D.L. 457-2015

Aurkibidea

1. AURKEZPENA **09**

2. AIA, 1931-1936. ERREPUBLIKAREN GARAIA **15**

2.1. Errepublika eta autonomia Euskal Herrian 16

2.2. Eguneroko bizimodua, mobilizazio politikoa eta euskal identitatea Aian 22

2.3. Gerraren atarian 30

3. "ALZAMIENTO" EDO ALTXAMENDUTIK ERORIALDIRA ARTE: GERRA ZIBILAREN ESPERIENTZIA LABURRA AIAN **37**

3.1. Matxinada frankistaren lehen berriak 38

3.2. Defentsarako bat eginik 42

3.3. Gipuzkoako frontearen atzerakada eta Aiaren erorialdia. 52

4. ERREPRESIOA ETA JAZARPEN POLITIKOA: FRANKISMOA AIAN **61**

4.1. Lehen biktimak. Errepresioa eta heriotza 62

4.1.1. Gabino Alustiza, Aiako alkatea 67

4.1.2. Miguel Uria zinegotziaren kartzela-zigorra eta errepresioa 74

4.1.3. Aiako parrokoa 77

4.1.4. Garaileek auzipetu, errepresaliatu eta hil zituztenak 79

4.2. Garbiketa politikoa: purga, errepresioa eta kartzela 101

4.2.1. Errepresio fisikoa: fusilamenduak 101

4.2.2. Erbesteratuak, iheslariak eta borrokatzera behartuak 104

4.2.3. Errepresio ekonomikoa: herria isilarazteko beste modu bat 109

4.2.4. Tokiko kulturaren debekua eta kultura arrotz baten inposizioa 115

4.3. Frankismoaren ezarpena Aia 130

5. LEKUKOTZAK **135**

6. ANEXOAK / ANEXOS **151**

7. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA / FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA **155**

1. Aurkezpena

Aurkezten dizuegun proiektu honen helburua, gure herrian bigarren gerrate zibilak izan zuen eragina eta batipat ondorioak, azaleratzea izan da, gaur egun herritarrok gure aurreko familia kideek jasan zutena ezagutzearekin batera.

Hau gure herriaren historia da, historia tamalgarria baina historia eta herri batek aurrera egin behar badu, ezinbestekoa du historia ezagutu eta aldi berean historia honen zati izan direnen edota historia hau sufritu izan zutenei errekonozimendua egitea.

Benetan pasadizu gogorrak daude: familikoen atxiloketa, erahilketa, gosea... baina denetan gauza bat, inor ez zela etsipenak jota gelditu, baizik eta aurrera jo zuten, traba eta sufrimendu guztien gainetik, egoera penagarriei aurre eginez. Guzti honek guretzat ikasgaia izan behar du. Irakurri, hausnartu eta itxaropenez etorkizunari begiratu, egoera zailagotan aurrera egin zuten gure herritarrak ispilu eta eredu hartuz.

Ez nuke aipamen berezirik egin gabe utzi nahi, 1936.urtean gure herriko Alkate zen Gabino Alustiza.Abertzalea eta euskaldun izateagatik erahila, bere ideia eta herritarren erabakia azkenerarte defendatu zuena. Eta nola ez, bere lagun ziren gainontzeko zinegotziak, egoera desberdinak jasan izan zituztenak, baina denak, Alkatearen gidaritzapean ideia eta euskaltzaletasuna defendatu zutenak demokratikoki.

Beraz liburu eta ikus-entzunezko hau izan dadila herritarrontzat ikasgai eta egoera zailak bizi izan zituzten herritarrentzat OMENALDIA. MILA ESKER.

PD: Esker berezia, proiektu hau aurrera eramateko lanean jardun duzuen guztioi. ZORIONAK.

Igor Iturain Ibarguren
Aiako Alkatea

Aranzadi Zientzia Elkarteak duela hamabost urte hasi zuen Gerra zibileko eta Frankismo garaiko giza eskubideen eta memoria historikoaren inguruko ibilbidea. Aranzadiko arkeologo eta historialariok gure jatorri eta historiaurrea ikertzeko tradiziotik gentozen, esaterako, Amalda (Aia) kobako indusketa arkeologikoak egitetik, eta orain gure esfortzu handienak gure aitona-amonek, gure gurasoek bizitako historian oinarritzen dira.

Zientziarako lan-eremua mugagabea da, baina ikerlariok egungo gizartea hartu behar dugu aintzat, bertako herritarrek eta erakundeek dituzten beharrak. Arlo horretan, Francisco Etxeberriak zuzendutako taldeak garatutako ikerketak nabarmendu behar dira, desagertutako ehunka gorpu lokalizatzeko eta lurpetik ateratzeko aukera eskaini baitu, Gerra Zibilean giza eskubideak urratu zitzaizkienen eta desagertutakoen familiek eskatutakoari erantzunez. Bide horretan nabarmendu beharrekoa da historialari gazteen lana ere, ahozko eta dokumentu bidezko informazioa oinarri hartuta gertakarietan egia bilatzen aritu baitira.

Liburu honen egilea, Eneko Sanz Euskal Herriko Unibertsitatean trebatutako ikerlari gaztea da, hain zuzen ere matxinatu frankistek 1937an errotik apurtutako unibertsitatea. Horregatik izan ez balitz, Aiako zenbat seme-alaba matrikulatu ahal izango ote ziren bertako unibertsitate publikoan! Esperantza eta ilusioz betetako historia iluna eta arrotza zen beste batekin aldatu ziguten. Nire amona, Josefa Aizpurua, Semerola baserrikoa zen, eta nire aitona, Juan Agirre, Arrite baserrikoa. Biak aiarrak ziren eta ez zekiten gaztelaniaz hitz egiten, Tolosan nire aitona atxilotu ere egin zuten erreketeei gaztelaniaz erantzuteko gai ez izateagatik. Haien bi seme gerran eta kontzentrazio-esparruetan izan ziren. Xehetasun horiek erakusten digute ia lortu zutela euskararen milaka urtetako katea, belaunaldiz belaunaldi jasotakoa, haustea, baina zorionez biloba gehienok euskaldun berriak gara. Horrek ez zuen pasatu behar, baina gertatu zen, hamarkadetan euskal geografia osoan aplikatutako lege berrien ondorioz.

Nabarmendu nahiko nuke lan hau lan kolektiboa izan dela, aiarrek emandako testigantza ugariei esker egindakoa; horiek guztiak gure ahozko historiaren zati izango dira eta Euskal Herrirako dagoen dokumentu-funtsera gehituko dira.

Liburu honek, duela ia 80 urte Aian gertatutako egiara hurbiltzeaz gain, sekula aipatu izan ez diren hainbat lagunen ibilbidea erakutsiko digu: Gabino Alustiza, Miguel Uria, Bernardina Anzuola eta beste hainbat. Horiek guztiak bizilagun eredugarriak ditugu, sekula duintasuna galdu ez zutenak. Are gehiago liburu honek gure komunitateak gaur egun partekatzen dituen idealak defendatzeagatik sufritu zuten pertsonei aitortza egiten dakien adierazten du. Gure memorian gordetzea eta belaunaldi berriei transmititzea da gure omenaldi onena.

Juantxo Agirre-Mauleon
Idazkari nagusia - Aranzadi Zientzia Elkartea

Gure ikasleek pasadizo bera kontatzen digute beti historiako karrera ikastera zerk bultzatu zituen galdetzen diegunean fakultatean eta, batez ere, hurbilekoen erreakzioa zein izan den galdetzen diegunean. Kasu guztietan, galdera berbera dago airean... Eta Historiak, zertarako balio du? Medikuek gaixotasunak sendatzen eta biziak salbatzen dituzte; arkitektoek eraikinak eraikitzen dituzte; ingeniariek herri-lanak egiten dituzte gure bizimodua -hala dio zenbaitek- errazagoa eta erosoagoa izan dadin; halaber, fisika teorikoaren edo kosmologiaren jakintza arlorik kamutsenetan sartzen den jendeak dio haien lanak baduela praktikotasunik. Behin eta berriro esaten digute ez legokeela GPSrik edo Internetik Einsteinen erlatibitaterik edo fisika kuantikorik gabe. Zientziak etorkizunari begiratzen dio eta beraz, ... Zertarako begiratu iraganari?

Ez da hau historialarien lanaren alde egiteko leku aproposa. Nik esandakoa neure interes partikularraz zipriztinduta egongo da segur aski. Izan ere, ni neu historialari profesionala izanik, zuzenean nago horretan nahasia. Baina iraganaren aldeko defentsa egingo dut, hori bai. Edo ezagutzaren, ikerketaren eta oroitzapenaren aldekoa hobeki esanda. Izan ere, iragana giza bizipenaren alderdi garrantzitsua da oso, bai gizabanakoarena, bai giza taldearena. Azter dezagun geure burua eta galde diezaiogun: Nor naiz? Seguruenik galderari erantzuteko ez dugu soilik edo nagusiki gaur egun, orainaldian, garenaz hitz egingo. Pertsona gisa dugun nortasuna jaiotzen garen unetik pilatzen ditugun bizipen guztien batura da: bizi izan dugunak, sentitu dugunak, ikasi dugunak eta ahaztu dugunak ere balio du orain garen hau osatzeko. Gu, funtsean, gure oroimena gara. Imajina dezagun une batez oroimena galdu dugula, oroitzapenak desagertu egin direla. Geure nortasunaren kontzientzia galduko genuke erabat.

Zentzu horretan, gizabanakoaren eta oroimenaren artean dagoen erlazio berbera dago herriaren eta historiaren artean. Hein handi batean, historia giza talde baten oroimen kolektiboa da. Eta arrazoi beragatik, ez da historiarik gabeko herririk, bere nolakotasunaren kontzientzia galtzen baitu. Identitatea galtzen du. Gu gara haiek izan zirelako, eta beraz, gaur egun garena ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da gure aurretik izan zirenen ekintzak, gertaerak, pozak eta oinazeak zein izan ziren ezagutzea, berreskuratzea eta ulertzea. Ezinbestekoa da, orobat, etorkizuneko biderik aproposenak zein diren jakiteko. Hori bai, ez dugu epaituko eta ez dugu iragana alferrikakoak diren borroka zentzugabeetan elkarri min egiteko erabiliko. Ikasteko asmoz bai ordea, arrakastetatik zein akatsetatik ikasteko.

Hala, itxaropentsua da ikustea gure artean badela pertsonarik edo erakunderik iragana berreskuratzearen eta oroimen kolektiboa ez galtzearen alde lan egiten duenik. Kasu honetan Aiako Udala da. Izan ere, udalak joan den XX. mendean gure bilakaera historikoan eragin handia izan zuen une erabakitzaile bat berreskuratzeko interesa erakutsi du, Gerra Zibila hain zuzen. Horrek Aiako oraina eta iragana hobeto ulertzen lagunduko digu, eta baita Gipuzkoakoa eta Euskal Herri osokoa ere. Iragana gertuko ikuspegitik aztertzen duenak beso zabalik hartu ohi ditu halako ahaleginak. Horiei esker, XIX. mendearen amaieran Euskal Herrian hasitako bilakaeraren puzzlea osatzea errazagoa da, hau da, Euskal Herriaren identitate bereziaren eta bere nahien eta asmoen kontzientzia nola garatu zen ezagutzea. Iragana apur bat hobeto ezagutzeak geure burua hobeto ezagutzen laguntzen digu. Eta, zalantzarik gabe, iragana hobeto ulertzea guztiontzat izango da onuragarria.

Oscar Alvarez Gíla
Euskal Herriko Unibertsitateko Historiako irakasle titularra

Eneko Sanz Goikoetxea
Egilea

Joxe Mari Gonzalez de Txabarri Alustiza
Egilekide

Bi Hitz:

El último tamborilero de Erraondo liburuan Arturo Kanpionek Pedro Fermín Izko artzain eta txistulariaren bizipenak kontatzen ditu sentimendu handiz. Ameriketan hainbat hamarraldi igaro eta gero, herrira itzuli zen bere herrian *Ingurutxo*[1] bat jotzeko ilusioz, denbora eta distantzia luzeek soilik sortzen duten herriminaren ondorioz hamaika aldiz amestua.

Lan horretan Nafarroako idazleak aguretutako *Amerikanuaren* tristura deskribatzen du: nola botatzen dituen faltan, herrira hurbildu ahala, kanpoan urteak eta urteak igaro eta gero, bere irudimenean besterik ez dirauten herriaren berezko identitate-ezaugarriak. Hain da hala, artzainari ez baitzaizkio ezagunak egiten ez bere geografia, ez ohiturak eta ezta bertako jendea ere.

Azkenean, aspalditik nahi zuen unea iritsi eta herriko plazan ingurutxoa jo zuenean, bertako batek hala esan zion burla eginez: *-La borrachera, o qué, t´a dau por chiflar agüelo?*

Eta Pedro Fermínek euskaraz erantzun zionean, arrotzak hala esan zion hatzaz iparraldeko mendiak seinalatzen zituela: *-Nosotros no somos montañeses, rejones! Guárdate tu vascuence pa los d´arriba!*

Lan hau "goiko" horiei eskaintzen diet nik, Aiako herritarrei, Euskal Herriko beste hainbat herrik bezala, gure arbasoen milaka urteko kultura bizirik mantentzen jakin izan dutelako eta baita bertakoen onberatasunagatik, emandako hitza betetzeagatik, lanarekiko maitasunagatik eta lurrarekiko loturagatik; Pedro Ferminek faltan bota zituen gauza horiengatik guztiengatik.

Izan ere, Aian postariak oraindik ere gure izenaz esaten digu, baserritarrak bere produktuak ematen dizkigu dastatzeko, mahastizain edo ardogileak urteko txakolin berria dastatzera gonbidatzen gaitu eta ama direnek seme-alaben aurrerapausoak aipatzen dizkigute.

Ezagutu gabe eta izenik jakin gabe ere, aitarengandik nuen herriaren berri. Beti esan izan zidan Kantauri itsasoarengandik mendiek babesten zuten herri haietan gordetzen zela ondoen nazio honen funtsa.

Horregatik, aitari, Pablo Sanzi, eta aiar guztiei eskaintzen diet lan hau.

Aian 2014eko Irailaren 1ean.

[1] *Ingurutxo termino orokorra da eta hala deritzo batez ere Nafarroan dantzatu izan den eta oraindik ere dantzatzen den gizarte-dantza bati..*

EUZKO ALDERDIM JELTZALIA

~~Eusko Jel Batza~~

GIPUZKOA

Donosti Buru Batzar

Landolak: Plaza de la Alameda 7'an

510'g. urrutizkiña

Donostia 17 de Abril de 1931

21 abril de 1931
Núm. entrada: 178.

Sr. Dn. Gabino Alustiza - Aya -

Distinguido compatriota:

Adjunto le remitimos la moción que las minorías nacio-listas de todos los Ayuntamientos de Gipuzkoa deben presentar en la primera sesión de sus correspondientes municipios.

Noses grato también notificarle a V., que en casi todos los Ayuntamientos de Biskaya y en muchos de Gipuzkoa que cuentan con mayor'ia nacionalista, han elevado la misma reclamación de nuestros derechos patrios al Gobierna de la República Española.

También esa corporación, como lo han hecho en los municipios antes citados, debe izar Nuestra Bandera Nacional, en el momento de la constitución del Ayuntamiento.

Esperando de su probado patriotismo, cumpla estas órdenes de este Comité Regional de Gipuzkoa, le saluda en JEL.

Por el GIPUZKU BURU BATZAR

Avelino Daniel

Amigo Gabino: Le agradeceré haga tomar en esa los acuerdos que aquí se indican, que se han tomado ya en muchos Ayuntamientos. Suyo affmo amigo

Ignacio Heller

II. AIA, 1931-1936:
Errepublikaren garaia

2.

2.1. Errepublika eta autonomia Euskal Herrian



En este momento histórico en que ha desaparecido el régimen destructor de nuestra libertad política como nación, ante el hecho de la nueva estructuración del Estado español, la minoría nacionalista vasca del Ayuntamiento de....., después de afirmar los derechos naturales e históricos que como tal nación le corresponden, reclama como primer acto de auto-determinación del País Vasco, la proclamación de la República Vasca, confederada con las demás Repúblicas Ibéricas.

A tal fin, significa su enérgico apoyo hacia quienes en tierra vasca pugnan por el cumplimiento de cuanto en este orden se estableció en el solemne pacto de Donostia, y piden que, adoptado por la Corporación este acuerdo, se transmita inmediatamente al Presidente del Gobierno Provisional.

01



9 mayo de 1931
Núm. entrada: 195

Accediendo a la petición presentada por los Alcaldes de Azpeitia, Vergara, Zumaya y Andoain, este Ayuntamiento, entendiendo que la redacción del Estatuto Guipuzcoano de Autonomía y el General del País Vasco, debe ser de la competencia exclusiva y privativa de los Ayuntamientos, acuerda lo siguiente:

1º Adherirse al proyecto de Asamblea de los Ayuntamientos guipuzcoanos en la cual se discutirá y aprobará el Estatuto Guipuzcoano de Autonomía.

2ºAdherirse tambien a la Asamblea General de todos los Ayuntamientos del País Vasco, para acoplar el Estatuto Guipuzcoano al Estatuto General Vasco que debe ser presentado a las Cortes Constituyentes.

3º. Mostrar su adhesión a la Comisión de Alcaldes para la labor preliminar, mientras la Asamblea o Junta General Guipuzcoana acuerde la constitución de una Comisión Permanente oficial.

4º. Designar a D. Gabino Alustiza..... como procurador de la Junta General Guipuzcoana y para la Asamblea General de Ayuntamientos.

02



Telegrama que deben dirigir todos los Ayuntamientos Guipuzcoanos a la Sociedad de Estudios Vascos de San Sebastian, antes del día 10 del corriente.

RUEGA ENCARECIDAMENTE ESTE MUNICIPIO A SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS REMITA POR MEDIO SUBCOMISION GUIPUZCOANA ESTATUTO CONSULTANDO PREVIAMENTE TODOS LOS PARTIDOS POLITICOS.

Ayuntamiento de .....

03

Indar monarkikoek hauteskunde-porrotaren ondorioz koalizio errepublikanoak hauteskundeak irabaztearekin batera, erregimen politikoa aldatu egin zen eta horrek gertakizunak azkartu zituen. Jakina denez, Bigarren Errepublika aldarrikatu zuen lehen herria Eibar izan zen. Alfontso XIII.a Erromara erbesteratu zen eta estatuak demokraziaren bidetik ibilbidea hasi zuen.

Baina haiek ez ziren demokraziaren esperimentuak egiteko garai aproposenak. 1929ko krisialdiaren ondorioek mundu osoko burtsen lur-jotzea ekarri zuten Wall Streeteko porrotaren ostean. Krisialdiak gizarte-talderik ahulenei eragin zien, pobrezia, langabezia eta gero eta gizarte-presio handiagoa bizi baitzuten. Horri guztiari Europako testuingurua gehitu behar diogu: indar politiko berri eta boteretsuen gorakada, Italiako faxismoarena eta Alemaniako nazismoarena batez ere. Indar horiek etorkizuneko aukeratzat aurkezten zuten euren burua, zenbaitek garai hartan demokraziak porrot egin zuela uste baitzuen. Hauteskundeetan garaile ateratako gobernuen ahuleziari eta ezegonkortasunari aurre egin behar zieten. Hamarraldi osoan, Mussolinik eta Hitlerrek anarkiaren eta iraultzaren ordezko aukera bakartzat aurkeztu zuten euren burua. Europan asko ziren Italiako eta Alemaniako adibideei inbidiaz begiratzen zietenak; Espainiako armadaren eta indar tradizionalisten baitan ere sortu ziren, estatua faxismoaren alde jartzeko asmoz, bat-bateko esku-hartzea aldarrikatzen zuten ahotsak. 1931ko apiril hartan, aldaketa itxaropentsu eta pozgarri hartan, hori oso urruneko kontua zen, ezinezkoa agian.

Luze idatzi da Bigarren Errepublikaren esanahi politikoaz, estatu mailan zein Euskal Herrian izan zituen ezaugarriei buruz. Aldaketa politikoaren, transformazio ideologikoaren eta gizartearen modernizazioaren promesa horiei, Euskal Herrian galdutako autogobernua berreskuratzeko aspaldiko asmoak gehitu behar dizkiegu. Euskal lurraldeek mendetako tradizioa zuen burujabetzarako gaitasuna ia erabat galdu zuten 1841eko Nafarroako Lege Hitzartuaren ostean eta manu militari dekretuek 1876an Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foruak bertan behera utzi ostean, azken karlistaldiaren amaieran ia herri osoa mende zutela. Hori bai, kontzertu ekonomikoa sortu zen, tradizio handiko foru kutunen azken arrasto eta oinordeko. Kontzertuaren existentzia hutsak azkenean idealizatu ere egin ziren garai zaharren oroitzapena areagotzen zuen. Foruak galtzeak eragin handia izan zuen. Gainera, egoera ekonomikoa, soziala eta demografikoa goitik behera aldatu zen industrializazioaren, urbanizazioaren eta barne zein kanpoko migrazio mugimenduen ondorioz. Horrek guztiak euskal herritarren kontzientzia astindu zuen azkenean. XIX. mendeko azken hamarral-

01 - Udaletxeko lehenengo ekintza Euskal Herriko Autodeterminazio eskubidearen aldeko iradokizuna izateko idatzia. 1931ko Apirilaren 17a.

02 - Gabino Alustiza, Gipuzkoako batzar nagusiko prokuradore eta udaletako asanblada orokorrerako izendatuko dute. 1931ko Maiatzaren 9a.

03 - Gipuzkoako udaletxe guztiek, Eusko Ikaskuntzari bidali beharreko telegrama. Euskal Estatuaren inguruan, alderdien artean eginiko ondorioak azaltzeko. 1931ko Maiatzaren 9a.

04



PROYECTO DE LA COMISION DE FUEROS

ESTATUTO GENERAL DEL ESTADO VASCO

Declaración preliminar

ARTICULO 1º - Se declara que el País Vasco, integrado por las actuales provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, constituye una entidad natural y jurídica con personalidad política propia y se le reconoce como tal el derecho a constituirse y regirse por sí mismo, como estado autónomo dentro de la totalidad del Estado Español con el que vivirá articulado conforme a las normas de la ley de relaciones concertada en el presente Estatuto.

Cada una de las referidas provincias se constituirá y regirá a su vez autonómicamente, dentro de la unidad del País Vasco.

[illegible] tiene por objeto establecer, de acuerdo con el Parlamento [illegible] las formas jurídicas que permitan conservar en la especialidad presada personalidad natural, estructurando la unidad vasca sobre la base del respeto a las autonomías particulares, para asegurar la prosperidad del País Vasco, la libertad y el bienestar material y espiritual de sus habitantes.

TITULO PRIMERO

Territorio, Derechos y Obligaciones

ARTICULO 2º - El territorio del Estado Vasco queda hoy integrado por todo el contenido dentro de los límites de las actuales provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya.

Podrán ser admitidos en adelante a formar parte integrante del Estado Vasco otros territorios cuyos habitantes así lo soliciten, mediante el voto expresado plebiscitariamente del 80 % de los electores incluidos en su censo electoral para elecciones generales, y siempre que la admisión sea autorizada por el Parlamento español, por el Consejo General Vasco y por las Asambleas legislativas particulares de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya. Será también indispensable que el territorio que so-



30 mayo de 1931
Núm.entrada:222

Estimado Sr. Alcalde: Adjuntamente le enviamos una copia del acta levantada en la reunión de Alcaldes celebrada en Pamplona en el Salón del Principe de Viana de la Diputación de Navarra, amablemente cedido por el Sr. Presidente de dicha Diputación. Los acuerdos adoptados fueron muy importantes como fácilmente se percatará Vd. sobre todo el referente a la Magna Asamblea de Municipios del Pais cuya celebración en Pamplona se ha fijado para el dia 14 de Junio próximo.

Su entusiasmo por la campaña nos es conocido, haciéndonos esperar que la representación de ese municipio en la Asamblea será brillante y numerosa.

Afectuosisimamente le saludan sus compañeros, que constituyen la Comisión Permanente del Pais.

LOS ALCALDES DE SANGUESA, AZPEITIA, LLODIO Y GUECHO

05



SERRERIA MECANICA
DE
Juan de la Cruz Eizaguirre
AYA (Guipúzcoa)

17 junio 1931
Nº185 entrada

D. Presupuesto Aproximado de las Obras del Matadero Debe:

MES	DIA	17 de Julio de 1931	Precio	IMPORTE Pesetas	Cts.
25,20	m²	de hormigon de 0,10 con su canal	6,00	151	20
24,00	11	de suelo raso	4,00	96	00
74,20	11	de planos con portland y arena	3,50	259	70
1,06	11	de bentana roble ó castaño	14,00	14	84
		por arreglo de la puerta	3,00	3	00
2,30	11	red metalica	8,00	18	40
14,00	m	de cierre de alero con ladrillo	1,00	14	00
146,40	m²	de blanqueos interiores y exteriores	0,20	29	28
12,00	m	de alcantarilla	5,00	60	00
		por retejo y teja de lo que falta	50,00	50	00
		Total		696	42

pintura de ventanas puerta y del letrero que corre a su cuenta

06

04 - "Proyecto de la Comisión de Fueros. Estatuto General del Estado Vasco". 1931ko Maiatzaren 20a.

05 - Iruñean alkateek izandako bileran, Euskal Estatutuaren alde eginiko txostena. 1931ko Maiatzaren 30a.

06 - Juan de la Cruz Eizaguirre zerratokitik, Aiako udalari eginiko faktura. 1931ko Ekainaren 17a.

dian, euskal herritarren berezko identitatearen, hizkuntzaren eta kulturaren aldarrikapenak politikaren mugak gainditu zituen identitate nazionalaren adierazpen bihurtuz. Ondorengo hamarraldietan, gero eta euskal herritar gehiagok aldarrikatzen zuen Euskal Herriari nazio-estatusa aitortu behar zitzaiola. Euskal nazionalismoa, hasieran, Bizkaian zabaldu zen batez ere, baina berehala hartu zuen indarra gainerako lurraldeetan ere. Eta "estatutu" hitza talisman bihurtu zen. Estatutua, autogobernurako gaitasuna aitortuta, herriaren borondate politikoa berreskuratzeko lehen urratsa zen, txikia, baina berebiziko garrantzia zuen urratsa.

Hala ere, XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan Espainiak izan zuen bilakaera politikoak ez zuen lagundu euskal nazioaren aldarrikapenetan. Kontzertuak hor jarraitzen zuen, aldian behin hauteskundeak egiten ziren –monarkia borboitarraren berrezarkuntzarekin ezarritako alderdien "txandakatze-sistemak" kontrolatua hein handi batean-, nazionalismoa toleratu egiten zen eta, noizean behin, aurrerabide handiak lortzen zituen udal hauteskundeetan eta probintziako hauteskundeetan. Hargatik, estatuak ez zituen antza begi onez ikusten foruak guztiz berrezartzearen aldeko lehen aldarrikapenak, ezta foruen modernizazio ziren autonomia-estatutuarenak ere. Aitorpen-saiakera bakarra Katalunian egin zen. Hala, 1917ko hamarkadan "mankomunitatea" sortu zen –entelekia instituzional bat zen, baina hala eta guztiz ere, urrats erraldoia izan zen katalanen berezitasun soziokulturalak eta politikoak aitortzeko bidean-. Baina puntu honetan aurrera egiteko aukerarik txikiena ere desagertu egin zen Primo de Riveraren diktadurarekin. Izan ere, diktadurak estatuaren ikuspegi tradizionala eta unitarioa zuen eta estatua kontrolatzeko euskarri nagusitzat armada zuen. Alfontso XIII.aren monarkiak diktadura onartu zuen eta horrekin batera, monarkiaren patua ezinbestean diktadurarekin lotu zuen. Hala, erregeak herritar gehienen nahien kontrako bidea hartu zuen. Herritarrek parte-hartze politikoa eskatzen zuten; Alfontso XIII.ak, ordea, diktadura ezarri zuen. Nazionalitate historikoek aniztasuna aitortzeko eskatzen zuten; monarkiak, ordea, zentralismo uniformatzailea ezarri zuen. Horiek horrela, iristear zegoen Bigarren Errepublikak bandera berri bat zekarren berekin baina horrez gain, diktaduraren jokabide politikoaren kontrakoa zen diskurtsoa zuen. Lehendabiziko aldia zen Espainian, demokrazia promesteaz gain, erregimen politiko moderno batek bere diskurtsoaren baitan deszentralizazioa eta aniztasuna aipatzen zituena: indar errepublikanoak Donostian batu ziren 1930ean diktadura monarkikoaren ordez sortuko zen estatu berria nolakoa izatea nahi zuten adosteko. Hasiera-hasieratik aipatu zuten bertan nazioen berezitasunak aitortzeko beharra, batez ere katalanena (eta, hein batean, euskal herritarrena ere bai).

Ampliando la nota anterior, podemos decir que la cuestión batallona de la reunión fue el criterio mantenido por la representación catalana, expuesto claramente por el señor Carrasco Formiguera en el sentido de que para tomar parte en el hecho revolucionario necesitan ellos el reconocimiento de la personalidad catalana, pues no pueden prescindir de ser catalanes, aunque sean republicanos.
Unánimemente se mantuvo entre los reunidos el criterio de que Cataluña redacte libremente el Estatuto Catalán, sometiéndolo en su día al refrendo de las Cortes Constituyentes.
En este espíritu federalista de la asamblea ***se dijo también que el mismo criterio habría de seguirse por lo que respecta a otras regiones con personalidad definida, como son las Vascongadas, Galicia, etc.,*** *dentro de la unión perfecta de todas ellas.*

07
MINORIA NACIONALISTA VASCA
EN LAS CORTES ESPAÑOLAS
25 de Diciembre de 1933
Muy señor nuestro:
08
MINISTERIO DE TRABAJO Y PREVISIÓN SOCIAL
Publicaciones de la Oficina Central de Colocación y Defensa contra el paro.
Folletos de divulgación.
Serie B: LEGISLACIÓN
Legislación relativa a empleo de trabajadores del campo
09
18 Diciembre 1933
El Diputado a Cortes
por Guipúzcoa
Manuel de Irujo y Ollo
4 Enero 1934
1933'go. Lotazila'k 25
10
12 Julio 1935
JUNTA PROVINCIAL DE PROTECCIÓN DE MENORES Y REPRESIÓN DE LA MENDICIDAD
GUIPÚZCOA
11
AGUR:
ARABA'KO ALDUNA:
GIPUZKOA'KO ALDUNAK:
BIZKAI'KO ALDUNAK:

07 - "Legislación relativa a empleo de trabajadores del campo". 1933an Bigarren Errepublikako Gobernuak ateratako idatzia.
08 - Manuel Irujo Ollo politikariak, Aiako alkateari idatzitako eskutitza. 1933ko Irailaren 18a.
09 - España-Latetxeko Aldundi Jeltzalea, Aiako udaletxeari idatzitako eskutitza. 1933ko abenduaren 25a. Gazteleraz.
10 - España-Latetxeko Aldundi Jeltzalea, Aiako udaletxeari idatzitako eskutitza. "1933go Lotazilak 25" Sic. Euskaraz.
11 - Gipuzkoako "Junta Provincial de protección de menores de la infancia y de la represión de la mendicidad" Aiako udalari bidalitako eskutitza. 1935eko Uztailaren 12a.

12



12 Abril 1933
Núm.entrada:161

ALCALDIA DE LA N. Y L. UNIVERSIDAD DE AYA

Núm. 142.

Habiendo transcurrido con exceso las cuarenta y ocho horas que se le señaló por oficio de esta Alcaldía, de fecha 30 de Marzo último pasado, para que dentro de las mismas, facilitara a esta Alcaldía una relación de obreros de su dependencia, con ignando en ella Nombres y apellidos, edad, naturaleza, vecindad, domicilio y oficio u ocupación de los mismos; sin que haya dado cumplimiento a ello, requiero a V. para que, a vuelta de la presente, se sirva presentar dicha relación en esta precitada Alcaldía, y sírvase al propio tiempo devolverme firmado el duplicado de esta comunicación que se acompaña.

AYA a 12 de Abril de 1933.
EL ALCALDE,

Recibí el duplicado de esta comunicación.
AYA, 17 Abril de 1933.

SR. DON JOSÉ

13



20 Julio 1933
Núm.entrada:352

SERRERIA MECANICA
DE
Juan de la Cruz Eizaguirre
CONTRATISTA DE OBRAS

AYA 14 de Julio de 1933

Ylustre Ayuntamiento
Examinado por encargo de esa Alcaldía el puente de Legurola derruido y arrastrado en su mayor parte tengo el honor de participar el coste de su reconstrucción incluyendo materiales y mano de Obra, sera de setecientas pesetas por cuya cantidad me comprometo á reponerlo el puente sin toda urgencia posible, salvo mejor opinión de ese Ylustre Ayuntamiento

Juan de la Cruz Eizaguirre

12 - Aiako udalak ateratako idatzia. 1933ko Apirilaren 12a.

13 - Juan de la Cruz Eizaguirre kontratistaren Aiako udalari eginiko idatzia. 1933ko Uztailaren 20.

15
16
14
17

Beraz, asko izan ziren sistema politiko berriarekin itxaropentsu azaldu ziren euskal herritarrak, bai alde batekoak zein bestekoak. Ez da harritzekoa, hortaz, erregimen-aldaketarekin batera, mobilizazio munizipalista bat sortu izana. Mobilizazio horren buruan lau probintzietako alkate nazionalista bana zegoen (Getxo, Laudio, Azpeitia eta Zangotza) eta Euskal Herriaren Estatutu proiektua idaztearen aukerari buruzko galdeketak bideratu zituzten Euskal Herri penintsularreko 582 udalerritan. Baietz erantzun zuen udalerrietako bat Aia izan zen, proiektua idaztearen ardura Eusko Ikaskuntzaren esku utzita.

Ongi ezagutzen dugu estatutu-proposamenaren prozesua nolakoa izan zen. Alde batetik, nazionalistek zein eskuindar tradizionalistek (indar handia baitzuten Araban eta Nafarroan) sustatutako euskal udalen batzarra errepublika federal baten baitako euskal estatuaren alde agertu zen. Euskal estatu horrek eskuduntza zabala izango zuen, besteak beste: hezkuntza, polizia eta eliza katolikoarekin harremanak. Errepublikaren aurkako eskuin tradizionalistak estatutuari babesa eman bazion, erlijio-klausula hori Espainiako errepublikanismoaren buruzagiek aldarrikatzen zuten laikotasunari aurre egiteko aukera zelako izan zen hain zuen. Beste alde batetik, behin behinean euskal diputazioak gobernatzeaz arduratzen ziren batzorde kudeatzaileek estatutu mugatuago baten alde egin zuten. 1931 urtearen hondarrean Espainiako Konstituzio berria aldarrikatu zuten. Konstituzioak estatu federalaren kontra egiten zuen eta nazioarteko harremanak gobernu zentralaren esku uzten zituen eta horrek barne hartzen zituen Vaticanoarekin egindako itunak. Horrek Lizarrako Estatutuaren ibilbidearekin bukatu zuen, 1932ko ekainaren 19an Nafarroak estatutuaren proiektua utzi ostean.

Hiru probintzietarako estatutu berri bat negoziatzen hasi ziren orduan Konstituzioaren mugen baitan. Azkenean, beste testu bat idatzi zuten, batzorde kudeatzaileek idatzitakoan oinarrituta. De la Granjak honela azaltzen du labur-labur:

> *El siguiente paso del proceso autonómico era la celebración del referéndum sobre el Estatuto de las Gestoras. (..) Atendiendo a los deseos del nacionalismo, el más interesado en el Estatuto, el Gobierno Martínez Barrio convocó el referéndum para el 5 de noviembre, dos semanas antes de las elecciones, proporcionando con ello una gran baza política al PNV, que rentabilizaría el presumible éxito del Estatuto en el plebiscito. (..) Dio una mayoría abrumadora a favor del Estatuto en Vizcaya y Guipúzcoa (votó más del 90% del censo electoral y el 98% de los votantes lo hizo afirmativamente) (..). En cambio, el apoyo al Estatuto fue escaso en Alava, donde la suma de las abstenciones (41,5%) y los "noes" (12%) fue superior a los "síes" (46,5%), debido a la intensa campaña abstencionista del carlismo, primera fuerza de la provincia*[2].

14 - Eusko Ikaskuntzako Argitalpenak. 1931ko Irailaren 21a.

15 - Sabin Euskalduna. 1931ko Irailaren 21a.

16/17 - Donostian eginiko "Gran Semana Vasca" buruzko informazioa. 1932ko Irailaren 18tik 25era.

18 - "Boletín Informativo de la oficina central de coalición obrera y de defensa contra el Paro" Madrileko Lan eta Laguntza Sozialeko Ministeriotik bidalitako aldizkaria. 1933.

Autonomia-prozesua bertan behera geratu zen, ez Euskal Herrian bakarrik, baita Katalunian ere. Izan ere, eztabaida handiak zeuden Arabaren inguruan, ea Arabako adostasun ezak emaitzetan eragin handirik izan zuen; gainera, ondorengo hauteskundeek (sufragio unibertsalaz egiten ziren lehenak, emakumeen parte hartzea barne) asko aldatu zuten Espainiako parlamentuko osaketa, eskuindarrek irabazi baitzuten. Euskal Estatutuaren prozesuak blokeo handia jasan zuen Gorteetan onartua izateko, hein handi batean Arabako eskuin espainolen buruzagia zen Oriol diputatuaren ahaleginei esker. Prozesuaren akabera 1934ean estatu osoa astindu zuen gatazka soziopolitikoa eta ondorioz gertatutako hainbat lurraldetako errebolta politikoak izan ziren. Euskal herritarrak estatuturik gabe geratuko ziren. Horixe izan zen erreboltetan parte hartu izanagatik jasotako zigorra: greba orokorra Bizkaian eta Gipuzkoan, hainbat herri-matxinada eta kale-erasoak. Azken horren adierazpenik beteena Gipuzkoan eskuin tradizionalaren ordezkari ezaguna zen Marcelino Oreja Elosegiren hilketa izan zen. Espainiako hiriburuan sektore ideologiko horren ordezkari zen ABC egunkariak ez zuen zalantzarik: erakutsitako "ausarkeriagatik", nazionalismoa zen horren erantzule eta nazionalismoak izan behar zuen estatuaren errepresalien jasale:

18



BOLETÍN INFORMATIVO

DE LA OFICINA CENTRAL DE COLOCACIÓN OBRERA Y DEFENSA CONTRA EL PARO

Se publica cada dos meses.—Recoge, con referencia a todos los países, **doctrinas, informaciones oficiales y particulares, juicios y comentarios de Prensa, recensiones bibliográficas, legislación, estadísticas, fenómenos migratorios, notas de los mercados de trabajo, salarios, coste de la vida** y cuanto directa o indirectamente afecte a colocación o paro obrero.

PRECIOS:

Suscripción anual, 10 ptas. — Número suelto, 2,50.

La correspondencia, al Administrador del BOLETÍN, Oficina Central de Colocación obrera y Defensa contra el paro, Ministerio de Trabajo y Previsión Social. Madrid.

> *El extracto de la sesión de Cortes que ayer publicábamos consignaba las ovaciones tributadas a los discursos en homenaje a la memoria del Sr. Oreja Elósegui, haciendo constar que en ellas tomaron parte todos los diputados, puestos en pie, menos los nacionalistas.*
> *(..) Ya lo sabíamos, ya lo vió la Cámara, y a alguno de los diputados nacionalistas le hizo sentir el señor Calvo Sotelo la indignación que causaba y el correctivo que merecía tal conducta, porque para toda minoría fué la demostración, aunque un solo rostro la recibiese.*
> *Comunicarnos sus sentimientos antiespañoles y pretender que les hagamos lugar en estas páginas es una insolencia que rechazamos con desprecio*[3].

Eskuindarren biurteko gobernuak asmo autonomistak isilarazteko ahaleginak egin zituen, estatuaren zentralismoaren aldeko muturreko ikuspegia baitzuten. Hala, prozesua berpizteko, 1936ko hauteskundeetan berriro ere ezkerrak irabazi zuen arte itxaron behar izan zuten. Eskuindarren porrot argi eta garbiak ateak zabaldu zizkion berriro estatutu-prozesuari eta, 1930ean esan bezala, estatu-sistema aldatzeari.

[2] *DE LA GRANJA, José Luis; El oasis vasco: el nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra civil; Cinco años de República en Euskadi kapitulutik hartua; Madril, Tecnos 2007.*

[3] *"Una insolencia nacionalista", ABC, 1934ko urriaren 11, 27. or.*

DIARIO ILUSTRADO. AÑO TRIGESIMO. 10 CENTS. NUMERO

ABC

DIARIO ILUSTRADO. AÑO TRIGESIMO. 10 CENTS. NUMERO

A B C. JUEVES 11 DE OCTUBRE DE 1934. EDICION DE LA MAÑANA. PAG. 27.

Una insolencia nacionalista

El extracto de la sesión de Cortes que ayer publicábamos consignaba las ovaciones tributadas a los discursos en homenaje a la memoria del Sr. Oreja Elósegui, haciendo constar que en ellas tomaron parte todos los diputados, puestos en pie, menos los nacionalistas.

Para pedir que rectifiquemos este detalle nos escriben, por su cuenta y en nombre de sus compañeros de minoría, los diputados nacionalistas Sres. Irujo, Monzón y Careaga; pero no se limitan a decir que se unieron a la ovación en homenaje del Sr. Oreja, y parecen más interesados en hacer constar que no comparten las restantes ovaciones de la tarde parlamentaria de anteayer. Es decir, que no comparten las ovaciones a España.

Ya lo sabíamos, ya lo vió la Cámara, y a alguno de los diputados nacionalistas le hizo sentir el señor Calvo Sotelo la indignación que causaba y el correctivo que merecía tal conducta, porque para toda la minoría fué la demostración, aunque un solo rostro la recibiese.

Comunicarnos sus sentimientos antiespañoles y pretender que les hagamos lugar en estas páginas es una insolencia que rechazamos con desprecio. Suscribimos, con especial envío para los firmantes, la demostración del Sr. Calvo Sotelo.

19

19 - *ABC Diario Ilustrado* "Una insolencia Nacionalista". Madrid. 1934eko Urriaren 11a. 27 horrialdea.
20 - Aiako Elizaren atzealdea Errepublika Garaian.
21 - Aiarrak laitan.
22 - Joxe Mari Alday Asto proban.

2.2. Eguneroko bizimodua, mobilizazio politikoa eta euskal identitatea Aian

Dena den, egin dezagun etenalditxo bat eta gatozen berriro aldi honen abiapuntura gure arreta Aian jartzeko. Pagoeta mendi magalean, Aiako kokaleku geografikoa erabakigarria izan da bertako herritarren izaera eta bilakaera historikoan. Testigantzen arabera, herria Erdi Aroan sortu zen. Aiako ekonomia tradizionala lehen sektorean oinarritzen zen eta, batez ere, nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean. Eta halaxe izaten jarraitu du XX. mendea ondo aurreratuta egon arte. Horren osagarri, artisau gutxi batzuk ere bazeuden eta, bertako baliabideak aprobetxatuz, burdinoletan burdina ekoizteko halako tradizio bat ere bai. Garai horren lekuko dira Aian eta inguruneko Pagoetako parke naturalean dauzkagun aztarna arkeologikoak. Aztarnek erakusten dute gizakia modu jarraituan bizi izan dela lurralde horretan.

XIX. azken mende-laurdenean Euskal Herri penintsularraren paisaia eta herritarrak nahasi zituzten eraldaketa sozioekonomikoak ez ziren, ordea, Aiara iritsi askoz beranduagora arte, kostatik gertu egonagatik eta hiri-bilakaera izaten ari ziren guneetatik gertu egonagatik ere (Zarautz edo Zumaia kasu). Arrazoi hori tarteko, Aia herri txikia izan zen garai horietan: bi mila biztanle inguru baino gutxixeago. Karlistaldiek XIX. mendean eragin handia izan bazuten ere, Aiako biztanleria gorabeherarik gabe mantendu izan da 1900. urtetik; 1950eko hamarkadara arte iraun zuen hazkunderako joera txiki bat baino ez du izan (1. taula). Aztergai dugun garaian, Aia oraindik baserri-giroko nekazaritza-herria zen, Gipuzkoako herrietako unibertso tradizionalaren gotorleku bizia. Bertan, lehenagoko garaietan ohiko izandako bizimoduek, usadioek eta ohiturek bizirik jarraitzen zuten oraindik.

20

21

URTEA	BIZTANLEAK
1900	2.261
1910	2.375
1920	2.273
1930	2.391
1940	2.446
1950	2.633

1. Taula: Aiako bilakaera demografikoa (1900-1950)[4].

Halere, udal frankista ezarri eta handik gutxira egindako 1937ko biztanle-erroldaren lagina oso baliagarria gertatuko zaigu, biztanleriaren migrazioen bitartez, prozesu demografikoen nondik norakoak ulertzeko eta, batez ere, Aiak Gipuzkoako beste udalerri batzuekin izan zuen erlazioa eta bere testuingurua aztertzeko.

Aian bizi ziren biztanle gehienak bertan jaioak ziren. Beraz, Aiako biztanleria egonkorra zen eta biztanleak lurraldean oso errotuta zeuden, sustrai sakon tradizionalak dituen gizarte bati dagokion moduan. Baina horrek ez du esan nahi, ordea, Aia bere denborazko ingurunetik eta ingurune geografikotik bakanduta zegoen lurraldea zenik. Erroldak jasotzen duenez, udalerrian bizi ziren zenbait biztanle beste herrietatik Aiara bizitzera etorritakoak ziren. Kanpotar gehienak ingurune hurbilenetik zetozen eta, antza, funtsean, senar-emazteagatik edo lanagatik errotu ziren Aian. Besteak beste, Zumaiatik, Zarautztik, Debatik, Getariatik, Oriotik. Dena den, Aiako mikrokosmos sozialean probintziako geografia osoko jendea zegoen, hein handiago edo txikiago batean: Segura, Orexa, Ezkioga, Lizartza, Hernani, Zumarraga, Gabiria, Andoain, Amezketa, Zizurkil, Tolosa, Soraluze, Orendain, Larraul, Errezil. Nafarroako eta Iparraldeko biztanleak ere baziren, eta baita Euskal Herritik kanpoko etorkinak ere. Aia ez zegoen, inola ere, Euskal Herriko migrazio-korronteetatik kanpo.



22

Edonola ere, bertako ekonomiak eta bizimoduak tradizioan sakon errotuta jarraitzen zuen. Gurekin gordetzen ditugun garai hartako deskribapenek eta testigantzek erakusten dutenaren arabera, Aiako bizimodua baserriak, nekazaritzako eta abeltzaintzako eginkizunek eta familia aurrera ateratzeko egindako ahaleginek markatutako bideetatik joaten zen. Beste batzuen artean, Gorka Larrarte aiarraren lekukotza dugu. Gorkak bizialdi osoan aitonak urtetan kontatutako istorioak gorde ditu (Bartolomé Larrarte Eguskiza, 1918ko uztailaren 10ean jaioa). Gerra atariko urte haietako lekuko pribilegiatua zen eta halakoxeak dira bere oroitzapenak:

[4] *Iturria: Aiako udala: http://www.aiako.com/es/html/1/1477.shtml*

Baserrian bizi ziren hemen, eta lan asko izaten zuten baserrin. Ume asko izaten ziran baserriro. Senide askotako familia jaiotakoak baserri bakoitzan ume asko izaten ziren. Senide askotako familik eta Auzolana egiten zutela askok, elkarri lagunduz musu truke. Elkarri laguntzeagatikan egiten zuten ez zuten konpentsazio ekonomikorik bilatzen. Zeozer egin behar zen garaian batzen ziren[5].

Arestian esan bezala, Aiak aldi honetan biztanleriaren hazkunde ahula bizi izan zuen. Hori, baserriko ekonomiaren berezko mugak medio, bizimodu duina lortzeko oztopoei zor zaio zalantzarik gabe. Gorka Larrartek hainbat motibo berreskuratzen ditu bere aitonak bizitakotik:

Garai horretan Aiako seme asko beste baserri batzutara joaten ziren morroi bezela. Baita beste herri batzutako semeak Aiara morroi gisa ibiltzea. Aitonak beti esaten zigun garai gogorrak izan zirala beraientzako eta "sardin zahar bat bintzako egoten baziran gustora ibili zitezkeela". Baina dirurik ez zegoela jendea ahal zuen erara ateratzen zuela bere bizimodua aurrera[6].

Orduko bizi-kalitateari buruz galdetzean, hotz eta motz erantzun du bilobak:

Bizi kalitatea oso gogorra zela esaten zuen gure aitonak. Baina hemengo jendia osasuntsua zela eta bizitza bezain gogorrak, esaten zuen gure aitonak. Garaiko jendea ximela eta flakoa zela, beste pasta batekoa[7].

Eguneroko bizitzan, herritarrei beste arazo batzuek kezkatzen zieten.

Aian leheno kaminorik ez zegoen, garai horretan gu maizterrak ginan. Aian eliza bakarrik ez ginan joaten. Gaur egun etxe asko egin dira lehen ez zeudenak. Aldaketa haundia egin du Aiak, gure etxera adibidez ez zen urik iristen, bere bila joan beharrean aurkitzen ginen[8].

23


24


25

26

[5] Gorka Larrarte Aizpururi eginiko elkarrizketa.
[6] Gorka Larrarte Aizpururi eginiko elkarrizketa.
[7] Gorka Larrarte Aizpururi eginiko elkarrizketa.
[8] Jose Maria Mendizabal Ayestarani eginiko elkarrizketa.

Eliza katolikoak eragin handia zuen Aian oraindik, bai kontzientziazioari dagokionez eta baita horrek eguneroko bizitzan duen grabitazioari dagokionez. Erregimen politiko berria ezartzearekin batera, sistema laikoa ere ezarri zen, zenbait antiklerikarismo saiakera tarteko eta katolizismoaren errektore tradizionalen ideia politiko erreakzionarioak tarteko. Hala eta guztiz ere, Aian –Euskal Herri penintsularreko ia toki guztietan gertatzen zen bezala-, elizak gizarte-maila pribilegiatua izaten jarraitzen zuen eta eragin handiko indar bizia zelako ospea zuen oraindik. Horiek horrela, une hartako zenbait politikari errepublikanok "Gibraltar vaticanista"[10] izenaz definitu zuten Euskal Herria. Egia da erlijio-ordena batzuk kanporatu egin zituztela, jesuitak adibidez, eta egia da, halaber, beste batzuek, erbesteratuko zituzten beldurrez, zuhurtzia handiagoz jokatu zutela; hain zuzen, Espainiako Gobernuak Gasteizko elizbarrutiko apezpikua -garai hartan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa hartzen zituen barne- kaleratu egin zuen[11]:

21

> *Los problemas concretos en los que se fue materializando el conflicto no ofrecen ninguna originalidad especial. (..) la imputación de motivaciones y finalidades políticas contrarias al régimen recientemente establecido, hechas desde los órganos del Gobierno, sin excluir la de la misma revuelta a promover desde las instancias religiosas; el derecho a la existencia y actuación de las Ordenes y Congregaciones religiosas, que en el País Vasco se polarizó en la Compañía de Jesús y alcanzó su momento álgido en la decisión gubernamental de decretar su expulsión; la libre manifestación de la opinión pública y de la controversia político-religiosa; la libertad de enseñanza, entendida no sólo como derecho a una enseñanza pública laica sino también como derecho a promover centros de enseñanza confesionales; el confesionalismo o aconfesionalidad de los partidos políticos, fueron otros tantos temas que estimularon la actuación de un Pastor que no podía ignorar las enormes repercusiones que de ellos se seguían para la vida de la Iglesia*[12].

Baina eztabaida horren azpitik, Euskal Herriko Elizak eta apaizek halako aitorpena eta ia pribilegioa izaten jarraitzen zuten, gizarte tradizionala gutxi gorabehera bere horretan mantentzen zen tokietan batez ere. Beste eremu batzuetan ere nabarmena zen hori, adibidez, hezkuntzan, elizgizonen esku baitzegoen hein handi batean:

23 - Herriko Plazan aizkolariak.
24 - Herriko Plazan Idi Apustuan.
25 - Herriko dantza taldea 1945eko San Donatoko Jaietan, herriko plazan dantzaldi bat egiten.
26 - Asentsio Ferian.
27 - *Corpus eguna* 40 hamarkadan.

[9] *MORENO SECO, Mónica. "La política religiosa y la educación laica en la Segunda República". Pasado y memoria. 2003, 2. ISSN 1579-3311, 83-106. Or.*
[10] *Besteak beste, José Antonio de AGUIRRE lehendakariak berak hauxe esan zuen oroitzapenen liburuan: "Las izquierdas, por su parte, vieron en nuestro País un temido Gibraltar Vaticanista, el foco reaccionario que con bárbaro fanatismo religioso era capaz de..." (AGUIRRE José Antonio. Entre la libertad y la revolución, 1930-1935. Bilbo, 1935, 535. or.). Ikus, orobat, GARCÍA SANTOS, Juan Felipe; Léxico y política de la Segunda República, Salamanca, Salamancako Unibertsitatea, 1980, 116. or.*
[11] *Francisco RODRÍGUEZ DE CORO historialariaren lanak aipatzekoak dira, hala nola, Catolicismo vasco. Entre el furor y la furia (1931-1936), Cuadernos de Sección, Historia 9, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1988.*
[12] *Donostiako José María Setién gotzainak "Catolicismo vasco..." (1988) liburuaren jendaurreko aurkezpenean esandako hitzak dira horiek.*

Hemen esaten zuen dotrina ikasten zutela asko, baita Errepublika garaian ere. Beti eskolara joaten zirenean elizako liburuekin edo bibliarekin joaten ziren. Erlijioako gauzkin batera kaligrafia ikasten zuten. Nahiz eta ez jakin oso ondo zer idazten zuten, garaiko irakasleek saiatzen ziren letra ona ikas zezaten. Hori oso argi ikusten zen osabak eta aitonak egiten zitzutzen firmetan, letrak oso politak ziren bere kurbekin... nahiz eta beraiek gutxi idazten zuten batez ere gauzak sinatzeko erabiltzen zuten.

28

Jakina denez, Bigarren Errepublikak ahalegin handia egin zuen irakaskuntza sustatzeko, gizartearen garapenerako, hedapen politikorako eta baita herriaren eta herritarren baldintza ekonomikoak hobetzeko tresnatzat hartuta. Euskal probintzien kasuan, Bigarren Errepublikaren ahalegin horiek ordura arte hamarka urtez diputazioen politika tradizionalak bide beretik egindako lanari gehitu zitzaizkion. Hala ere, hezkuntzaren bitartez mundura zabaldu nahi zuenak oztopo handiak aurkitzen zituen oraindik: baliabideak eskasak ziren, ikasteaz gain baserriko betebeharrak ere egin behar ziren, eta gainera, Gipuzkoako herri populatu batzuetan ez zen eskolarik eta beraz, haur guztien eskolatzea lortzea ez zen lan erraza:

29

Aitona ikasteko Aiara joaten zan, baina egunez denborik ez zeukanez gaueskolara joan behar zuen. Hau mendiz mendi eta beti oinez, ordun ez zen kotxerik eta mendi bideak eta atajoak erabiltzen zituzten gora joateko. Horretarako abarkak kendu egiten zituzten (hauek ez puskatzeko) eta oinez abiatzen zen joan beharreko edozein tokira. Ikasketara itzuliaz matematika basiko erakusten zieten[13].

Kontuan izan behar dugu Aiako berezitasunak, hein handi batean, landa-eremuko Euskal Herriko beste herritakoen berdinak zirela. Oraintxe esan dugunez, lehen bereizgarria zen Elizak hezkuntza-sistemari eusten ziola neurri handi batean, eta ez soilik eliteko hezkuntzaren esparrua. Hala, jakina denez, Espainiako indar errepublikanoek ezarritako politika gakoetako bat Elizari hezkuntzan zuen nagusitasuna kentzera zuzenduta zegoen, oraindik ere indar handia baitzuen gazteenen kontzientzietan, bai ikastetxeen, eskolen zein unibertsitateen bitartez. Zalantzarik gabe, 1931an jesuitak kanporatu zituztenekoa da politika horren erakusgarri garbiena; erlijiosoen kongregazioak haien ikastetxe eta eskolen kudeaketatik baztertzeko ezarritako arauak ere ez ditugu ahaztu behar. Dena den, aitortu behar dugu euskal kleroaren eta Espainiako klero tradizionalaren ildo nagusien artean desberdintasun nabarmenak zeudela. Horien artean nabarmenena euskal kleroaren hurbiltasuna zen nazio-aldarrikapenekiko eta euskaldunon identitatearen eta berezko ezaugarri kulturalen defentsarekiko. Gasteizko elizbarrutiko apaizgaitegitik euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak bultzatzen zituzten; eta ez dugu ahaztu behar hainbat eta hainbat apaizek eta erlijiosok zeresan handia izan zutela hizkuntza eta kultura defendatzeko eta hedatzeko sortutako lehen erakunde modernoetan, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia. Aiaren baitan ere euskal kleroaren kontrastea antzematen zen:

Guk Errepublika zer zan ez genekigun ordea, Guk ordun gendun apaiz bat barrion oso euskaltzalea. Berak erakutsi zizkigun euskerazko abesti danak. Pagoetako gurutzea garai horretan egin zan, eta hara kantatzeko kantak Iñaki gure patroia (Ignazio esan beharrean harek beti iñaki gure Iñaki). Nola juten ginan basoan gora kantatzen ikasten eta nola izan ginan hura bedeinkatu behar zenean. Jaialdiak egin ziren bi urtetan; 1934 inauguratu zan eta gero bi jai egin zituzten treintaicincon eta treitaiseisen. Gero debekatu egin zuten jutia ere[14].

[13] *Gorka Larrarte Aizpururi eginiko elkarrizketa.*
[14] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*

30

Kasu honetan, esan genezake Laurgain auzoaz arduratzen zen apaizak joera nazionalista zuela argi eta garbi. Horren aldeko ideiak irakasten zituen keinuen eta jardueren bidez. Guztiz kontrako jarrera zuten Aiako elizaz arduratzen ziren parrokoek:

28 - Ernioko Gurutze Bidea.
29 - Gorputz Eguna: Elizako Aldarea herriko plazara aterata.
30 - Uhegun bidearen inaugurazioa 60 hamarkadan (Frankismo garaian).
31 - Aiako gizonak udaletxe aurrean. II Errepublika garaian.

> ***Gure herriko apaiza Don Hilario egoskor bat zan eta ziurrenik Francoren alde egongo zan. Gu mutil kozkotzarrak doktrina buruz ikasita eraman behar genuen. Ikasi gabe igual lezioak eta giroa izaten zan argi, jipoitu edo.. ez apaiza hua balio zuna zan baina matsakantea... Elizan balio zuna zan sermoia egiten da, dana eramaten zuen Erretore zegon eta. Erretore zegoen eta lau apaiz zeuden Aian, lau he... Aiako terrenon zian; Laurkinen 1, Urdanetan bestia 2, Altzolan bestia 3 eta Aian 4.: denera 7 apaiz genitun. Aiako territorion zazpi apaiz genitun. Astero mezara joan behar ginan. Gainera Jai handitan, garia jaso behar bagenuen ez zuten uzten. Haize pixkat ematen bazun akabo. Gainontzen ez zien txarrak baina hortan.... Santa eske egunean dozena pare bat eman behar genien hau urtero egiten zen[15].***

31

Beste elementu garrantzitsu bat ere izan behar dugu gogoan: hizkuntza. Aia herri euskalduna zen –eta da. Herritar gehienek euskara ulertzen dute eta euskaraz mintzatzen eta bizi dira. Baina euskara eskoletatik baztertuta zegoen aspalditik eta beste hainbat esparrutan ere baztertuta zegoen oraindik. Boterean zeuden ahots gehienek ahal izan zituzten bide guztiak erabili zituzten euskara inon ager edo erabil ez zedin eta iraun ez zezan. Baita elizak ere, Euskal Herriaren tradizioan euskara haztearen eta garatzearen alde egin duen erakunde bakanetako bat izanagatik ere. Horixe gertatzen zen Aian. Izan ere, bertako elizako erretore batzuk nabarmen ipintzen zizkioten trabak euskara bere ingurune naturalean modu arruntean garatzeari:

[15] *Francisco Azkue Etxeberria.*

Euskerarekin oso gogorrak ziren eguneroko bizitzan, baina ez horrekin bakarrik. Egunerokotasunean ez zuten uzten beren sentimenduak agerian erakusten. Horren gainean bikarioak eta apaizak ziren gehien presionatzen zutenak. Jendea erlijioaren bidez beldurtzen zuten, gaizki egiten zen guztia inpernurako bide irekitzen zizun. Beldur horiek Aiako gizarte bat menderatuta izateko erabiltzen zuten. Herritarren artean oso ezagunak beren gaiztakerien gatik Bikarioak ziren[16].

HAUTAGAIA	ALDERDIA	GIPUZKOA	AIA
Antonio PILDAIN	Katoliko independentea	35942	496
Rafael PICAVEA	Katoliko foruzalea	35937	496
Julio URQUIJO	Katoliko tradizionalista	35819	496
Jesús María LEIZAOLA	Eusko Alderdi Jeltzalea	35919	496
Juan USABIAGA	Partido Republicano Radical	25928	7
José María AMILIBIA	Partido Republicano Radical	25254	7
Justo GÁRATE	Eusko Abertzale Ekintza	25407	7
Enrique DE FRANCISCO	Espainiako Langile Alderdi Sozialista	25611	7
Luis CASTRO	Errepublikano dis.	459	0
Nicolás URGOITI	Errepublikano dis.	482	0
José BULLEJOS	Espainiako Alderdi Komunista	342	0
Juan ASTIGARRABIA	Espainiako Alderdi Komunista	329	0
Jesús LARRAÑAGA	Espainiako Alderdi Komunista	314	0
Luis ZAPIRAIN	Espainiako Alderdi Komunista	316	0
BOTO ZURIAK		116	1
BOTO SOLTEAK		91	0

2. Taula: 1931ko hauteskundeak (Gipuzkoa eta Aia).

Aiako bizimoduaren deskribapenak tradizioa eta atzerapena irudikatzen duela iruditu zaio zenbaiti. Hori, ordea, itxura baino ez da. Aia ez zegoen inguruan zuen mundutik bereiz edo urrun. Are gehiago, urte horietan bertan, Euskal Herriko beste leku eta esparru batzuetan gertatzen ari ziren pentsamendualdaketen korronteetan erabat sartuta ageri zen Aia. Egia da Aia ez zela industrialdeko herria eta bertako ekonomiak, hirigintzak eta biztanleriak ez zuela migrazioen ondoriozko eraldaketa muturrekorik bizi izan, batez ere Bizkaiko, baina baita Gipuzkoako beste herrialde batzuek ez bezala. Horrek ez du esan nahi, ordea, Aia ez jakintasunaren irla bat zenik. Horren erakusgarri dira Errepublika garaian herrian egindako hainbat hauteskunde, horiek bitartez hartu baitezakegu herriko egoera ideologikoaren eta haren bilakaeraren pultsua (2., 3. eta 4. taulak).

Zalantzarik gabe, bilakaera honetan nabarmentzeko lehen elementua da Aian euskal nazionalismoa oso errotuta zegoela. Gipuzkoan Gorteetarako ordezkariak hautatzeko ospatzen diren 1931, 1933 eta 1936ko hurrengo hauteskunde guztietan Eusko Alderdi Jeltzalearen hautagaiek jaso zituzten Aian ia boto guztiak . Bigarren Errepublikaren hasieran, eta Gipuzkoan[17] euskal nazionalismoa aspaldi finkatu ez bazen ere, prozesu hori indar handiz eta nabarmen garatu zen herrietako bat izan zen Aia.

32

SABIN EUSKALDUNA

(EUSKO-AUŔAK IRAKURTZEN IKASTEKO IDAZTIA)

Mutil on eta ikaslea zan Sabin.
Ikastetxean beti lenengo eta bere etxean bere gurasoen poza zan.
Ikasgaiak ikasi ondoren oar batzuek artu zituen;
Oar aben bidez, geroago, idaztitxo batzuek egin zituen;
Eta idaztitxo aben bidez, aundiagoa zanean, eusko-aufak irakurtzen ikasteko idazti au egin zuen.

BERAK DITU:

SABIN EUSKALDUNA
Aur on eta ikasle baten bizikera.

EUSKADI'ko LUTELESTIA
Euskalefi'ko Jeograpitxoa, irakurgai atsegintsuen eran.

EUSKADI'ko EDESTIA
Euskalefi'ko Kondairatxoa, irakurgai atsegintsuen eran.

EUSKO-IPUI TA OLERKIAK
Amalau eftar ipui ta olerki, euskera efez eta garbiz idatziak.

GIZADIA
Gizadia ta latefiak edo nasioak bere bafenean: ¿Nola antolatuak daude?

«SABIN EUSKALDUNA» izena duen idazti onek, eun irudi margotuz eta eusko edeski ta luteleski agerkaiez edertua dago.
Ia 150 ofi ditu. Bere saneufia, 2. laurleko idaztia, ta 50 erosten badira 1,80'na.

ESKEAK EUSKO-IKASKUNTZA'RA EGIN BEAR DIRA GIPUZKOA'KO ALDUNDIAN.—DONOSTIA.

GIPUZKOERAZ

(LIBRO DE LECTURA PARA LOS NIÑOS VASCOS)

Sabin era un niño muy bueno y aplicado.
En la escuela siempre era el primero y en su casa la alegría de sus padres.
Después de estudiar las lecciones, hacía unas notas;
Con estas notas hizo más tarde unos libritos;
Y con estos libritos, cuando fué mayor, hizo este libro de lectura para los niños vascos.

CONTIENE:

SABIN EUSKALDUNA
Vida de un niño bueno y aplicado.

GEOGRAFIA DE VASCONIA
Breve Geografía de Vasconia en forma de amenas lecturas.

HISTORIA DE VASCONIA
Breve Historia de Vasconia en forma de amenas lecturas.

CUENTOS Y POESIAS VASCOS
Catorce cuentos y poesías populares vascos escritas en euskera fácil y fluído.

LA HUMANIDAD
Como está organizada la humanidad y dentro de ellas las naciones.
Esta obrita titulada **SABIN EUSKALDUNA** va adornada con más de cien grabados en colores y mapas geográficos e históricos del País Vasco.
La componen cerca de 150 páginas encuadernadas.
Su precio es de 2 pesetas cada libro y 1,80 pesetas si se compran más de 50 ejemplares.

LOS PEDIDOS HAN DE HACERSE A LA SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS DIPUTACION DE GUIPUZCOA.—SAN SEBASTIAN

GIPUZKOERAZ

SIRVE DE LIBRO DE LECTURA Y DE TEXTO

32 - *Sabin Euskalduna* **1937ko Irailaren 21a. Azken orrialdea**

[16] *Gorka Larrarte Aizpururi eginiko elkarrizketa. Oso aipagarria da lekukoak zeinen bereizketa argia egiten duen apaizen eta bikarioen artean. Uste izatekoa denez, Frankistek Aia hartzearekin batera apaizak ihes egin izana oso lotuta dago seguruenik haren kargura zeuden bikarioek antza denez erakusten zuten euskaltasunaren aurkako jarrerarekin.*
[17] *Mikel AIZPURU MURUAK aipatzen duenez, euskal nazionalismoa fenomeno funtsean bizkaitarra izan zen 1920ko hamarraldira arte, baina gero indar handiz zabaldu zen beste herrialde batzuetara ere, Gipuzkoara batez ere (El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): Orígenes, organización y actuación política, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000).*

HAUTAGAIA	ALDERDIA	GIPUZKOA	AIA
Jesús María LEIZAOLA	Eusko Alderdi Jeltzalea	56449	641
Manuel de IRUJO	Eusko Alderdi Jeltzalea	45742	631
Telesforo MONZÓN	Eusko Alderdi Jeltzalea	45923	643
José Antonio IRAZUSTA	Eusko Alderdi Jeltzalea	45427	628
Rafael PICAVEA	Eusko Alderdi Jeltzalea	42636	625
Ramiro de MAEZTU	Renovación Española	32320	56
María Rosa URRACA	Comunión Tradicionalista	31618	55
Antonio PAGUAGA	Comunión Tradicionalista	32055	56
Agustin TELLERÍA	Comunión Tradicionalista	31708	56
Enrique DE FRANCISCO	Espainiako Langile Alderdi Sozialista	21596	3
Toribio ECHEVERRIA	Espainiako Langile Alderdi Sozialista	20435	1
Julia ÁLVAREZ	Espainiako Langile Alderdi Sozialista	20049	1
Federico ANGULO	Espainiako Langile Alderdi Sozialista	19480	1
Juan USABIAGA	Partido Republicano Radical	15698	67
Nicolás BIZCARRONDO	Acción Republicana	15333	65
Manuel DE LA TORRE	Partido Republicano Federal	12395	64
José Miguel GOMENDIO	Errepublikano independentea	11901	62
Juan ASTIGARRABIA	Espainiako Alderdi Komunista	2381	0
Ricardo URONDO	Espainiako Alderdi Komunista	2363	0
Jesús LARRAÑAGA	Espainiako Alderdi Komunista	2349	0
Luis ZAPIRAIN	Espainiako Alderdi Komunista	2272	0
José IMAZ	Eusko Abertzale Ekintza	2116	0
BOTO SOLTEAK		161	0
BOTO ZURIAK		198	0

3. Taula: 1933ko hauteskundeak (Gipuzkoa eta Aia).

HAUTAGAIA	ALDERDIA	GIPUZKOA	AIA
Manuel de IRUJO	Eusko Alderdi Jeltzalea	44053	591
José Antonio IRAZUSTA	Eusko Alderdi Jeltzalea	38220	444
Telesforo MONZÓN	Eusko Alderdi Jeltzalea	38268	446
José María LASARTE	Eusko Alderdi Jeltzalea	37178	437
Rafael PICAVEA	Katoliko foruzalea	37928	452
Antonio PAGUAGA	Comunión Tradicionalista	43656	328
Juan P. LOJENDIO	CEDA	43936	327
Ricardo OREJA	Comunión Tradicionalista	43689	328
José MÚGICA	Renovación Española	43495	328
Miguel AMILIBIA	Espainiako Langile Alderdi Sozialista	40195	7
Mariano ANSO	Izquierda Republicana	40595	7
Luis APRAIZ	Izquierda Republicana	40129	7
Jesús LARRAÑAGA	Espainiako Alderdi Komunista	39213	7
Juan USABIAGA	Partido Republicano Radical	249	0
BOTO ZURIAK		121	0
BOTO SOLTEAK		62	0

4. Taula: 1936ko hauteskundeak (Gipuzkoa eta Aia).



1. Grafika: II. Errepublika garaian Aian aurkeztutako alderdiak izandako emaitzen eboluzioa.

Nazionalismoaren nagusitasunaren aurrean, urte horietan beste bi indarrek ere lortu zuten ordezkaritza Aiako hautesleek botoa emanda, baina kasu horretan, ez da hain erraza hori zergatik gertatu zen ulertzea. Tradizionalismoari dagokionez (bizirik jarraitzen zuen elementu karlistarekin lotuta zegoen eta errepublika garaian Espainiako eskuinarekin gero eta nabarmenago lerrokatu zen), 1931ko hauteskundeetan ez azaltzearen arrazoia da, orduan, Errepublikako lehen hauteskunde konstituziogileetara euskal nazionalistekin koalizioan aurkeztu zirela, elkar lotzen zituen puntu bakarra erlijioa eta konfesionalismo kristauaren defentsa izanik. Koalizio ezegonkor hori hautsi egin zen Euskal-Nafar Estatutuaren 1932ko proposamenak porrot egin zuenean –Nafarroak estatutua lortzeko bidea utzi zuenean, neurri handi batean, tradizionalismoak probintzia horretan presio handia egiten zuelako, estatutuan ez baitzuen ikusten errepublikanismoari eraso egiteko biderik–. Horren ostean, bi hautagaitzak bakoitza bere bidetik aurkeztu ziren Aian. 1936ko hauteskundeetan eskuineko koalizioek boto gehiago lortu zituzten nabarmen; Espainiako Elizak eragindako polarizazioaren ondori izan zen hori. Izan ere, elizak indar ezkertiarren kontrako kanpaina egin zuen boto katolikoa bateratzeko asmoz.

Azkenik, ezker errepublikanoek 1934ko hauteskundeetan lortutako boto-kopurua, txikia baina esanguratsua, nondik datorren argitu gabe dago oraindik. Hala, urte hori baino lehenago edo beranduago, ez dugu ezagutzen nazionalismoaren nagusitasunari eta tradizionalismoarekin lotutako elementuei aurre egiteko moduan aurkez zitekeen halako indarrik.



ESTA APROBADA LA ORGANIZACION DEL PAIS VASCO

EL DIA

SAN SEBASTIAN. JUEVES 11 DE JUNIO DE 1936 AÑO VII. NUMERO 1799

HACIA LA CONSECUCION DEL ESTATUTO VASCO

La Comisión siguiendo su intensa labor aprobó todo lo concerniente a la organización del País Vasco

Sólo fálta por dictaminar lo referente a Hacienda, porque el resto del proyecto está ya terminado

Los diputados del País Vasco gozarán de inviolabilidad en el ejercicio de sus funciones en todo el territorio de Euzkadi

El Estatuto de Madrid y el nuestro

Madrid. -- En el salón de sesiones se discute como materia principal un dictamen de la Comisión de Obras, en virtud del cual, se realizarán en Madrid una serie de edificaciones y proyectos que importan una cantidad de noventa millones. ¡Noventa millones!

No es de ahora, que Madrid defienda su capitalidad consiguiendo el máximum posible de privilegios.

Y ahora, que hasta los propugnadores del Estatuto Vasco, de Castilla y León no quieren nada con la Villa del Oso y del Madroño, insiste en sus pretensiones. ¡Y se lleva ese bocadito! Que es todo un Estatuto de Madrid.

Nosotros nos conformamos con menos, aunque en nuestra opinión sea más, mucho más.

La Comisión en su reunión de hoy, ha seguido aprobando artículos de la ponencia, en la marcha progresiva que hube de señalar.

Se han dictaminado hoy, el título tercero que trata de la organización del país. El quinto, que se refiere a la modificación del Estatuto, y las disposiciones adicionales.

Queda, por consiguiente, pendiente de dictamen, únicamente el título cuarto, que se refiere a la Hacienda del país.

La organización política aprobada como ya se preveía y anuncié, se basa en una gran libertad del país para la fijación de sus rectores. Le va con ello, a que la organización que se adopte no tenga rango constitucional y pueda ser corregida y reformada cuando convenga, siguiendo los dictados de la experiencia política vasca.

Al mismo tiempo se consigue una ventaja de tipo práctico considerable, cual es, la mayor facilidad que resulta para la discusión del dictamen.

Claro está, que esta libertad de auto - organización no es absoluta ni mucho menos.

Establece un organismo legislativo y otro ejecutivo.

El primero estará constituido por representantes del pueblo en número o mejor, de uno por cada veinticinco mil elegidos, así como los componentes de los demás órganos legislativos, por sufragio universal directo y secreto.

Estos representantes populares serán inviolables por sus votos y opiniones emitidas en el ejercicio de su cargo, y su responsabilidad por los delitos que pudieren cometer en Euzkadi, únicamente será exigible por los organismos judiciales superiores del ramo penal del país.

El organismo ejecutivo deberá contar con la confianza del legislativo, y su presidente asumirá la representación de Euzkadi, así como la del Estado español en el territorio vasco.

El pueblo podrá manifestar su voluntad por medio de las elecciones, el referendum y la iniciativa en forma de proposición de ley.

Como se ve, es una regulación democrática, y flexible que a no dudar, plasmará en una organización sencilla, práctica y ejemplar, recogiendo lo más esencial de nuestra tradición política, para inyectarla en las formas más modernas y eficaces.

En este capítulo se establecen también los organismos competentes para resolver las cuestiones de competencia, tanto intra - vasca, como entre las autoridades vascas y los organismos de la República.

La modificación del Estatuto podrá hacerse por iniciativa de país mediante referendun de Ayuntamientos y aprobación de su órgano legislativo, o por iniciativa del Gobierno de la República. Esta iniciativa para su consumación ha de seguir el siguiente trámite: Propuesta de la cuarta parte de las Cortes, y voto posterior de las dos terceras partes de las Cortes, y voto posterior de las dos terceras partes de sus diputados, si el acuerdo de las Cortes fuese rechazado en referendun por el país, será menester la ratificación por las siguientes Cortes.

¡No es, pues, tan fácil!

La implantación del Estatuto se regula en las disposiciones adicionales.

En estas elecciones que se harán con el sistema de representación proporcional, formando un colegio, cada región vasca, se designará un diputado por cada diez mil habitantes. Y todos estos diputados "provinciales" reunidos, constituirán la asamblea legislativa provisional del país, la cual durante su mandato de seis meses organizará los poderes regionales fijando su composición, funciones y mutua relación.

Cumplida esta misión y la de activar la constitución individual de las regiones vascas y acordar la ley electoral vasca, se disolverá esta asamblea y comenzará la normalidad de la vida constitucional vasca.

En la otra disposición adicional, se dispone la constitución y funcionamiento de la comisión mixta para el traspaso de los servicios reconocidos en el Estatuto.

Esta es, en líneas generales, la parte de dictamen que se ha aprobado hoy.

Aunque no recoge en todo nuestro pensamiento, hay motivo para estar satisfechos de la labor efectuada.

Queda para el próximo miércoles la parte de Hacienda.

Podía haber bajado al salón de sesiones la parte política del Estatuto, como se hizo con el catalán, y comenzar su discusión mientras la Comisión dictaminaba la Hacienda. Pero razones de prudencia política, patentes, pensando un poco aconsejan lo contrario.

Por consiguiente, hay un compás de espera hasta el miércoles próximo.

¿Qué pasará?

Las derechas amenazan intensificar la oposición contra nuestro sistema hacendístico, y en particular contra el Concierto Económico.

Es muy curioso -- y el país lo ha de tener muy en cuenta -- que quienes representaban la posición política de ¡Estatuto no! ¡Concierto sí! resulten ahora propugnadores de ¡Estatuto sí! ¡Concierto no!.

En fin, todo se verá, y lo que sea sonará. Y sonará "concertado". Perdón por el chiste.

LASARTE

EN FAVOR DE NUESTRO ESTATUTO

Conferencia radiada

Siguiendo el ciclo de conferencias radiadas organizadas por el Comité Catalá pro Estatut Vasc, hoy jueves día 11 y a las ocho y cuarto de la noche corresponde usar el micrófono de Radio Barcelona al señor Domenech Laforre, quien desarrollará el tema "El Estatuto Vasco y la unidad del País".

Esperamos que como las anteriores, será escuchada con interés por los radioyentes.

A los quince días de su publicación, el Gobierno de la República, convocará a elecciones de Diputaciones "provinciales" en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, que se verificarán dentro del plazo de treinta días de la convocatoria.

—o—

Madrid. — Desde las once hasta las dos y veinte, estuvo reunida en el Congreso la Comisión de Estatutos.

(Pasa a la página siguiente)

33

2.3. Gerraren atarian

1936ko uda tenperatura altuekin baina jasangarriekin hasi zuten Aian. Gipuzkoako ohiko udagiroa, itsasoaren indarrak eta hezetasunak leundutako beroaz. Hala ere, egun eguzkitsuak ziren nagusi eta tenperaturak beroak ziren. Baina ez zen eguraldi atmosferikoa bero zegoen bakarra. Politikaren tenperatura ere gero eta beroagoa zen, Euskal Herriaren baitan eta hortik kanpo gertatutakoek aldaketa-aro berri bat aurreikusten baitzuten. Bazirudien 1936. urtea beste 1931 bat izan zitekeela, Goiogana , Irujo eta Legarretaren metafora egokia gure eginez[18].

Hein handi batean, euskal herritarroi dagokigunean, politikaren tenperatura uneko gaiak berotzen zuen: Euskal Estatutuaren bidea berreskuratzearen gaiak. Ezkerreko indarrek gehiengoa zutela-eta, 1936ko otsaileko hauteskundeetatik sortutako ganbera berriak lehenagoko gehiengoak geldiarazitako prozesua zabaldu zuen berriro. Ekainaren 11ko *El Día* egunkariak estatutuaren batzordeak Madrilgo Gorteetan onartutako testu autonomikoaren kapitulu berri bat zekarren lehen orrialdean. Kapituluak etorkizuneko euskal estatu autonomikoaren egitura politikoa zein izango zen zehazten zuen, oraindik ere oso korapilatsua zen Ogasunaren gaia salbu. Egun hartan Elizak Corpus eguna ospatzen zuen eta Euskal Herrian eta batez ere tradizio katoliko handiko landaeremuetan jarraipen handia izaten zuen jaia zen. "Maitasun eta pekamen eguna" zioen egunkariak:

> *En el País Vasco fué siempre este día el más señalado del año litúrgico. Formaban los vascos, sin distinción de clases y hermanando a todas ellas, compactas filas que, ataviadas con sus mejores galas, acompañaban al Señor por calles y plazas. (..) El Alcalde o el Regidor síndico, vestidos de negra levita y cubiertos de gran tricornio, agitan la bandera del pueblo a uno y otro lado delante del Santísimo en el pórtico de la Iglesia y la extienden sobre el suelo para que pase sobre ella Jesús Sacramentado.*
> *Este acto simbólico es toda una declaración de régimen político. Dios en primer término, sobre todo lo existente, sobre el pueblo, sobre la patria de los vascos. Fué precisamente el lema del insigne fundador del nacionalismo vasco[19].*

33 - *El Dia* "Hacia la consecución del Estatuto Vasco". Donostia. 1936eko Ekainaren 11a osteguna. Azala.

[18] *GOIOGANA MENDIGUREN, Iñaki; Josu LEGARRETA BILBAO eta Xabier IRUJO AMETZAGA; Un nuevo 31. Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 2007.*

[19] *"Día de amor y reparación", El Día, Donostia, 1936ko ekainaren 11.*

Beste hainbatetan bezala, erlijioa eta politika elkarri lotuta azaltzen dira euskal herritarren imajinarioan. Baina politikak arreta guztiak bereganatzen zituen eta estatutua idaztearen prozesua ez zen euskal herritarrekin edo euskal erakundeekin zerikusirik ez zuen prozesua. Estatutua idazteaz arduratzen zen batzordea oso jende gutxik osatzen zuen eta gainera, Espainiako hiriburuaren urruntasunean errotuta zegoen. Hala eta guztiz ere, Euskal Herriko udal guztiek, Aiakoak barne, aktiboki parte hartzen zuten eta bertan gertatzen ziren elkarrizketen eta adosten ziren akordioen jarraipenaren berri izaten zuten. Astebete geroago, Aiako alkateak ondorengo telegrama hau jaso zuen. Bertan, azken hauteskundeetatik Gipuzkoako diputazioan agintean zegoen Batzorde Kudeatzaileak halako une erabakigarri baterako Aiako udalaren lankidetza aktiboa eskatzen zuen, probintziako beste udalena bezalaxe, kontzertu ekonomikoa defendatzeko eta berrio ere definitzeko unea baitzen:

> ***Con esta fecha se han enviado los siguientes telegramas:***
> ***PRESIDENTE COMISION PARLAMENTARIA DEL ESTATUTO VASCO.= MADRID***
> ***Reunidos en Vitoria las Comisiones Gestoras de las tres provincias Vascongadas con la asistencia de los alcaldes de sus respectivas Capitales, acuerdan interesar de esa Comisión de su dígna Presidencia, que al redactar definitivamente el artículo relativo a la regulación de la materia de hacienda en el Proyecto de Estatuto, mantenga la intangibilidad del Concierto Económico en su esencia autonómica, hoy ley de la República, perfectamente compatible con el nuevo estado jurídico de autonomía que se establece en aquél, ampliando con nuevas facultades las contenidas en el Concierto como ratificación de las que de tiempo inmemorial vienen ejerciendo los organismos y corporaciones del País Vasco. En nombre de todos los reunidos salúdale***
> ***Presidente Gestora de Álava***
> ***Olarte.***
> ***... Esta presidencia de la Comisión Gestora de Guipúzcoa Ruega a los ayuntamientos guipuzcoanos que secunden la actitud de esta Comisión Gestora en defensa de la autonomía dirigiendo telegramas parecidos a los anteriores a los altos Poderes del Estado.***
> ***Palacio de la Provincia 19 de Junio de 1936.***
> ***EL PRESIDENTE***
> ***Liceaga (es firma)[20].***

Bestalde, beste botere batzuekiko arazoak eta desadostasunak ere ugariak ziren; giro zapuztu hartan, estatuko erakundeen arteko komunikazioa ez zen espero zena bezain arina. Diputazioak, gobernu zentralak eta alkateek bakoitzak berea egiten zuen. Izan ere, errepublika sortu zenetik bost urte igaro baziren ere, oraindik ere koordinazio falta, mesfidantza eta desinformazioa zeuden. Gabino Alustiza Aiako unibertsitateko alkateak makina bat mezu jasotzen zituen egunero eta horiek erakusten dute zeinen garrantzitsua zen erakundeen baitatik etengabe lanean aritzea gerora estatu modernoa izan litekeenaren oinarria osatzeko. Beste garai batean garrantzi txikikoak zirela-eta oharkabean igaroko liratekeen arazoak, garrantzi handia hartu zuten 1936. urteko uda hasieran. 1936ko ekainaren 13an Gipuzkoako Diputazioak Aiako alkateari bidalitako komunikatua, gutxienez ere, kezkatzeko modukoa zela esan genezake. Komunikatuak (orain badakigu) argi eta garbi gerra aurreko egoera zena deskribatzen du. Korronte politiko desberdinekin lotutako talde armatuak ez ziren, inondik inora, salbuespena, ohiko egoera baizik:

> ***En telegrama de fecha de ayer, me dice lo que sigue habiéndose observado que algunos gobernadores han dejado de dar cuenta a este Ministerio de los hechos ocurridos en los pueblos de las provincias de su mando. Se recuerda a todos las obligaciones en que se hallan de comunicación cuanto ocurra previendo oficialmente a los alcalde que á su vez están obligados a darle conocimiento de cuanto suceda en los respectivos pueblos que de no hacerlo se considerará este hecho como desobediencia grave que había de sancionarse con destitución, así mismo se reitera la necesidad que se practiquen cacheos se proceda al desarme de todos los que no disfruten de las correspondientes licencias y de que se impida rigurosamente la actuación en carreteras y poblaciones de todos los que sean agentes de la Autoridad haciendo de estas disposiciones punto....[21].***

Gipuzkoako prentsan *Aunque no quieran habrá Estatuto y Concierto* izeneko iritzi-artikulu bat argitaratu zen. Artikuluak egun haietako giroan sumatzen zen tentsioa islatzen du eta, azken hauteskundeetatik hilabete eskasera, euskal herritarrak mobilizatzen zituzten eztabaiden edukiak eta aldarrikapen politikoak jasotzen ditu. Bertan, Madrilgo Gorteetako Manuel Irujo Eusko Alderdi Jeltzaleko parlamentari ezagunak ohartarazten zuen Espainiako eskuinak bi diskurtso baliatzen zituela Euskal Herriaren txertaketa politikoari zegokionean. Autonomiak porrot egin zuen 1932an eskuin espainolistek proiektua utzi zutenean eta bere horretan geratu zen 1934an erreferendum bidez estatutua onartu zenean -hain zuzen, eskuineko indar horiek berak agintera iritsi zirenean-. Eta hala, garai hartan, autonomiaren kontua konpondu gabeko arazoa zen oraindik, ez baitzuten asmatzen Euskal Herria Errepublikako egitura juridikoan nola txertatu:

> ***...Mas en la táctica se da la paradoja de poner en contradicion sus propios defensores, Calvo Sotelo y Gil Robles fueron a decir al Urumea "Estatuto no. Concierto Económico - a eso ellos le llaman Fueros- Si.***
> ***Aun a sus seguidores indigenas o domiciliados en Euzkadi y sus periodicos lo repiten a diario.***
> ***Pero al llegar a discutirlo en la Comisión, cambian radicalmente de posición; Colocandose en el "estatuto si" " Concierto económico, no".***
> ***Así nos lo han dicho ya los monarquicos y cedistas de la comisión de Estatutos.***
> ***Las posiciones que cierran la semana parlamentaria, se reconcentran en el Concierto Económico. Izquierdas, centro y nacionalistas en su defensa; derechas pidiendo su derogación[22].***

[20] *Gipuzkoako Diputazioak 1936ko ekainaren 20an bidalitako idatzia. Sarrera zenbakia 387.*
[21] *Gipuzkoako Diputazioak 1936ko ekainaren 13an bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 373. Donostiatik Aiara bidalia (441.a). 241 hitz. Gobernadore zibilak Aiako alkatearentzat ekainaren 13an utzia, 13:30ean. Aiako Udalaren Artxibo Historikoa (AUAH).*
[22] *"Aunque no quiera habrá Estatuto y Concierto", El Día, Donostia, 1936ko ekainaren 13a.*

Bi adibide hauek ikusita, esan genezake amaitu gabeko bi gai nagusiak honako hauek zirela: alde batetik, euskal herritarren eta katalanen asmo nazionalistek lekua izango zuten estatu berria sortzearen prozesua; eta bestetik, istiluak desagerraraziko zituen ordenari eustea. Errekako ura arre jaisten zen. Izan ere, herritarren segurtasunik eza sumatzen zen giroan eta, argi eta garbi, segurtasun gabezi horrek kutsu politikoa zuen. Gainera, errepublikaren kontrako "irtenbide militarra" eskatzen zuten ahotsak ere baziren. Gobernu zentralari, antza, hori guztia iritsi zitzaion belarrietara. Eta horregatik, Gipuzkoako herrialde guztietara ondoren ikusiko duzunaren antzeko telegramak bidali zituzten:

> *El Exmo Señor Ministro de la Gobernación en Telegrama de ayer me dice lo que sigue: Circular número ochenta repitiéndose los caso de detención de automóviles en las carreteras de exigencias de cantidades á sus ocupantes con distintos pretextos sírvase V.E a las ordenes necesarias a la guardia civil y a los agentes de la Autoridad para que corte tales abusos con una constante vigilancia y procedan a la detención de quienes desatiendan sus indicaciones previniendo a los alcaldes que sin excusa alguna contribuyan a la eficacia de esta medida dándome a conocer los nombres de los que no cumplan debidamente las órdenes superiores...*[23].

1936ko otsaileko hauteskundeetan ezkerrak estatu mailan lortutako garaipenak ez zituen langile-protestaren mugimenduak isilarazi. Aitzitik, langileen aldarrikapenak eta premisa ideologikoak onartzeko joera zuen gobernuarekin, gehiago ahalegindu ziren, greba-presioaren bitartez, biztanleen geruza askok eskatutako lan- eta gizarte-baldintza hobeak lortzen. Ildo horretatik, Diputazioak 1936ko ekainaren 20an Aiako alkateari bidalitako telegrama batean gori-gorian zegoen lan-gatazka baten aurrean hartu beharreko neurriak zein ziren adierazten zen. Kasu honetan, Gipuzkoa osoan garraioen sektorea geldiarazi zuen arazoari buruz zen:

Posición de los antivascos: Estatuto si, Concierto, no

EL DIA

SAN SEBASTIAN. SABADO 13 DE JUNIO DE 1936 AÑO VII. NUMERO 1801

Aunque no quieran habrá Estatuto y Concierto

Las derechas españolas intentan una burda maniobra de las de más viejo estilo

Pero no prosperará, porque les ha sido descubierta

Madrid. — Durante el segundo bienio, el grito de guerra de los desafectos a la autonomía era "Estatuto no".

Según el órgano y el momento, sus matices sonaron así: "Fueros, sí; Estatuto, no;".

"Estatuto es la antipatria, la España rota". "Antes la España roja que la España rota". "Concierto Económico sí; Estatuto no".

Han variado las posiciones y la línea de combate. Los que antes defendían la tesis municipalista de "Estatuto no"; hoy han avanzado a la nota de "Estatuto vasco, como el catalán, sí". "Pero más que el catalán, en modo alguno".

Y es que no está el poeta para volver del revés su clásica frase: ¡Cómo cambian a los hombres, fortuna, poder y tiempo!

Bien poco ha bastado para el que acusaba en su táctica el frente antiestatutista. "¡Variáis, luego no estáis en la verdad!"

Más, en la táctica se da la paradoja de poner en contradicción sus propios defensores. Calvo Sotelo y Gil Robles fueron a decir al Urumea "Estatuto no. Concierto Económico —a eso le llaman ellos Fueros— sí".

Aún sus seguidores indígenas o domiciliados en Euzkadi y sus periódicos lo repiten a diario.

Pero, al llegar a discutirlo en la Comisión, cámbian radicalmente de posición; colocándose en la de "Estatuto, sí" "Concierto Económico, no".

Así nos lo han dicho ya los monárquicos y cedistas de la Comisión de Estatutos.

Las posiciones que cierran la semana parlamentaria, se reconcentran en el Concierto Económico. Izquierdas, centro y nacionalistas en su defensa; derechas pidiendo su derogación.

Estas, consumieron la etapa

Impresiones y comentarios por Manuel Irujo

de propaganda estatutista defendiendo el Concierto, que nadie atacaba.

La hora en que ha de afirmarse su subsistencia, toman cuerpo en la acera contraria y piden nada menos que su muerte.

¡Qué cuenta habrá de tomar nuestro país de la doblez, de la hipocresía y de la falacia que esta conducta encierra!

La Comisión de Estatutos habrá pensado en presentar a la Cámara el dictamen del Estatuto como se hizo del catalán sin la parte de Hacienda.

Así nos lo refería "Etxenausi tar Joseba" en "Euzkadi".

Más, ya inicialmente ganó en nosotros adhesión la opinión contraria y hoy, dudo mucho de que haya uno solo entre técnicos y diputados, que no piense así y que no añada más a la necesidad de defender el Concierto, sin permitir en modo alguno que sea precio del Estatuto, saliendo al paso de la maniobra de las derechas y "presentando el dictamen completo".

El Concierto, resto de nuestro régimen foral, pacto obligatorio entre el Estado y nuestro país, ley de la República, garantía de nuestra economía, fuente de saneados ingresos para Euzkadi y para España, norma fiscal que no constituye privilegio sino modalidad tributaria diversa del resto del Estado, no puede ser sacrificado ni lo será por mucha habilidad que nuestros enemigos —¡hoy ya podemos denominarlos así, se han descubierto!— pongan en su envilecimiento y por muchos adeptos que ganen en las filas de la izquierda, que va donde aunque parezca inverosímil, hay síntomas de habérseles escuchado. Tal vez las luchas civiles en que España se divide permitan abrigar a los dos primeros esperanzas de tregua, en la que se unan esfuerzos contra nosotros.

¡El que descontemos su fracaso, no quiere decir que ocultemos el escollo, ni menos aún que olvidemos la conducta

Ni puedo, ni debo decir más. Lo hay. Y jugoso. No tardará en dar su resultado, tal vez mañana pueda ser más explícito.

Manuel de IRUJO

34

34 - El Dia "Aunque no quieran habrá Estatuto y Concierto". Donostia. 1936eko Ekainaren 13a. Larunbata. Azala.

> *Gobernador Civil á Alcalde*
> *Teniendo frecuentes denuncias en este Gobierno de que coacciones huelguistas mueble impiden transportes y otras operaciones con muebles que no se relacionen ni afectan a huelguistas manifiesto a V.S. disponga cuantas medidas estén su alcance impedir tales coacciones protegiendo con auxilio de la fuerza pública o agentes Municipales haciendo responsable esa alcaldía de la lenidad o negligencia en cumplimiento de esta orden. Le Saluda*[24].

[23] *Gobernadore Zibilak 1936ko ekainaren 11n bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 367. Donostiatik Aiara bidalia (90.a). 126 hitz. Gobernadore zibilak Aiako alkatearentzat ekainaren 11n utzia, 14:00etan. (AUAH)*

[24] *Gipuzkoako Diputazioak 1936ko ekainaren 20an bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 388. Donostiatik Aiara bidalia (801.a). 72 hitz. Gobernadore zibilak Aiako alkatearentzat hilaren 20an utzia, 15:30ean.*

Urte hartako ekainean eta uztailean, langileen aldarrikapenen helmena eta intentsitatea ez zen inola ere gutxitu, areagotu baizik. Edo hori ondorioztatu dezakegu behintzat Diputazioak Gipuzkoako alkateei, Aiakoari barne, bidaltzen zizkien jakinarazpenen ugaritasunari erreparatuta. Erakundeak grebalarien mugimenduei buruz bata bestearen atzetik ezarritako araubideak eta dekretuak betetzera behartzen zituen alkateak. Uztailaren 9an, adibidez, Gabino Alustizak telegrama bat jaso zuen eta bertan honako hau eskatzen zioten:

> *Sírvase notificar al jefe estación transito que ordene a los obreros se retiren todos los letreros que se vean en las unidades subversivas o incitando a la huelga y que vigile para evitar se pongan tales letreros en los trenes[25].*

Are gehiago, uztailaren 15ean, eta gertaerek hartzen ari zuten kutsua ikusita, dekretuz agindu zuten:

> *Quedan terminantemente prohibidas manifestaciones en vía pública y por tanto no pueden celebrarse procesiones ni reuniones al aire libre significándole que debe hacerse público en su localidad que toda infracción en esa orden se castigará con todo rigor conforme determine ley orden público[26].*

Dena dela, ez zen dena gatazka. Bizia aurrera zihoan eta, aldarrikapen politiko eta sozialez gain, oro har, Gipuzkoako herritarren eta, zehatzago, Aiako herritarren aisiarekin lotutako gertaerak ere izan ziren. Kirola eta ikuskizunak aiarren bizimoduaren parte garrantzitsua ziren oraindik. Uztailaren 19an, adibidez, Txirrindulari Elkarte batek lasterketa antolatu zuen eta aurreikusita zuten txirrindulariak Aiako erdigunetik pasako zirela. Horretarako, nahitaezko baimena eskatu behar izan zuten eta abisua eman zieten herriko agintariei, lehiaketa behar bezala joan zedin neurriak har zitzaten. Ziur asko, txirrindularien igaroaldia ikuskizun interesgarria izan zen aiarrentzat igande hartan:

> *Tenemos el gusto de participarle, que el Excmo. Sr. Gobernador Civil de Guipúzcoa ha autorizado á esta comisión la organización de una carrera ciclista que se celebrará el próximo domingo día 19.*
> *El recorrido y horario probable de la priueba será el siguiente: Salida a las nueve y media de la mañan en Añorga-Usurbil (nueve y cuarenta)- Orio (nueve y cincuenta y cinco)- Aya (diez y veinte)- Asteasu (diez cincuenta- Villabona (once)- Andoain (once y diez)- Urnieta (once y veinte)- Hernani (Tellerigain) (once y treinta)y Añorga (once y treinta y cinco).*
> *Lo que nos complacemos en poner su conocimiento por si juzga conveniente establecer algún servicio de orden al paso de los corredores por esa Villa.*
> *Por la comisión organizadores*
> *El Presidente*
> *José Mª Rezola (es firma)[27].*

Esandakoaz gain, udaleko jardunak, herrikoak bezalaxe, nolabaiteko normaltasuna erakusten zuen. Beste agintari batzuekin izaten zituzten komunikazioek, gaur egungo ikuspegitik begiratuta, oraindik ere ezagun egiten zaizkigun kontuak uzten zituzten agerian; horren adierazgarri ditugu Gipuzkoako gobernadore zibilak etengabe bidaltzen zituen jakinarazpenak, udalen lana eta jarduna bere zaintzapean jartzeko saiakera gisa. 1936ko uztailean, alkateek kargua utzi eta, haien bajak beste ordezkari batzuek betetzen zituztela-eta, horren berri ematea eskatzen zieten:

> *Del Gobernador Civil al Alcalde*
> *A partir recibo presente orden se recibirá dos cuentas a este gobierno a la mayor urgencia de las ausencias de las alcaldías de los Alcaldes propietarios y de quienes se hagan cargo de las mismas interinamente así como de los nombramientos cuando estos casos ocurran á fín de controlar en todo momento el orden administrativo y el orden público y exigir las responsabilidades a que hubiere lugar en la persona que desempeñase la autoridad Municipal[28].*

Hala ere, komunikazio guztiak ez ziren kexatzeko, eskatzeko, protesta egiteko edo zelatan aritzeko. Batzuetan, alderdiak, ideologiak eta erakundeak alde batera utzita, besteekiko adeitasuna erakusten ere saiatzen ziren. Gipuzkoako Gobernu Zibileko idazkari berria Aiako alkateari nola zuzentzen zitzaion ikustea baino ez dago, babesa, lankidetza eta errespetua ere eskaintzen zizkiola aginduz:

> *Al tomar posesión del cargo de Secretario del Gobierno Civil de la provincia en saludos a esa Corporación ofreciéndome con todo entusiasmo para cuanto redunde en beneficio de la localidad dentro de atribuciones de mi cargo en la espera de la peculiar misión administrativa de Ayuntamiento inspirandome en normas de justicia tradicionales en el glorioso país vasco.*
> *Antonio Murua Casa[29].*

---

[25] *Gipuzkoako Diputazioak 1936ko uztailaren 9an bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 416. Donostiatik Aiara bidalia (126.a). 45 hitz. Gobernadore zibilak Aiako alkatearentzat hilaren 9an utzia, 14:50ean. (AUAH).*
[26] *Gipuzkoako Diputazioak 1936ko uztailaren 15ean bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 428. Donostiatik Aiara bidalia (242.a). 49 hitz. Gobernadore zibilak Aiako alkatearentzat hilaren 15ean utzia, 12:30ean. (AUAH).*
[27] *Batzorde antolatzaileak 1936ko uztailaren 14an bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 441. 1936ko uztailaren 14an Añorgan idatzia (AUAH).*
[28] *Gipuzkoako Diputazioak 1936ko uztailaren 6an bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 413. Donostiatik Aiara bidalia (194.a). 80 hitz. Gobernadore zibilak Aiako alkatearentzat hilaren 6an utzia, 16:00etan. (AUAH).*
[29] *Gipuzkoako Diputazioak 1936ko ekainaren 25ean bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 398. Donostiatik Aiara bidalia (944.a). 66 hitz. Gobernadore zibilak Aiako alkatearentzat ekainaren 24an utzia, 14:00etan. (AUAH)*

Tokiko erakundea ere hasia zen, azkenean, euskararekiko eta euskal kulturarekiko errespetua erakusten. Aiako udaleko gobernuan gehiengo nazionalista zegoen, hauteskundeetan boto gehien haiek lortu zituztelako. Udalak euskal kultura kaltetua indartzeari eta zabaltzeari babesa emateko konpromisoa hartu zuen, II. Errepublika ezarritakoan hainbat euskal erakunde politikori emandako bultzada euskaltzalearekin bat eginik:

> *Acusamos a Ud. recivido su acta. comunicaci (sic.) fecha 30 de Mayo agradeciéndoles el acuerdo de subvencionar las emisiones euskericas con la cantidad anual de 15 pesetas...*
> *Por la Comisión de Radiodifusión euskerica*
> *de Eusko-Pizkundea.*
> *Jose Y. de Lizaso (es firma)*[30].

Baina 1936ko uztailaren 18an, jarduera, itxaropen, promes eta desio hauen guztien etorkizuna hautsi egin zen dramatikoki.

35

35 - Herriko Plaza 30 Hamarkadan.
36 - EAJ-PNV eta Fronte Popularraren artean eginiko akordioa II Errepublikaren alde.
Udaletxeko partaideen izenekin. Bertan aiako Uri Buru Batzarraren argazkia ikus daiteke, Joaquin Ayestaran.

[30] *Euzko Pizkundeak Aiako udaleko alkate jaunari 1936ko ekainaren 5ean Donostiatik bidalitako eskutitza. 1936ko ekainaren 20an erregistratua. Sarrera zenbakia 382 (AUAH).*

Señor Alcalde de la Universidad de Aya

31 Julio 1936
Núm.entrada: 457.

Por acuerdo del Partido Nacionalista Vasco y del Frente Popular de ésta localidad proceda á nombrar un Comité Municipal integrado en la siguiente forma:

D. Gabino Aburtize Echeverría – Presidente
D. Lorenzo Múgica Aldalur
D. Ignacio Echeverría Huegun
D. José María Arrizabalaga Unsain
D. Angel Lerchundi Arrillaga
D. Miguel Uría Elósegui

Todos ellos pertenecientes al Partido Nacionalista Vasco.

Haciéndose este Comité cargo del mantenimiento del Orden público y de cuantas medidas sean ordenadas por el Gobierno Civil para la defensa de la República y de sus legítimas autoridades.

El Presidente de Uri-Buru-Batza

Joaquín. Apestarán

A Y A.KO
JEL
URI-BURU-BATZAÑA

Aya 30 de Julio de 1936

III. "Alzamiento" edo altxamendutik erorialdira arte: 3

Gerra Zibilaren esperientzia laburra Aian

3.1. Matxinada frankistaren lehen berriak

Aia gure unibertsitate kutunean jasotako testigantzen artean, atentzio handia eman zigun lekukotza batekin hasiko gara. Istorio horren bitartez, herritarrek nola arnasten eta sentitzen zuten ezagut dezakegu, eta horrez gain, oro har giro baketsuan igarotzen ziren egunak aztoratzen zituzten gertaera-segiden aurrean sentitzen zuten ikara ere ageri du.

> *Gerra hasi baino lehen izar dantza egon zen, eta baten batek esan zuen gerra datorren seinale da hori. Ekainako azken egunean izan zan, gabeko hamarrak aldian edo, Zumaia aldeko itsas gainen, Gauza gorri bat azaldu zen eta pixkana pixkana ekialdera joan zen. Herrikoen ustetan "horrek odol isurtzea ekarriko digu" esaten jardun ziren*[30].

Errealitatearen eta garaiko herri-sinesmenen artean dagoen istorio honek agerian uzten du zenbateraino zeuden kezkatuta herriaren borondatez jaiotako garai berri horiek bat-batean etengo ote ziren.

1936ko uztailaren 18an zurrumurru nahasi batzuekin jaiki zen herria: Marokoko protektoratuan tropa-mugimendu ezohiko bat izan zela eta tropak Melillako plazan, Afrika iparraldean, matxinatu zirelako berria. Geroago baieztatu zen. Egunak aurrera egin ahala, iragarpenik txarrenak baieztatu egin ziren: Ongi antolatuta eta koordinatuta dagoen armadako sektore bat estatu-kolpe militarra ematen saiatu da. 1932ko Sanjurjo jeneralaren kolpe-estatuan bezalaxe, saiakera hartan hainbat jeneral zegoen konjuratua. Iragarpenik txarrenak betetzen ari ziren. Izan ere, zenbait instantzia behin eta berriz ohartarazten ari ziren azken hilabeteetan gobernu legitimoa boteretik kentzeko eta Errepublika deuseztatzeko konspirazioak zeudela. Uztailaren 13ko José Calvo Sotelo politikari eskuindarraren hilketak gertaerak azkartu zituen. Matxinatuek aparteko aitzakiatzat hartu zuten, hala, haien ekintza bidezkotuta zegoen gobernu gabeko "anarkia-egoera" batean geundela arrazoituz.

Matxinatuen plana, hasiera batean, ez zen gerra luzea, baizik eta kolpe azkarra eta zuhurra, hirigunerik eta aginte handiko erdiguneak okupatuz. "Alzamiento nacional" hitz ponposo horren atzean, besterik gabe, borondate demokratikoaren kontrako kolpe militarra zegoen. Militar kolpisten helburu nagusia hiriburu nagusiak, hirigune garrantzitsuenak eta, batez ere, Madril ziren. Horretarako, erresistentzia ezerezteko moduko mugimendu taktikoak eta zehatzak egiteko asmoa zuten. Geroko egitasmo politikoak ez zuen estatu-mota zein izango zen zehazten eta zehaztasun eza mugimendu kolpistan parte hartzen zuten indarren multzoari zor zitzaion: eskuindar errepublikanoak, monarkiazale alfontsotarrak eta karlistak, edo Falangeko faxistak. Edonola ere, gauza bat argi zegoen: gobernu berria militarren esku egongo zen eta esperientzia demokratikoari amaiera emango zioten. Baina militarrek huts egin zuten haien aurreikuspen estrategikoetan, eskualde marjinalak baino ez baitzituzten okupatu eta ez zuten lortu, ordea, hiri garrantzitsuak hartzea, ahal nola: Madril, Bartzelona, Valentzia edo Bilbo. Kolpeak huts egi zuen, baina Gerra Zibila hasi zen.

37

EL SUCESO DEL DIA

Ha sido asesinado el señor Calvo Sotelo

EL CADAVER DEL JEFE DE «RENOVACION ESPAÑOLA» APARECIÓ ABANDONADO EN EL CEMENTERIO DE LA ALMUDENA

Han sido detenidos varios guardias de Asalto por suponérseles complicados en el hecho

EL ASESINATO DEL SEÑOR CALVO SOTELO

Los primeros informes

UN RUMOR SENSACIONAL

Desde las primeras horas de la mañana de hoy comenzó a circular en Madrid, de modo insistente, el sensacional rumor de que el ilustre ex ministro don José Calvo Sotelo había sido secuestrado. En las redacciones también fueron continuas las llamadas.

Para averiguar la verdad del rumor, comenzamos a practicar averiguaciones.

El secuestro

Don José Calvo Sotelo vive en la calle de Velázquez, 89.

Eran las tres y media de la madrugada cuando frente a dicha finca llegaba una camioneta de Asalto. La ocupaban varios individuos, uniformados, pertenecientes a éste Cuerpo, y también algunos números de la Guardia civil. Todos iban, al parecer, al mando de un teniente.

La pareja de Asalto que, según costumbre, prestaba servicio en los alrededores de la casa de don José Calvo Sotelo, no vió con extrañeza la llegada de la camioneta. Los que la ocupaban iban de uniforme — ninguno de paisano, como aseguraban los primeros rumores—, y dicha pareja creyó, como es natural, que su presencia allí obedecía a alguna misión que, por orden superior, iban a realizar.

Los guardias — de Asalto y civiles —, con el teniente, ordenaron al sereno que les abriera la puerta. Rápidamente subieron al piso del señor Calvo Sotelo. Llamaron a la puerta repetidamente, y tardaron en obtener contestación. Por fin una criada se levantó, y por la mirilla preguntó a los visitantes qué deseaban.

—Tenemos necesidad de ver inmediatamente al señor Calvo Sotelo.

—Don José está descansando — respondió.

—Haga el favor de decirle que queremos hablar con él en este momento.

La criada comunicó lo que ocurría al señor Calvo Sotelo, y por orden de éste les fué franqueada la entrada a los guardias.

En el sector de Hernani no hubo ninguna acción guerrera, propiamente dicha, ni la fusilería intervino si no fué en pequeños y aislados "paqueos".

Las baterías de Oriamendi y Santa Bárbara bombardearon las posiciones enemigas, según parece con bastante eficacia.

Los disparos se dirigieron de manera especial a la zona de Urnieta, y se obtuvieron, según los informes de los vigías, excelentes impactos.

Sobre esta zona volaron a primera hora de la mañana dos aviones enemigos que arrojaron algunos proyectiles de cañón. Ninguno de esos proyectiles llegó a hacer explosión.

En el sector de Lasarte, propiamente dicho, no hubo ninguna actividad. Se vieron volar dos aviones facciosos hacia la zona de Hernani, sin que se hubieran oído las explosiones características del bombardeo.

FRENTE OCCIDENTAL

En casi toda la zona occidental, la normalidad fué absoluta. Ni en Mandubio, ni en Andazarrate, ni en los demás frentes hubo actividad alguna, como no fuera ligerísimos paqueos e incursiones de reconocimiento para ver si se localizaba al enemigo.

En cambio hubo operaciones de fondo en el Andatza, que deliberadamente se ofrecía como punto vulnerable a los rebeldes.

Estos atacaron con verdadera intensidad y coraje. Un ataque a fondo, poniéndose a contribución un contingente muy nutrido de fuerzas.

Se lanzaron sobre las posiciones, en una ofensiva plena de moral y de empuje. Nuestros milicianos podían comprobar que el enemigo parecía hallarse bajo los efectos del alcohol.

A un ataque tan enérgico se opuso una resistencia más enérgica todavía. La fusilería supo esperar hasta el momento propicio y a la orden de entrar en acción disparó sobre seguro. Las balas leales diezmaron las filas de los atacantes que ante la cortina de fuego y plomo hubieron de retroceder.

Otra vez insistieron los rebeldes cambiando de flanco, y otra vez fueron rechazados con pujante energía.

Fracasados sus intentos los rebeldes decidieron por fin la retirada, que más que retirada fué una auténtica fuga.

En esta huída los rebeldes abandonaron sobre el terreno veintiocho cadáveres vistos.

Los milicianos salieron de sus posiciones, en persecución de los facciosos, y para recoger el botín de guerra. Se apoderaron de unos cincuenta fusiles que el enemigo abandonó en su huída.

En el curso de la lucha se alteraron ligeramente las líneas por exigencias de la lucha, pero después de la pelea se restableció por completo la línea de combate.

[51] *FRENTE POPULAR (Donostia, igandea 1936/09/06) AÑO I DIARIO DE LA REPUBLICA, 42 Frentes de combate en la zona de Andatza, los requetes sufrieron un duro castigo de las fuerzas leales 1. or..*

Abuztu bero hartako egunak joan ahala, egoera geroz eta etsigarriago bihurtzen ari zen errepublikaren legezkotasunaren defendatzaileentzat. Tropa matxinatuak aurrera egiten ari ziren pixkanaka-pixkanaka fronte gehienetan, eta horrez gain, ez zen batere erraza mobilizatutako pertsona guztiak antolatzea, batzuk soldadutzarako eta beste batzuk zibilen mantenurako oinarrizko zerbitzuak eskaintzeko. 1936ko abuztuaren 20an, gerraren ondoriozko premiaz eratutako beste erakunde batek, Finantza Batzordeak, eskutitza bidali zuen udaletxera eta bertan udalari gogorarazten zion, mobilizatutako pertsonen nominarekin arazoak zeudela-eta, *"que no pueden ser debidamente controladas por no haber sido cumplido aún el reciente acuerdo de la Junta de defensa de Guipúzcoa que disponía que cada Comisariado envíe al de Finanzas con la mayor urgencia, una nómina de todo el personal a su cargo (Milicias, burocracia, obreros de fábrica y talleres incautados, etc, etc.)"*. Horren aurrean, ezohiko neurri irmoa hartu zuten:

> *Ha adoptado el acuerdo de no pagar ninguna nómina parcial, sin haber previamente recibido del Comisariado correspondiente la relación completa de su personal con el jornal o sueldo asignado o interesar el envío urgente de esa relación, no solo para poder pagar los jornales, sueldos o retribución de milicias ya asignados y devengados sino para poder hacer un avance presupuestario y realizar un estudio de la situación económica, problema del paro, etc. etc...*[52].

JUNTA DE DEFENSA DEL FRENTE POPULAR DE GUIPUZCOA

Comisariado de Finanzas

Gipuzkoa'ko Langile-batza
Ogasun batzordea
Teléfonos 4026
Ufutizkiñak 4031

21 Agosto 1936
Núm.entrada:480.

Por afectar a todos los Comisariados locales y para su debida información transcribimos a continuación la circular remitida a todos los Comisariados provinciales:

"Este Comisariado,en sesión celebrada el día de ayer, a la vista de varias nóminas de jornales de talleres que trabajan para el Frente Popular,que no pueden ser debidamente controladas por no haber sido cumplido aún el reciente acuerdo de la Junta de Defensa de Guipúzcoa que disponía que cada Comisariado envío al de Finanzas con la mayor urgencia,una nómina de todo el personal a su cargo (milicias,burocracia,obreros de fábricas y talleres incautados, etc.etc.,)ha adoptado el acuerdo de no pagar ninguna nómina parcial sin haber previamente recibido del Comisariado correspondiente la relación completa de su personal con el jornal o sueldo asignado a cada uno o interesar el envío urgente de esa relación,no sólo para poder pagar los jornales,sueldos o retribución de milicias ya asignados y devengados sinó para poder hacer un avance presupuestario y realizar un estudio de la situación económica,problema del paro,etc.etc.,."

Asimismo transcribimos el siguiente acuerdo:

"Por acuerdo de este Comisariado,refrendado por el Pleno de la Junta de Defensa,cada Comisariado viene obligado a ingresar todas las cantidades que por cualquier concepto perciba,en la Tesorería de este Comisariado,donde serán abonadas en la cuenta del Comisariado respectivo.

"Los pagos deberán,necesariamente,ser efectuados por intermedio de nuestra Tesorería,a la que cada Comisariado librará la orden de pago o libramiento correspondiente.La Contaduría autorizará o no el pago,total o parcial,en cada caso,de acuerdo con las disponibilidades de fondos existentes.

"En lo que se refiere al movimiento de fondos habido hasta la fecha y no controlado por este Comisariado,los demás Comisariados deberán remitir a éste un detalle de todos los ingresos y pagos efectuados,que habrán de ser debidamente contabilizados en nuestros libros,ingresando el saldo resultante en la Tesorería."

Así pues,cada Comisariado local de Finanzas deberá atenerse en su actuación a estas normas,adaptándolas a las circunstancias especiales de la localidad y quedará obligado a remitir semanalmente un Balance de su situación,con detalle de los ingresos y pagos que hayan efectuado agrupados por partidas de Comisariados,suscripciones,etc...

San Sebastián,20 de Agosto de 1936

FRENTE POPULAR - Comisariado de FINANZAS - GUIPUZCOA
LANGILE BATZA - Ogasun BATZORDEA - GIPUZKOA

A TODOS LOS COMISARIADOS LOCALES DE FINANZAS DE GUIPUZCOA.-

48

48 - Gipuzkoako Langile-batza Ogasun batzordea 1936ko Abuztuaren 20ean Aiako udalari bidalitako idatzia.

[52] *GIPUZKOAKO FRONTE POPULARREKO DEFENTSA BATZARRAK izenpetutako hitzarmena. Donostian, 1936ko abuztuaren 20an. Aiara 1936ko abuztuaren 21ean bidalia. Sarrera zenbakia 480. (AUAH). Hartutako neurriak bazuen beste akordio osagarri bat, diru-sarrerak zentralizatzearena: "que por cualquier concepto perciba, en la Tesorería de este Comisariado, donde serán abonadas en la cuenta del comisariado respectivo". Eta ondorioztatzen zuten: "así pues, cada Comisariado local de Finanzas deberá atenerse en su actuación a estas normas, adaptandolas a las circunstancias especiales de la localidad y que dará obligado a remitir semanalmente un balance de su situación a estas normas, con detalles de los ingresos y pagos que hayan efectuado agrupados por partidas de Comisariados, suscripciones etc..."*

Egun hartan bertan Gipuzkoako hornidura-batzordeko agindu berri batek uztaren kontrol handiagoa eskatzen zuen, "necesario y urgentísimo, dadas las circunstancias especiales por las que atraviesa Guipúzcoa". Ez zen nahikoa ahalik eta denbora laburrenean probintzia osoko gariaren uzta osoa ehotzeko jasotzea lortzea, ezta espekulazioa egon ez dadin arduratzen zen gariaren merkatuaren batzorde arautzaileari eskuduntza handiagoa ematea ere. Gehiegikeriak egiten ziren oraindik eta beraz, aitzakiarik gabe bete beharreko araudia ezartzea beharrezkoa zen:

1 Los alcaldes de los Ayuntamientos por medio de bandos o de la forma que considere más eficaz, deberán comunicar al Agricultor que inmediatamente llevarán sus trigos a la Alcaldía correspondiente.
2 Los alcaldes en dicho bando harán constar que el trigo les será pagado a los agricultores al contado al precio de 45 Pesetas los cien kilos libres de todo gasto.
3 El pago será efectuado por el Ayuntamiento directamente a los agricultores.
4 Todo Ayuntamiento tan pronto como tenga en su poder cantidad de trigo suficiente para transportar a la fábrica, deberá ponerlo en conocimiento telefónicamente a la Sección Agronómica de Guipúzcoa, cuyo teléfono es el de 14,319 o el 13, 581.
5 Los fabricantes de harinas deberán poner a disposición de las Alcaldías lo soliciten los sacos necesarios para el transporte del trigo.
6 Con objeto de evitar una posible acumulación de stock en alguna fábrica de harinas, éstas, tan pronto como hayan recibido trigo suficiente para molturar cuatro o cinco días en jornada intensiva , deberán ponerlo en conocimiento inmediatamente de las Alcaldías proveedoras, quienes a su vez lo comunicarán a la sección Agronómica, con objeto de éste organismo designe a qué fábrica se ha de transportar el trigo sobrante si lo hubiere.
7 Únicamente podrán molturar las fábricas de harinas federadas. Aquellos molinos particulares que precisen molturar deberán solicitar de la Sección Agronómica de Guipúzcoa, sita en San Sebastián, AV, de la Libertad, 28, quien concederá o no la autorización, según lo considere necesario. Aquellos molinos que molturan sin la autorización expresa del citado Organismo, serán castigados con las máximas sanciones.
8 Queda autorizada la Comisión de Abastos local de cada ayuntamiento para decomisar el trigo a aquellos caseros que se negasen a entregarlo o lo ocultaran[53].

49

R/D.

N.º 258

Frente Popular de Guipúzcoa

ZARAUZ Teléfono, 58

Vale por Diez litros de gasolina para el coche Buick M. 33.870 Conductor José Maria Arrizabalaga Servicio Frente Popular de Ayu

FRENTE POPULAR-COMISARIADO DE TRANSPORTES-ZARAUTZ
LANGILE-BATZA = ERABILI BATZORDEA = ZARAUTZ

Zarauz 11 de Sepbre de 1936

EL COMITE MUNICIPAL.

CONCEPTOS	Precio	Pesetas	Cts.

Firma de la persona a quien se entrega la mercancía,

José Mª Arrizabalaga

IMPORTANTE: Todas aquellas facturas que no vengan debidamente requisitadas con arreglo a las instrucciones que se establecen al reverso, dejarán de ser tomadas en consideración.

49 - Gipuzkoako Frente Popularrari eginiko lanaren ondorioz, 10 Litroko ordain saria. Zarautz 1936ko Irailaren 11a.

[53] *Hornidura komisarioak bidalitako bandoa. Donostian, 1936ko abuztuaren 20an. Aiara 1936ko abuztuaren 22an bidalia. Sarrera zenbakia 481. (AUAH).*
[54] *Giopuzkoako Hornidura komisarioak Udaleko Hornidura sailera 1936ko abuztuaren 22an bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 483. Donostiatik Aiara bidalia (---.a). 226 hitz. Hilaren 21ean utzia, --:--an. (AUAH)*

Ikus daitekeenez, 7. eta 8. artikuluak benetan gogorrak ziren, zigor gogorrak aurreikusten baitzituzten elikagaiak udalaren edo zegokion batzordearen kontrolpetik ezkutatzen zituztenentzat. Arau honen osagarri ziren alkateari emandako beste arau batzuk. Alkateak *"sin excusa ni pretexto alguno deberá comunicar por teléfono a este Comité regulador de trigos diariamente en su madrugada las existencias de trigos requisados en ese Ayuntamiento así como la cantidad de sacos vacíos necesarios para el requiso de trigo en el siguiente día"*[54].

Era berean, administrazio publikoen birrantolatzearekin batera, matxinatutako militarren bandoarekin kidetasun ideologikoa zutela-eta, Errepublikaren defentsarako arriskutsuak izan zitezkeenak (haien ekintzengatik edo ekintza-ezagatik) kontrolatzen eta baztertzen hasi ziren. Kasu horretan, agindua ez zuen ez probintziako batzordeak, ez gobernadoreak ez eta diputazioak eman, Justizia Ministerioak baizik. Agintari guztiei bidalitako eta Aiako alkateari ere helarazitako telegrama batean zehatz-mehatz adierazten zuen:

> ***...ponerse acuerdo urgentemente con comité provincial Frente Popular fin remitir telegráficamente relación de personas de confianza que deberán ocupar cargos de justicia municipal previamente solicitados. Lo traslado a U. para su conocimiento proponiendo que se ordenan[55].***

Orduan ere, lehenago egin zuen bezala, udalak berehala erantzun zuen proposamenarekin: *"para cargos de Justicia Municipal José María Rezabal Juez, José Joaquin Azpiroz Albisu suplente, José Antonio Azpiroz Albisu Fiscal, José Ignacio Ventura Ibarguren Yruretagoyena Suplente. Quedan confirmados nombramientos"*[56].

50 - Asentsio Feria 30 hamarkadan, Aiako Plaza nagusian.

50

[55] *Gipuzkoako gobernadore zibilak 1936ko abuztuaren 28an Aiako Fronte Popularrari bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 486. Donostiatik Aiara bidalia (641.a). 64 hitz. Hilaren 28an utzia, 17:00etan. (AUAH).*

[56] *Gipuzkoako gobernadore zibilak 1936ko irailaren 9an Aiako Fronte Popularrari bidalitako telegrama. Sarrera zenbakia 498. Donostiatik Aiara bidalia (296.a). 37 hitz. Hilaren 9an utzia, 13:30ean. (AUAH).*

3.3. Gipuzkoako frontearen atzerakada eta Aiaren erorialdia

1936ko Udazkena Gipuzkoa: hernaniko fusilatzeak[57] liburuan argi azaltzen digutenez, hiru zutabe sartu ziren Gipuzkoan konkista ziurtatzeko. Horien buru ziren Los Arcos komandantea (Azpeitia eta Tolosa arteko eremuaren arduraduna), Iruretagoyena komandantea (kosta konkistatzeaz arduratuko zena) eta, azkenik, Alonso de la Vega (Arlaban mendatetik barrena sartu zena).

Aiari dagokionez, Iruretagoyenak zuzendutako zutabean jarri behar dugu arreta. Aizpuru, Odriozola eta Gomezen liburutik hartutako hitzetan:

> *Iruretagoyenak, bere aldetik, hilaren[58] 15ean hasi zuen erasoa, kostaldeko errepidetik eta Villabona Oriorekin Andatzarratetik lotzen duen errepidetik paraleloki aurrera eraso eginez, eta topatzen zituzten herriak okupatuz. Erniotik itsasora luzatzen zen lerroa gainditzeko borroken ostean, aurrera egin zuten bidean erresistentzia handirik gabe. Aia hilaren 20n okupatu zuten eta Zarautz 21ean...*[59]

Matxinatutako tropak Aiara sartu zirenerako, gudariak joanak ziren herritik; bertan, miliziano gutxi batzuk geratzen ziren eta zibil gehienak. Biztanleak adi-adi zeuden, Nafarroa aldetik zetozen tropak zirela besterik ez baitzekiten, eta denek zuten zer asmorekin etorri ziren ezagutzeko irrika.

> *Ordurako Aian Gorrik bazeuden, kanposanto aldean banaturik. Bi baserritan Orortegi eta Saroben baserrian indartu ziren. Baita kanposantuko paretean ere, hori bere fuertea omen zen. Askok mozkortuta ibiltzen ziren herrian zehar. Irailaren 20, tropa frankistak herrian sartu ziren. Ordurako nere senide bi, bata nere anai zaharrena (18 urtekoa) abertzaleekin aurrera joana zen*[60].

Ordura arte gerra askorentzat urruneko gertakizun bat zen, baina egun hartan etxera etorri zitzaien bila. Denbora-tarte labur batez, Aia gudu-zelaia izan zen. Indar leialek eta milizianoek, Bizkaia alderako erretretan, matxinatuen, armadaren eta erreketeen kontra borrokatu zuten. Familia-oroitzapenak une hartako lekuko batek tropa frankistek Aia hartu zuten unea nola bizi izan zuen dakar gogora:

> *Gure aitonak esaten zuen, soldaduk ikusi zituela, mendiz mendi eta elkarri segika. Baita tiroka ere eta horregatik zeozerren susmoa hartu zuela. Baina momentuan bertan ez zekien zer zen gertatzen ari zena, gero jabetu zen. Berak komentatzen zuenaren arabera, bera Francoren alde egin behar izan zuen. Beren etxera azaldu zien eta behartuta eraman zutela eta klaro, garai hartan ez zeneukan aukerik. Berak hemezortzi urte zituen etxera etorri zirenean eta gerrara joatea behartu zuten*[61].

Une haietan oraindik ere ume baino ez zirenen testigantzek berez helduen munduaren baitakoak diren gerraren izugarrikeriak eta haurren berezko ikuspegi nahasia jartzen digute aurrez aurre. Isabel Alustiza lekukoak, esaterako, frankistek apurka-apurka Aiako auzoak nola bereganatu zituzten kontatzen digu.

> *1936 ko udara iritsi zen, gu eskolatik joan ginanen eta eskolako lagun batek Orioko zubia bota zutela eta gerra hasi egin zela. Nik ez dakit nun hasi zan gerra, baina baratzan pikuk jaten ari nintzela Aiara sartzen ikusi nitun. Ordun Aian sartu ziren Argingo maldan behera errepublikanok korrika ikusi nituen. Baita Azkueko horretan, bat hil egin zutela eta bertako aitona nola legan hartu eta kanposantura eraman zuen.*
> *Gero hurrengo egunen joan ziren Laurkineko palaziora. Eta han egon ziren jaten soldaduk, ofizialak edo holakoak ziren. Gure amak eman behar izan zien Palazioan bazkaria. Beraiek jaten zuten bitartean guk baratzan egon behar izan ginen. Gero tropak gure etxe gaineko bide batetik pasatzen hasi zirenean, horiek ikustera joan ginen. Hantxe soldadu gizajuk Saaberritik bera Zarautzera joan ziren. Hartan pasa zan gerra, baina gu triste ikusten genuen ama beti. Frankoren aldekoek Aita hil eta bi anai Francoren alde gerra egitea tokatu zitzaien. Anai Zaharrenak izan ziren, kintoek hartuta*[62].

51 - Bartolome Larrarte Eguzkiza.

[57] *Aizpuru, Apaolaza, Gomez eta Odriozola, 1936ko udazkena Gizpukoan: Hernaniko Fusilatzeak, 2007.*
[58] *Hila irailari zegokion.*
[59] *Aizpuru, Apaolaza, Gomez eta Odriozola, 1936ko udazkena Gizpukoan: Hernaniko Fusilatzeak, 2007, 58. orrialdea.*
[60] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*
[61] *Gorka Larrarte Aizpururi eginiko elkarrizketa.*
[62] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*

52

Folio 136

Sesión ordinaria del día 6 de Septiembre de 1936.

Alcalde-Presidente
Dn. Gabino Alustiza
Vocales Gestores
Dn. Miguel Uria
" José Mª Arrizabalaga
" José Ignacio Echeverría
" José Lorenzo Mugica
" Angel Arrillaga.

En la Universidad de Aya, a seis de septiembre de mil novecientos treinta y seis, siendo la hora de las nueve se reunieron en las Salas Capitulares, local designado al efecto, los señores del Comité Municipal, anotados al margen, bajo la Presidencia de Don Gabino Alustiza y Echeverría, Alcalde Presidente, con asistencia de mí el Secretario; y estando así reunidos, el Sr. Presidente declaró abierta la sesión ordinaria de este día.

Leída la acta de la anterior quedó aprobada.

Arbitrios municipales del mes de junio último.

Seguidamente se dió cuenta de la recaudación obtenida con arbitrios municipales durante el mes de junio último pasado, resultando ser en la forma siguiente:

	Pesetas-Cts.
Por el importe del vino	966,80
Por el del alcohol puro en aguardientes	135,78
Por el de aceite de olivas	52,96
Por el de la carne	51,18
Sumas estos impuestos	1.206,72
Por el de pesaje	29,60
Que hacen en junto pesetas	1.236,32

Y enterado el Comité Municipal de los ingresos habidos en el mes de junio último, acuerda prestar su aprobación.

Instancia de Ansorena, interesando importe de un tambor vendido para la banda de Txistularis de esta localidad.

Sin dilación se dió lectura á una instancia que eleva el vecino de San Sebastián don Isidoro Ansorena, interesando se le notifique la forma de liquidar la cantidad de 60 pesetas importe de un Tambor Completo, tensado á cuerda y lazos de cuero, que adquirió el Sr. San Sebastián, atabalero de la banda de Txistularis de esta Ilustre Corporación, con destino á los servicios de la citada banda. Y oído por el Comité Municipal el contenido de la relacionada instancia, por unanimidad, acuerda hacer constar queda enterado y se aplace el pago reclamado, hasta que se solucionen las actuales circunstancias.

Acuerda aprobar el abono de la autopsia verificada á Dn. Leandro Urretavizcaya y Ormazabal.

A continuación, con la venia de la Presidencia, hace saber el Secretario al Comité Municipal, que hace dos días se le fué interesado con urgencia, por el Médico Titular de esta,

52 - 1936ko Irailaren 6an, Aiako udaletxean egin zen azkeneko udalbatza Gabino Alustiza zuzenduta.



53

para su entrega al Dr. Sr. Zuriarrain, la cantidad de cincuenta pesetas, por derechos devengados por una autopsia practicada al cadaver de Don Leandro Urretavizcaya el dia tres del actual, cuya cantidad se le fué entregada á dicho Sr. Médico titular; y lo ponia en conocimiento del Comité Municipal, para que acordara lo que creia oportuno. Y oido por el Comité Municipal, despues de discutido, acuerda que se extienda el correspondiente libramiento de lo suplido.

Por último, el Sr. Presidente dió cuenta del fallecimiento de Don Leandro Urretavizcaya Ormazabal, Rector que, por espacio de cuatro años, desempeñó con tan singular acierto tal cargo en la Iglesia de San Esteban de esta Universidad, acordando el Comité Municipal conste el profundo dolor que al Comité Municipal y vecindario todo embarga por pérdida tan irreparable, y que se haya saber en tal sentido á la familia del finado.

Y no habiendo más asuntos de que tratar se levanta la sesión ordinaria de este dia, de que yo, el Secretario, certifico. = sobre raspado = la forma de liquidarla = vale.

Gabino Alustiza

Miguel Uria

José Ygnacio Echeverria

José Lorenzo Mugica

Angel Lerchundi

...a hacer constar ...ue del Comité Mu... por el fallecimiento ...eandro Urretavizcaya Ormazabal, Rector ...ido de esta durante ...tro años.

53 - Bertan Leandro Urretavizcaya Ormazabal, lau urtez San Esteban elizaren erretorea.1936ko Irailaren 6an. Bizitza galtzeagatik izandako atsekabea erakusten dute.



Folio 137

En la Universidad de Oyarzun a veintinueve de Septiembre de mil novecientos treinta y seis, siendo la hora de las nueve y por orden de la Junta de Guerra de Guipuzcoa se nombra Alcalde Presidente a D. Manuel Irureta-goyena, persona autorizada por dicha Junta de Guerra de Guipuzcoa para la constitución del Ayuntamiento de esta Universidad en la forma siguiente:

Alcalde Presidente: D. Manuel Irureta-goyena
Primer Teniente Alcalde D. José Agustín Orbegozo
Segundo " " D. Paulino Tolosa
Concejales: D. Ramón Lerchundi
" D. Juan Roteta
" D. Secundino Eizmendi
" D. José Joaquín Irureta-goyena
" D. José Luis Lizarralde
" D. Donato Rezabal
" D. Benito Manterola.

Por lo que se declaran todos conformes de sus respectivos cargos

Manuel Irureta-goyena
José Agustín Orbegozo
Paulino Tolosa Ramón Lerchundi
Juan Roteta Secundino Eizmendi
José Irureta-goyena
José Luis Lizarralde Donato Rezabal
Benito Manterola

54 - 1936ko Irailaren 25an. "Junta de Guerra Carlista de Guipuzcoa" ezarritako Alkate eta Junta berriaren izendatzea.

Matxinatuek *manu militari* ezarri zituzten agintari berriak eta haiek, segidan, errepresioa eta garbiketa ideologikoa jarri zuten martxan. Kasu honetan ikusi dugunez, oroitzapen horrexek iraun du bizi-bizirik makina bat aiarren gogoetan. Aurrerago ikusiko dugunez, gerra baino, errepresioa izan zen gertakizun esanguratsuagoa, errepresioak eraman baitzituen bizi gehiago, heriotza gehiago eragin eta familia gehiago suntsitu.

Haurtzaroko oroitzapenen osagarri, gerrarekin eta porrotarekin lotutako beste deskribapen batzuk daude; adibidez, armen hotsa, bi bandoen arteko su gurutzatua, eta horren ondorioz borroka-eremutik gertu egoteak biztanleentzat zuen arriskua. Azkenean, errekete karlistak ohiko txapela gorriekin sartzearekin batera, gerra, zentzurik hertsienean, Aian behintzat, amaitutzat eman zen. Oraingoz:

> *Handik denbora askora ez, maisu horrek ez zegoen gustora hor eta ni Aian monjetara juten hasi nintzen. Horregatik ditut nik Aian hainbeste lagun. Militar horiek esaten ziguten eskolara ez juteko. Gu ederki somatzen genuen, beste aldetikan nola botatzen zituzten balak eta bolak egiten zituzten hotsak. Menditikan kanposantura botatzen zituzten eta kanposantutik mendira bueltan. Gero txapel gorriak borlarekin jarri zizkiguten batzuk eta beraienak ginenez eskolara joan gintezkela esan ziguten*[63].

Bizitza eta heriotzaren arteko muga zein mehea den konturatzeko lezioa ere izan zen gerra, zoriaren gordintasunak, zentimetro gutxi batzuk gorabehera, bizia eraman zezakeen-eta:

> *Egun baten, behiei belarrak jartzea jun behar zala, han meteta, jun ginen beste baserrira. Han, Gaztain arbol handiak ziren, bertan euri pixkat egiten hasi zan. Ni zera egin nun; arbol horietako baten azpian jarri egin nintzan. Euria pixkat pasatzen zen bitartean. Etorri zan bala bat, oraindikan gogoan dakat, hango txistuakin, eta ondoan neukan arbolaren haurka jun zan. Laister alde egin genun guk handikan, hura zan tiroteoa egon zana, hura zan eskandaloa egon zana. Ordun, ilundu eta jangoiko goardari babesa eskatu genion. Ondorioz ez zen inor atera denbora baten*[64].

55



unidad

Año I Número 5 — San Sebastián, lunes 21 de septiembre de 1936

Diario de combate Nacional-sindicalista

Telfs: Administración 1-47-93 Redacción 1-04-33

Núm. suelto: 15 céntimos

Impresiones del instante
Por las rutas del triunfo

Orio y Zarauz para España

Los hombres de Falange fueron los primeros en clavar la bandera Nacional en los puntos más altos de estos dos pueblos

¡ADELANTE!

A las cuatro de la tarde nos han ordenado: ¡Hay que ir a Zarauz! Y allí vamos, obedeciendo el mandato.

Bordeamos el río Oria, pasando por Chaparrunea y Usúrbil donde la gente, boquiabierta aún, levanta el brazo en señal de alegre sumisión. Arboles caídos, recuerdan los obstáculos puestos, inútilmente, a los avances de las fuerzas leales. Dejamos atrás Aguinaga. Aquí también hay vestigios del salvajismo rojo: el puente voló también. ¡Como ellos!

Entramos en Orio. Impresión de alegría desbordante y caras de estupor tocavia, porque el vecindario sano que queda no sale de su estupor. Vive en España y quiere inundarse de ella.

Un hombre de Falange, Ignacio Echevarría, nombrado comandante de la plaza, es el primero en recibirnos.

Desde ayer a las doce esto es nuestro. Completamente nuestro, de España y de la Falange. Mira allí arriba en la torre de la iglesia la bandera nacional. La pusimos nosotros, los de las camisas azules.

En efecto. La enseña Patria ondea al viento de la victoria.

—¿Mucha lucha?

—Hayeron como cobardes. Y eso que habían recibido refuerzos de Bilbao, gentes que venían descansadas gritando el consabido "No pasaran". Y ya ves, pasamos y aquí nos tienes.

En el curso de la rápida conversación que sostenemos con este bravo de Falange, curtido por el ardor de muchas peleas, nos enteramos que fueron solamente tres: Pío Beriain, Ramón Enzaguirre y él los primeros en apoderarse del pueblo. Bien pronto les secundó el vecindario. Formaron las guardias ciudadanas, vigilaron la ría y a esperar órdenes, que no tardaron en llegar. Después...

ZARAUZ, A LAS CINCO DE LA TARDE

Orio está dividido en dos partes por la ría de su nombre. Hasta hace poco se un lado a otro podía cruzarse por el puente. Ahora esto es imposible. Los traidores de España, en su boca desbandada, en su criminalidad, llevaron de dinamita sus almas para lanzarlas contra el armamento de hierro.

Hay necesidad de hacer uso del único bote de una barcaza para llegar al otro lado. Allí nos espera un automóvil que nos conduce por la carretera arriba hasta Zarauz, la alegre playa guipuzcoana que, como tantos otros pueblos de esta provincia incomparable, ha sufrido el oprobio de un artificial poderío rojo.

Rápidamente avanza el coche. En las cunetas vemos muchos automóviles destrozados, otros incendiados, que traen a nuestra imaginación los recuerdos de la barbarie del invasor marxista. Sacos terreros. Barricadas hechas por los hombres amigos de España, a quienes obligaron a trabajar día y día.

Ya estamos en Zarauz. ¡Qué hermosura! Respiramos a nuestras anchas. El espectáculo que podemos contemplar humedece de lágrimas nuestros ojos. Zarauz entero vibra en estos momentos —son las menos cuarto de la tarde— en entusiasmo y fervor patrióticos. Todos los balcones aparecen engalanados. Las colgaduras nacionales, las enseñas de Falange adornan y embellecen totalmente las fachadas del pueblo.

Gentes conocidas, muchas de las que dábamos ya por muertas. La gente va y viene como enloquecida de alegría y se abrazan al grito de ¡Viva España! Fueron muchos los días de calvario, las horas de angustia, los momentos de terror.

La playa de Zarauz es en estos instantes un hervidero de moros, humanos, militares, falangistas, requetés, que están en todas partes y atienden a todo. Y por encima de ello, la alegría del triunfo, la alharaca de la satisfacción indiscutible y tantas veces deseada.

¡Viva España! es ello. Grito de consigna que comenza[illegible] el último rincón para orgullo[illegible]to.

Esperábamos [illegible] y tanto de Zarauz, pero confesamos [illegible]cto que vemos, que tocamos, están nuestras aspiraciones.

Ahora vemos entrar en el pueblo unas chicas de Falange, que reparten himnos y proclamas. El entusiasmo sube de punto.

Un antiguo amigo —otro muerto resucitado— nos sirve de amable guía en estas primeras impresiones.

DOS MESES DE TERROR

—Gracias a Dios, nos dice. Creí que no iba a llegar nunca el día. No te puedes figurar lo que hemos pasado.

Y como nos figuramos todo, callamos la respuesta, ya que no habría hallado un solo lugar donde el poderío rojo haya dominado que no hayan hecho lo mismo: saqueos, robos, crímenes, atropellos, infamias.

Recorremos Zarauz. En la plaza, la Casa Consistorial, nos muestra el fuego de que fué víctima ayer.

—A eso de las cinco de la tarde —nos habla el amigo— se inició el incendio. Estaban ya en los sótanos. Fué la última obra en su cobarde huida. Afortunadamente no llegaron a consumarla, porque tan pronto se vieron aparecer las llamas, una reacción ciudadana se apoderó de nosotros y ya a la desesperada, jugándonos el todo por el todo, salimos dentro de ellos y no los dejamos terminar su plan siniestro. Pero ya lo ves, pudieron aún cantar a medias su victoria. Si el fuego se hubiera consumado, seguramente hubiéramos tenido la segunda edición de Irún.

LA ORGANIZACION DE LOS ENEMIGOS

Seguimos la calle adelante. En el Palacio del Duque de Granada, situado en una plazoleta donde convergen las carreteras de Azcoitia y Guetaria, estuvo instalada la cárcel. Allí fueron encerrados por el solo delito de amar a España, infinidad de hombres y mujeres que han sufrido en estos dos meses vejaciones sin límites y rigurosísimos castigos. Hoy, libertados ya, la antigua cárcel roja, es cuartel general de las tropas conquistadoras, allí radica la columna que al mando del comandante Ceballero, ha entrado en Zarauz esta mañana. Anoche hombres de Falange pusieron la bandera Nacional, como antes lo habían hecho en Orio, en el tejadillo de la iglesia.

En el Gran Casino estuvo instalado el cuartel de las milicias comunistas. Allí acamparon los batallones Rusia, Pablo Iglesias, Lenine, y tantos otros que de militares no tenían más que la imaginación y el deseo, pero que no podían pasar de allí porque no lo sentían, no sabían, no podían serlo. De milicianos nada más que el nombre, porque tampoco conocían lo que era la abnegación, el honor ni el sacrificio.

En los locales de la Juventud Anhelante se guarecían del miedo unas milicias llamadas de Azaña.

El cuartel de la C. N. T. descansaba de sus estúpidos triunfos en la villa del marqués de Borghetto, en la de San Luis los nacionalistas hicieron su feudo. En el palacio del conde de Santa Cultona habían establecido las desordenadas huestes marxistas un hospital de sangre, requisando por un galeno comunista, que ha huido "con rumbo desconocido". Digno de mención encontráis en la lista de los sanitarios de Zarauz, fieles siempre al cumplimiento de su abnegada profesión, que han seguido prestando servicio bajo la enseña neutral de la Cruz Roja en el Hospital de Beneficencia del pueblo.

SAQUEOS, ATROPELLOS Y POR FIN LA RECONQUISTA

Los dos últimos días cuando ya los rojos veían que era imposible aparentar más su falsa valentía, Zarauz fué víctima de un acrecentamiento de atropellos. A la gente se la encarceloba porque sí, se le hacía objeto de mofa y burla, se le amedrentaba con las palabras más soeces y criminales. Los mujeres estaban a la orden. No ha quedado una sola tienda que no haya sido despojada de sus artículos y mercancías. La calle Mayor ha sido una de las más castigadas en este aspecto. Hemos visto una carnicería donde no queda absolutamente nada. Una tienda de paños vacía por completo, y así muchas, casi todas.

Ayer por la mañana, una horas antes de ocupar hacia el monte Mendiveil, en su derrota camino de Zumaya, los marxistas entraban a saco en todos los establecimientos.

En esta obra destructora se ha distinguido la cuadrilla llamada "Bala Roja" erigida hasta enronquecer "No pasarán". La "Bala Roja" con botes de dinamita en la mano quiso volar las mejores villas de Zarauz.

No consiguió toda su obra destructora porque, pese a todo su satánico nombre, a todo su "valor" corrió despavorida grotescamente ¡cómo corren los cobardes! cuando vieron allá a lo lejos, unas camisas azules y unos hombres de España que la perseguían.

La "Bala Roja" aún no ha parado de correr.

Manuel TALAVERA.

Zarauz, 6 de la tarde.

La justicia de España ha llegado a Guipúzcoa.
Fijaros bien, ¡la justicia!

Mujeres falangistas, con su blusa azul y yugo cuartelera están también en la primera línea de la fé y el ánimo. Sin ellas faltaría mucho la Falange. Son las mujeres de hoy y madres de mañana. Ellas sabrán dar a sus hijos desde su mismo seno el gusto y el sabor de la Falange.

Visado por la censura

55 - *La Unidad* "Orio y Zarauz para España". Donostia. 1936eko Irailaren 21a. 5 orrialdea.

[63] *Dolores Larrarte Eguskizari eginiko elkarrizketa.*
[64] *Dolores Larrarte Eguskizari eginiko elkarrizketa.*

Edonola ere, Aiako bataila laburra izan zen. Matxinatuek nagusitasuna zuten, bai teknikari, bai armei dagokienez, eta armadaren botere guztia erabiltzen zuten zibilei erasotzeko eta lurraldea konkistatzeko. Hala, Gipuzkoaren inbasioa paseo militarra ez, baina oso kanpaina bizkorra eta gorabehera handirik gabekoa bihurtu zen. Frankistek aurrera egin eta garaile irteten ziren; errepublikanoak eta nazionalistak ozta-ozta ziren defendatzeko gai. Etengabe atzera egin behar izaten zuten:

Dexente, gero berehalaxe esan zuten kalmatu zela eta alde egin zutela baina, gorrik nonbait aurretik joan beharko zuten, gero atzetik karlista juteko. Hala ere ordun ez gendun komprenditzen gorria zer zan eta beltza zer zan.
Egin zituzten parapetotan jende asko ibilitzen zan ikusten. Guk ez genun ikusi baino askok begira egoten ziren. Batez era Aiako kanposanton ibili ziran. Herrian ez det gogoratzen inolako zauriturik egon zenik[65].

unidad

Año I Número 5 — San Sebastián, lunes 21 de septiembre de 1936

EL AVANCE EN EL SECTOR DE GUIPUZCOA

Oficialmente se anuncia la ocupación por las tropas nacionales de los pueblos de Zumaya, Arrona, Cestona, Elgoibar, Zarauz y Oñate

Guipúzcoa, salvo dos o tres localidades son de España. En las operaciones ha colaborado una columna de Vitoria que ocupó el puerto de Arlabán y Salinas de Léniz

Burgos. — El comandante militar de Pamplona ha comunicado al cuartel general lo siguiente:

Ayer en el sector de Guipúzcoa las columnas del Ejército Nacional han ocupado Zumaya, Arrona, Cestona, Elgoibar, Zarauz y Oñate.

En el avance ha cooperado una columna de Vitoria, que ocupó el importante puerto de Arlabán y Salinas de Léniz.

Hicimos al enemigo gran número de muertos y les cogimos mucho armamento, material de comunicación, así como gran cantidad de material de guerra.

Las tropas del Ejército Nacional prosiguen su avance.

Excepto dos o tres pueblos, toda Guipúzcoa se encuentra ya en poder de las tropas nacionales y por tanto reconquistada para España.

¡¡ARRIBA ESPAÑA!!

56

56 - La Unidad "El avance en el sector de Guipuzcoa". Donostia. 1936eko Irailaren 21a. 4 orrialdea.

Aiako bataila, izan ere, odolgabea izan zen nolabait ere. Ez zen gerra izan, bere horretan, Aian heriotza eta suntsipena ekarri zituena. Baina frankistek lurraldea hartu zutenean, erakundeen jabe egin zirenean eta gobernuko, probintziako eta udaleko organo guztietan lekua hartu zutenean ere ez zen bakerik iritsi. Alderantziz: agindutako guztia aginduagatik ere, orduan ezagutu zuten aiarrek inoiz ez bezalako errepresioaren oinazea eta atsekabea.

Sartu zirenenen, nere beste bi anaiekin eskutik hartuta nengoen kaletik zehar eta motor hotsak entzuten hasi ginen, Erreketeak ziren sartzen hasi zirela. Bidetik gindoazela gelditzen ziren Gorrik korrika pasa ziren maldan behera. Baina ez zekiten zein zen hartu behar zuten bidea. Horietako bat nere anaiei bidea zein zen erakusteko esan zien. Anaiek ordea, nahi bazuten, nondik joan behar ziren azalduko zietela esan baina ezin zirela beraiekin joan, ume txikiaz arduratu behar zirela eta...[66]

Beste lekuko batek, orduan 20 urteko gaztea zenak, kontatzen du errekete batzuek -edo berak "Beltzak" deitzen dien horiek- laguntza izan zutela Aiako plaza konkistatzeko:

Gerra Aiara iritsi zenean, hor zegoen gure herrian defentsa jarrita. Kanposantu aldean jarri ziren. Baina ez dakit zertarako abiazioa etorri eta kaka egingo zien goitik behera. Aian errez sartu ziren, Beldarrain aldetik etortzen hasi ziren tropak eta errez sartu ziren. Mendian gora hasi ziranen kanposantukoak hasi ziren tiraka. Baina segitun etorri zen abiazioa eta hauek korrika alde egin behar izan zuten. Gehienak alde egin zuten arren, bat edo bi hil egin zituzten. Ez ziren aiakoak, hori ziur. Joandakoak, Iturraraneko bidetik, Agorregira jeitsi ziren eskapu egiten[67].

[65] *Dolores Larrarte Eguskizari eginiko elkarrizketa.*
[66] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*
[67] *Joxe Mari Beldarrain Idarretari eginiko elkarrizketa.*

Baina zer erabaki hartu zuten inbaditzaileek herrian sartu zirenean? Lehenik eta behin, herrian "arriskutsua" zen inor geratzen ez zela egiaztatu zuten eta azken borrokalarien amore ematea bilatu zuten.

> *Gu orduan etxera iritsi ginean, aitonari soroan zegoela (nik justu-justu ezagutu nuen bera oso zaharra zen eta..) bala galdu batek gertu pasa zitzaion eta beldurtu egin zenez, bizilagunen etxera joan ginen. Ordun kamionetan Soldaduk etortzen hasi ziren, ia etxetan jendea gordeta zegoen edo jakiteko. Gure etsetik bandera zurikin atera ziran eta beintzat aldegin zuten. Hori izan zan gerrako lehenengo mugimenduak[68].*

Eta halakorik aurkituko balute, argi zuten zer egin behar zuten. Berriro ere, agerian geratzen da gerran hildako guztiak ez zirela gudu-zelaian hil. Asko eta asko lurraldea konkistatu eta boterean ezarri eta gero hil zituzten.

> *Gorostiola baserrian berriz, hiru gorri egon homen ziren heritu beren kideek ezin eraman eta.., baten batek parte eman eta Erreketeak goitik etorri eta beraiek kargu egingo zirela. Hartu, handik eraman egin zituzten Kanposantura eta bertan afusilatu egin zituzten. Gero uste det gorpu horiek ez zituztela bertan ehortzi[69].*

Geure herrian odol hotzean hil zituzten hiru miliziano hauek nor ziren ez dakigu eta ez dugu jakiteko datu gehiago.

Amaitzeko, gerra hau sinbologiaz josita zegoela ikus dezakegu. Izan ere, edozer gauzak pitz zitzakeen erabat surrealistak diren erreakzioak. Matxinada Errepublikaren aurka eta haren askatasunen, buruzagien eta ikurren aurka egin zen: Horiek guztiak desagertu egin behar ziren herriaren jabe berrien indarrez.

> *Aiara sartu ziranen, teniente koronel bat zen guztien buruzagia. Lehen Gorriak udaletxean zeudenez udaletxeko areto nagusia Azañaren argazkia zegoen[70], sartu homen zan teniente koronel hori eta pistola atera eta bi tiro dale. Kuadroari eman zizkion, eta sekretarioari bizkarreko bat eman zion kuadroa ordurako kendua ez izateagaitik[71].*

22 de Septiembre — La Voz de España — Página 3

PROA A LA VICTORIA FINAL

Balance de dos días de triunfos: Azpeitia, Loyola, Azcoitia y Zumarraga, el domingo; Zumaya, Anzuola, Arrona, Cestona y Zarauz, el lunes

Fueron los éxitos principales de nuestras fuerzas en el frente de Guipúzcoa

En el Sur, Santa Olalla es la victoria más saliente de la jornada

57

57 - *La Voz de España "Proa a la victoria final". Donostia. 1936eko Irailaren 22a. 3 orrialdea.*
58 - Urdanetako San Martin eta Elizondo etxea. 50 hamarkadan .

[68] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*
[69] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*
[70] *Manuel Azaña, orduko Errepublika espainiarraren presidentea zen.*
[71] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*

4.

IV. Errepresioa eta jazarpen politikoa:

Frankismoa Aian

4.1. Lehen biktimak. Errepresioa eta heriotza

Gerraren ondorioak ez ziren denentzat berdinak izan, hasieran behintzat. Are gehiago, Aia inguruan gerra-ekintzak bukatu zirenean, halako baretasuna etorri zen. Hain zuzen, askorentzat zalantzazko egunak izan baziren ere, ez dituzte oso traumatikotzat gogoratzen. Haien testigantzek, aldiz, egun haietan bizi izan zuten elikagai-eskasia islatzen dute.

> *Gerra aurreko garaiaz ez naiz asko gogoratzen. Nik zortzi urte nituenen gerra hasi Treintai-seisen, ordun ez zen ezerrez. Gerra bukatu arte bastante ondo izan zan, baina gerra bukatu zanetik aurrea... Ba ordun bai zala zero; ez Ogiik, ez olioik ez azukrerik. Ezer ez, ez zan ezertxo ere. Baino, bizimodua nola bait ere atera behar izaten da, beste erremediorik ez dago*[72].

59

ESTATUTO VASCO

ACTA

DE LA ASAMBLEA QUE PARA SU APROBACIÓN
CELEBRARON LOS AYUNTAMIENTOS DE ALAVA, GUIPÚZCOA
VIZCAYA, EN LA CIUDAD DE VITORIA, EL DÍA 6 DE AGOSTO DE 1933
INCLUIDA LA REDACCION DEFINITIVA DE LOS ARTICULOS
1.º, 11, 19, 28, 40, 42, 43 Y 46, REFORMADOS
CON ARREGLO A LOS ACUERDOS
ADOPTADOS EN DICHA
ASAMBLEA

DE LA ASAMBLEA QUE PARA SU APROBACIÓN
CELEBRARON LOS AYUNTAMIENTOS DE ÁLAVA, GUIPÚZCOA Y VIZCAYA,
EN LA CIUDAD DE VITORIA,
EL DÍA 6 DE AGOSTO DE 1933

BILBAO: 1933
IMPRENTA PROVINCIAL DE VIZCAYA
DIPUTACIÓN, 7

Ayuntamiento de Alquiza.—D. José Tolosa.
Id. de Alza.—D. Angel Guillén.
Id. de Alzaga.—D. Ceferino Sarasola.
Id. de Amézqueta.—D. José Antonio Pildain.
Id. de Andoain.—D. Pablo Eguíbar.
Id. de Anoeta.—D. Félix Urcola.
Id. de Anzuola.—D. Donato Lamariano.
Id. de Arama.—D. José Ramón Garmendia.
Id. de Arechavaleta.—D. Pedro Jáuregui.
Id. de Asteasu.—D. Juan José Cortajerena.
Id. de Astigarraga.—D. Ricardo Múgica.
Id. de Ataun.—D. Flavio Larracoechea.
Id. de Aya.—D. Gabino Alústiza.
Id. de Azcoitia.—D. José Lascurain.
Id. de Azpeitia.—D. José Antonio Oyarzábal.
Id. de Balarriain.—D. José Francisco Mimendia.
Id. de Beasain.—D. Jacinto Urteaga.
Id. de Beizama.—D. José Labaca.
Id. de Belaunza.—D. Lorenzo Iraola.
Id. de Berátegui.—D. Lucio Echeverría.
Id. de Berrobi.—D. Sabino Urquizu.
Id. de Cegama.—D. Martín Berasategui.
Id. de Cerain.—D. Jerónimo Arrizabalaga.
Id. de Cestona.—D. Modesto Echeverría Ansola.
Id. de Cizurquil.—D. Antonio Mendizábal.
Id. de Deva.—D. Florencio Marquiegui.
Id. de Eibar.—D. Alejandro Tellería.
Id. de Elduayen.—D. Martín Garayar.
Id. de Elgóibar.—D. José Ramón Belaunzátegui.
Id. de Elgueta.—D. Timoteo Loidi.
Id. de Escoriaza.—D. José Garro.
Id. de Ezquioga.—D. Francisco Gorrochátegui.
Id. de Fuenterrabía.—D. Juan Tellería.
Id de Gainza.—D. José Ignacio Garmendia.
Id. de Gaviria.—D. Francisco Urteaga.
Id. de Goyaz.—D. Santiago Mendizábal.
Id. de Guetaria.—D. Antonio Alegría.
Id. de Hernani.—D. Miguel Toledo.
Id. de Hernialde.—D. Juan Antonio Sarobe.
Id. de Ibarra.—D. Ignacio Beovide.
Id. de Icazteguieta.—D. Tomás Arabaolaza.
Id. de Ichaso.—D. Juan Osinalde.
Id. de Idiazábal.—D. Juan Aldasoro.
Id. de Irún.—D. Luis Salis.
Id. de Irura.—D. Francisco Pagadizábal.
Id. de Isasondo.—D. José Manuel Sarasola.
Id. de Lazcano.—D. Francisco Albizu.

— 6 —

59 - 1933an egindako Euskal estatutua. Gabino Alustiza, Aiako Alkate bezala izandako atxikimendua ikus dezakegu.

[72] *Francisco Azkue Etxeberriari eginiko elkarrizketa.*

Egun nahasi haietan ezagutu zuten gaitz bakarra ez zen elikagaigabezia izan. Horrez gain, beren buruari eta senideei jaten emateko beren eskuetan zeuden gai urri horiek ere bahitu egiten zizkieten. Kopetako izerdiaz lortutako guztia eman behar izatea benetan trantze latza zen, seme-alabei kendu behar izaten baitzieten administrazioari emateko eta, itxura guztia zuen, hasierako hitz goxoak alde batera, administrazioak babesik gabe utziko zituela zeharo.

> *Gerra ondoren, gosete handia pasa genuen. Baserritatik animaliak kentzen zizkiguten eta dena baserritatik udaletxera erama behar izaten genuen. Gauzak udaletxera eraman behar genuen eta hor egoten zen bere ofizinan Aurizenea sekretario. Gainera beharrezkoak genituen kiloak eramaten ez bagenuen, berriro bueltan hori bete arte[73].*

Beste testigantza bat ere bide beretik doa. Oraingoan, lekukoak kontatzen du garia bahitzearen truke huskeria ordaintzen zietela eta horrekin ez zirela seme-alabak elikatzeko gai ere.

> *Gerra bukatu zen momentuan miseri handian gelditu zen gure herrian, eta ordun baserrikuei zer landatu esan ziguten. Garia ere kalera eman behar izaten genduN, haiek izaten zuten eta artua ere bai. 300 kilo ere eraman beharrean izaten ginen, ni hura eramanda no. Eta merke asko, ezer gutxi pagatzen zuen, behartutak ginen beraiek nahi zuten eran maneiatzen ziren. Hura urte mordo pasa zan. Ta hola bizi ginen egun guztia lanean eta miserin bizi[74].*

Gerra Aiatik urruntzen ari zen, baina ez aiarren ondotik. Herriko okupatzaile berriek berehala adierazi zuten amaieraraino iristeko prest zeudela boterea konkistatzeko saiakeran eta edozer baliabide erabiliko zutela horretarako. Hala, ez zuten zalantzarik egin eta aiarrak indar matxinatuen baitan sartu zituzten. Aia hartu eta egun gutxira, frankistek izendatutako alkate berriak telegrama bat jaso zuen Artilleria Arineko 11. erregimentuaren eskutik. Hauxe zioen:

> *Para dar cumplimiento urgente a lo dispuesto en el Decreto de la Junta de Defensa Nacional que al respaldo se expresa, ruego a V.S. ordene a todos los individuos residentes en ese término Municipal, pertenecientes a los reemplazos de 1933, 1934 y los que por cualquier causa licenciados del reemplazo de 1935, se incorporen por medio más rápido a este Cuerpo los que en los mismos hubiesen servido, así como aquellos que habiendo pertenecido en activo a Cuerpos de Artillería tanto de la Peninsula como en Africa no puedan hacerlo a los suyos respectivos, debiendo traer consigo sus cartillas militares.*
> *El decreto que al respaldo figura deberá ser publicado en Bando para conocimiento de aquellos a quien el mismo atañe, bien entendido que incurrirán en grave responsabilidad lo que por cualquier pretexto no lo cumplieren, en plazo brevísimo.*
> *Del recibo del presente escrito, deberá darme cuenta.*
> *Burgos 9 de Agosto 1936*
> *El Coronel*
>
> *Sr. Alcalde del Ayuntamiento de Aya (Guipuzcoa) (escrito a mano)[75].*

60



Anuncios oficiales

COMUNICADO

Don Domingo Alústiza y Echeverría, Alcalde - Presidente de la Junta de la Casa Misericordia de Nuestra Señora de Aitzpea de AYA.

HAGO SABER: Que el número 5.437, agraciado con el premio mayor en la Lotería Nacional del día ONCE del actual, al que le correspondió el dormitorio completo, rifado para allegar recursos para dicha Casa Misericordia, se halla entre los números NO VENDIDOS.

Lo que se publica para conocimiento de los que han participado en la rifa benéfica.

AYA, diez y siete de Agosto de mil novecientos treinta y tres.

El Alcalde - Presidente de la Junta,

GABINO ALUSTIZA.

60 - Aian eginiko Zozketa bati buruzko abisua. 1933ko abuztuaren 19an.

[73] *Dolores Larrarte Eguskizari eginiko elkarrizketa.*
[74] *Jose Maria Mendizabal Ayestarani eginiko elkarrizketa.*
[75] *Burgosen 1936ko abuztuaren 8an emandako hogeita bederatzigarren dekretuaren kopiatik hartutako aipua (AUAH).*

Errepublika defendatzeko mobilizatu eta gero, eta fronteak atzera egindakoan haien seme batzuek Bizkaiko mugara ihes eginik, jasotako agindu berriak oso zehatzak ziren: Herrian geratu zirenen artean errekrutatuak izateko adinean zeuden gizonezko guztiek berehala sartu behar zuten matxinatutako armadan eta lagunen eta ideologia bereko kideen aurka borroka egitera behartuta zeuden. Eta "behartuta" diogunean ez da metafora: Aurreko urteetako hauteskundeetan Aian lortutako emaitzak aztertzen baditugu, aise ikusiko dugu bando frankistaren militarrei eta talde politikoei babesa ematen zieten aiarrak oso gutxi zirela, nabarmen nahiago baitzituzten legitimotasuna, demokrazia, Errepublika eta euskal autonomia defendatzen zituzten aukera politikoak.

Gerrak iraun zuen hiru urteetan, hainbat eta hainbat errekruta aiar zozketatu eta bidali zituzten fronteetara borroka egitera erregimentu militarretan sartzera derrigortuta, mobilizazioa egin eta erreklutatze-prozesua amaitutakoan, egindako zozketen ondorioz. Halaxe gertatu zen, adibidez, 1936ko urriaren 25ean. Egun hartan, zozketa bat izan zen eta Aiako 20 gazteren destino militarra erabaki zen:

RELACIÓN NOMINAL DE LOS RECLUTAS QUE HAN SIDO SORTEADOS EN EL DÍA DE HOY CON EXPRESIÓN DEL NÚMERO OBTENIDO.

Nombres	*Numero*
Azpeitia y Argote Juan	*1833*
Lizaso y Eizaguirre Manuel	*661*
Aizpurua Aristi José Ignacio	*1461*
Aizpurua Arruti José	*1462*
Alcorta Alcain Francisco	*1510*
Aldanondo Eizaguirre José	*1523*
Arrizabalaga Unsain José	*1763*
Ayerbe Huegun José	*1811*
Ayestarán Iturain Basilio	*1815*
Eizaguirre Goenaga José	*47*
Elizalde Illarramendi Juan	*58*
Idarreta Mendizabal José	*395*
Lerchundi Zuloaga Juan	*646*
Manterola Aizmendi José	*710*
Manterola Lasa José	*712*
Narzabal Lasa José	*844*
Usain Arruti José	*1224*
Uranga Azpiazu Simón	*1232*
Urbieta Eizmendi Ramón	*1239*
Uzcudun Manterola José	*1291*[76]

Zenbaitetan, soldadu izatera deitzen zituztenen egoera, pertsonala zein familiarra, ez zen kontuan hartzen eta armak hartzera behartzen zituzten. Hala ere, herritar eta agintari batzuk saiatu ziren bidegabekeria handiak egon ez zitezen. José María Narzabal Lasa gaztearen kasuarekin halaxe gertatu zen adibidez: 1936ko urriaren 22an zozketaz egokitu zitzaion gerran parte hartzea. Ondorioz, Marcelino Lemonak Irundik esku hartu zuen Aiako Udaleko idazkariari ondorengo hau kontuan har zezan eskatuz: *"el barrio de Alzola de ese Ayuntamiento se encuentra en el caso de único hijo de la viuda, Ramona Lasa natural de San Sebastián y que fue vecina de dicho barrio y pueblo, la cual ha de vivir con el sostén de su único hijo lo que le comunico para su gobierno"*[77]. Dena den, egindako saiakerak alferrikakoak izan ziren eta azkenean armadan sartu behar izan zuen.

Txarrena iristeke zen oraindik, ordea. Botere guztia lortu zutenean, "depurar" edo "garbiketa" behar zuten "elementos peligrosos" edo "elementu arriskutsuen" bila hasi ziren orduan tropa faxistak, agintaritza zentroetara bertaratzeko eskatuz. Eta kategoria batean zein bestean tokirik ez zutenak gerraren ahalegina babesteko laguntza "boluntarioa" ematera derrigortu zituzten: Oro har, herritarren ondasunak bahitu egiten zituzten eta hori herritarrek matxinatuei erakutsitako babes "espontaneo" eta gogo biziaren ondorio izango balitz bezala ezkutatzen zuten. Hori guztia frankisten aliatu ziren Alderdi Karlistako agintariek bideratzen zuten, azkar hasi baitzen Gipuzkoa kontrolatzeko botere-organoa ezartzen:

Con fecha 18 de agosto se ha iniciado en Tolosa, como lugar de residencia de la junta Carlista de Guerra de Guipúzcoa, una suscripción con la que se pueda atender a los cuantiosos gastos que consigo lleva el sostenimiento del personal que tanto patriotismo como abnegación viene luchando en los diferentes frentes, gastos que corren de cargo de la Junta de Guerra.
Tenemos la evidencia de que el vecindario de la localidad, percatado de la trascendencia enorme de la lucha que se ventila, cooperará con todo entusiasmo a estas aportaciones que nos son tan precisas y por ello se ruega a Vd. que en esa Alcaldía se abra la suscripción referida, entregandose por su importe en esta Junta.
Dios guarde a Vd. muchos años.
Tolosa, 19 de agosto 1936.
LA JUNTA CARLISTA DE GUERRA DE GUIPUZCOA.
Pablo Erviti (es firma)
SR. ALCALDE DE AYA[78]

Aiako herritarrek, eta oro har Gipuzkoako herritarrek, ezinbesteko "eskuzabaltasunez" emandako opariak jasotzeaz arduratu zirenak pozik geratu ziren antza. Izan ere, astebete geroago, Defentsa Batzordeko ordezkaritza militarra –izen hori zuen orduan Francoren zuzendaritzapean militarrek Burgosen ezarritako gobernu matxinatuaren antzera sortutako ordezkaritzak– termino bertsuetan zuzendu zitzaien herritarrei bando batean. Bandoa garai hartan matxinatuen esku zeuden Gipuzkoako herri guztietako alkateei helarazi zieten, hau da, frankistek "zona liberada" edo askatutako lurralde zeritzoten herriko alkateei. Ohartarazi behar da mezua eta errealitatea oso bestelakoak zirela. Hala, lehendabizikoaren idazkera adeitsua zen eta kaleko diru-biltzerako propaganda zirudien ia, baina era berean, inor ez zen ausartzen ekarpena ez egitera, mehatxuen eta errepresioen beldurrez:

[76] *Aiako udalean zozketatutako errekruten izenen zerrenda. Donostia, 1936ko urriaren 25a. 38. Errekruta-kutxa (AUAH).*
[77] *Irungo udaleko Marcelino Lemonak 1936ko urriaren 22an Aiako idazkariari bidalitako mezua. (AUAH).*
[78] *Gipuzkoako Gerra Batzorde Karlista, Tolosa, 1936ko abuztuaren 19an. Aiako alkate jaunari bidalia (AUAH).*

Habiéndose abierto una suscripción en todo el territorio guipuzcoano ocupado por el Ejercito salvador, para allegar recursos, tanto en metálico como en monedas y efectos en oro, con destino al movimiento nacional y a disposición de la Junta de Defensa Nacional, cuyo depositario es el Banco de Tolosa de esta villa, ruego a V.S. que para dicha suscripción sea conocida por todos los guipuzcoanos que residen en la región libertada de la provincia, se sirva dictar una circular a los alcaldes de los Ayuntamientos, ordenándoles la publicación de un Bando, dando a conocer ésta ten elevada determinación, exhortando al vecindario para que acuda a engrosar los fondos destinados a aquel fin. Encarezco a V.S. me dé conocimiento de esta disposición.- Dios guarde a V.S. muchos años. Tolosa ,26 de agosto de 1936.- El Comandante Militar[79].

61



INFORMACION POSTAL
ERRIETAKO - BERRIAK

Anuncios oficiales

—o—

Ayuntamiento de Aya

ANUNCIO

Se pone en conocimiento del público que la subasta para el nuevo garaje se verificará el día SEIS del corriente mes de Junio, a las ONCE horas y en la Casa Consistorial, bajo pliegos cerrados, los que se entregarán en la Mesa Presidencial cinco minutos antes de la celebración del acto.

El tipo que servirá de base a la renta en la subasta será de CIEN pesetas anuales.

El pliego de condiciones se halla de manifiesto al público en la Oficina de Secretaría en los días laborables y horas de oficina.

AYA, 1.º de Junio de 1936.
El Alcalde,
GABINO ALUSTIZA.

61 - *El Dia* "Ayuntamiento de Aya". Donostia. 1936eko Ekainaren 3a. 10 orrialdea.

Baina gerrara joandako guztiak ez ziren Errekruta Kutxa bidezkoak izan. Esku artean ditugun dokumentu batzuek frogatzen dute zenbait soldadu beren borondatez joan zirela gerra zibilean borrokatzera matxinatuei laguntzeko asmoz. Baten bat ideologia-kidetasunagatik joango zen gerrara boluntario segur aski. Baina batzuk agian boluntario joan ziren Errekruta Kutxa bidez joan izan balira esleituko zitzaiena baino destino hobea izateko. Gerra-urteetan oso zabaldua zegoen estrategia zen hori, eta halaxe erakusten du Oscar Alvarez Gilak eta Alberto Irigoyen Artechek idatzitako artikulu-zati honek:

En julio de 1936, su hermano menor que recién había retornado del servicio militar es llamado a quintas, ya sin trabajo, se integra nuevamente a la vida del caserío en donde "hacían falta brazos".

En marzo de 1937 es convocada su quinta.

Así relataba su primer día en la contienda:

- En vez de ir de soldado, yo me tenía que incorporar al América 14, en Pamplona. Pero vinieron a ofrecernos ir al Tercio o la Falange, que seríamos mejor vistos, y bueno, fuimos al Requeté[80].

ERREKETEEN ARMADAKO LAURDENETAN IZENA EMAN ZUTEN AIAKO BOLUNTARIOEN ZERRENDA[81]

IZEN ABIZENAK	SORTERRIA	JAIOTEGUNA	MAILA	JATORRIA	NOROKOA
Isidro Landa Arteche 4185 zk.	Soroberri baserria. Aia	1911ko urriaren 16a	Txapel Gorria	Amerika Erregimentua	Oriamendi 3
Juan Eizmendi Azpiroz	Aguerreburu baserria. Aya	1910eko azaroaren 10a	Txapel Gorria	Amerika Erregimentua	Oriamendi 3
José Ulsain Arruti	Esgui-alde baserria. Aia	1912ko uztailaren 12a.	Txapel Gorria. Kabo.	Aia	Zumalakarregi Tertzio Erreketea
Luis Aguirre Aguirre 2062 zk.	Ascote baserria. Aia.	1936ko urtarrilaren 14a	Txapel Gorria Errekete filiazioa	Aia	San Ignacio 1 kanpainia

[79] *Gipuzkoako Gerra Batzorde Karlista, Tolosa, 1936ko abuztuaren 27an.Aiako alkate jaunari bidalia. (AUAH).*
[80] *Oscar Álvarez Gila eta Alberto Irigoyen Arteche, "De la influencia de la diáspora nacionalista en un requeté navarro o la historia de un bertsolari que le cantaba a sus vacas (1909-1997)". LITTERAE VASCONICAE, Euskeraren Iker Atalak 9; Labayru Ikastegia; Bilbo, 2004.*
[81] *Eusko Ikaskuntzaren Herri Fundaziotik lortutako dokumentua.*



FICHA N.° 4185

Apellidos: Landa Artocho
Profesión: labrador
Nombre: Isidro
Natural: Aya
Edad
Fecha de nacimiento: 16-Octubre-1911
Nombre padre: Antonio
Nombre madre: Josefa
Estado: solt.
Nombre esposa
Cuantos hijos
Edades extremas
Filiación
Graduación: b. r.
Procedencia: Reg. Amca
Destino: Oriamondi 3ª
Noticias: Caserio Sotoberri. Aya.
Observaciones: M.N.10-12-38.
Referencias

FICHA N.° 1770

Apellidos: Ulzain Arruti (aguirre)
Profesión: labrador
Nombre: Jose
Natural: Aya.
Edad: Fecha nacimiento: 21 años-12.Julio.1915.
Nombre padre: Juan Maria (F)
Nombre madre: Juana Felipa
Estado: soltero
Nombre esposa
Cuantos hijos
Edades extremas
Filiación: Requete
Graduación: boina roja. Cabo
Procedencia: Aya (Zarauz)
Destino: Tercio Zumalacarregui Tercer Requete
Noticias: caserio Zegui-alde. AYA.
Observaciones: Efecto de la inscripcion 20-dicbre-1936.
Referencia: Inscrito segun relacion Alferez Jefe 2 -enero-1937.

62 - Gerra garaian karlistei batutako pertsonen fitxak. 1936

62

FICHA N.° 2062

Apellidos: Aguirre Aguirre
Profesión: Leñador
Nombre: Luis
Natural: Aya
Edad: Fecha nacimiento: 14 Enero 1906, 31 años
Nombre padre: Lorenzo
Nombre madre: Virginia
Estado: Soltero
Nombre esposa
Cuantos hijos
Edades extremas
Filiación: Requete
Graduación: Boina roja
Procedencia: Aya
Destino: San Ignacio 2a Comp.
Noticias: Aya
Observaciones
Se incorporó el 19-11-36
Referencia
EL DELEGADO

Apellidos: Eizmendi Azpiroz
Profesión: labrador
Nombre: Juan
Natural: Aya
Edad
Fecha de nacimiento: 1-Noviembre-1910.
Nombre padre: José Antonio
Nombre madre: Celestina
Estado: solt.
Nombre esposa
Cuantos hijos
Edades extremas
Filiación
Graduación: b. r.
Procedencia: Reg.,Amca.
Destino: Oriamendi 1a
Noticias: Caserio Agueneburu.Aya.
Observaciones: M.N.10-12-38.
Referencias

4.1.1. Gabino Alustiza, Aiako alkatea

Errepresioa, bere gordintasun handienean, Aiako hiru pertsona garrantzitsu eta esanguratsurekin hasi zen.: Alkatea, alkateordea eta parrokoa. Azken horrekin errepresioa zeharkakoagoa eta anekdotikoagoa izan bazen ere, aurrekoekin bezain tragikoa izan zen. Altxamendu militarraren lehen egunetan pertsona ospetsu edo, besterik gabe, ezagun asko hil zituzten. Hilketa gogoangarri horiek eredugarri izan zitezen egin zirelako ideia ez dugu gutxietsi behar: beldurraren bitartez ikasbide hori eman nahi zioten herriari.

Hala, Errepublikako azken hauteskundeetan demokratikoki hautatu zituzten alkateen artean, ez ziren gutxi azkenean hil egin zituztenak, matxinatuek herri baten agintea lortzearekin batera. "A sangre y fuego" edo "su eta gar" egindako konkistaren mehatxua agerian geratzen zen tokiko herritarren ordezkari nagusia fusilatzen zutenean. Izan ere, alkatea, politikaria izateaz gain, beldurraren bitartez isilarazi nahi zituzten herritarren gertuko pertsona ere bazen. Egañak adierazten duenez, Euskal Herriko hainbat udaletan erabili zuten taktika hura:

> *Entre los alcaldes asesinados se encontraban Alejandro Mallona (Mundaka), Fortunato Agirre (Lizarra), Gabino Alustiza (Aia), Domingo Burgaleta (Tudela), Teodoro González de Zarate (Gasteiz), Saturio Burutarán (Loiola, Donostia), Valentín Plaza (Castejón), José Markiegi (Deba), Felipe Urtiaga (Berriz), Antonio Moreno (Corella)... En Araba y Nafarroa fueron fusilados 27 maestros. También decenas de funcionarios municipales como Tomás Abaitua Ugalde, jefe de la Guardia Municipal de Bilbao*[82].

Gabino Alustiza Aiako alkatearen zorigaiztoko kasua ez zen, beraz, gertaera bakana izan. Aitzitik, gertaerok frankistek sistematikoki ezarritako nagusitasunaren eta beldurraren politikaren baitan zeuden.

Gabino Alustizak Laurgain jauregiko administratzaile-lana 21 urte lehenago esku zabalik hartu zuen herriarekiko dedikazioarekin bateratzen zuen[83]. Asteasun jaio zen 1888ko urriaren 25ean baina Aian errotu zen eta Laurgain auzoan zuen bizilekua, 6.ean. Bertantxe zegoen tropa frankistak Aian sartu zirenean.

1936ko abuztuan Gabino Aiako alkatea zen hain zuzen. Baina karguan ez zeraman denbora luzea. Azken udal-hauteskundeetan herritarrek botazioz hautatu eta gero, 1934ko uztailean kargutik baztertu zuten Errepublikako agintari gorenek erabakita. Zergatik? Gaur egungo ikuspegitik gaurkotasuna duen arrazoi bategatik: ikurrak eta banderak zirela-eta. Alkatearen erabakiz, udaletxean ikurrina jarri zuten Espainiako Errepublikaren banderarekin batera dantzan:

> *Nire aitona Miguel Uria Elosegi, kontzejal bezala egon zan Aiako Herrian eta momentu batean Teniente alkalde egon zan Aiako Herrian. Alkate Gabino Alustiza zela. 1934eko Uztailean alkatea zigortu egin zuten gobernu Errepublikano zegoela, gaur bezala hor zebiltzatelako ikurrina eta bandera espainola arteko bat zegoela. Ta orduan alkatea zigortu zutenetikan, nere aitona egon zan. 1936ko uztailararte. Momentu horretan Alkateari zigorra barkatu zioten, ordurako gerra hasita zegoela berriro alkate jarri zan*[84].

Gerraren lehen hilabete hartan Aiatik alde egiteko aukera izan zuen, baina herrian geratu zen ordea. Gabinok jakin bazekien garai zailak iristear zeudela eta, bizirik iraun nahi bazuen, aukera bakarra egoera baretu bitartean ihes egitea zela. Dena prest zuen, baina azkenean, bertan behera utzi zuen ideia hura familiaren ondoan geratzearren:

> *Frantziara pasatzeko ideia zeukan. Baina lehenago hemen eginkizunen bat egin behar zuen eta gero guztiekin barkuan joan behar ziren. Laurkineko Erretorea, Joakin Arostegi oriotarra eta Nemesio Ariztimuño (Aitzolen anaia) lagun zituen eta beraiekin batera barkua hartu behar zuen, denak joan zian. Gerra bukatzean denak bueltatu, baina aita ez, aita ez zen beraiekin jun eta...*[85].

Aiako herritarren oroimen kolektiboan, bildu ahal izan ditugun testigantzen arabera, hainbat esaldi eta toki agertzen dira behin eta berriz alkatearen atxilotzea eta hilketa aipatzean. Horietan hunkigarrienetakoa hauxe: Niri zer inberdiate, nik salbatu dizkit ba behak... Hutsala irudi dakigukeen esalditxo honek aditzera ematen duenez, Gabinok uste zuen, Aiako kartzeletan erreketeak giltzapetuta zeudenean haiei emandako tratu berbera jasoko zuela berak ere. Horren adibide dugu ondoko testigantza hau.

> *Esan behar nuena zera zan, honen aitona zana (Joxe Mari Gonzalez de Txabarriri zuzentzen, beraz gabino Alustizari buruz). Ein zan juizioa, eta pasa homen zitun hiru egun ezkutatuta eta berak egin zituen herrian zeuden erreketak salbatu. Bai ordun gabino eta horiek ziran GORRIK, esaten den bezela ordun Gorrik. Zea bestek Requeteek edo dena dala bertan zeuden. Ordun zera egin zuen, hiru egun egon zan gordeta egon pixkat ezkutatua eta... Geo Kanuaenea, gure osabana jun goizeen, ta sardin zaharra eta arrautza pare bat. Gure osaba zanak esan homen zion; hi ume azaldu aiz ba... don situaziokin. Ordun esan homen zion; Jo, nei zer egin behar diate nik salbau dizkit ba beak (erreketeak)... Bai baina bertatikan hartu. Harrapatu egin zuten. Gero Hernanira eraman fusilatu eta bukatu zan. Hori gertatu baino lehen, bere alaba joaten homen zan Ondarretara berari (Gabinori) bokadiloa edo zeozer eramatea. Zortzigarren Egunean ailegatu homen zan eta haren arrastorik ez homen zan ta beregatik galdezka hasi zan. Esan homen zion librau egin ziotela, baina ordurako hila zegoen. Ta hori egin in behar da, gezurra esan zieten*[86].

[82] *EGAÑA, Iñaki; "75 años de la barbarie franquista", GARAn 2011ko irailaren 11n argitaratutako artikulua.*
[83] *Aiako udaleko erroldatik ateratako datua, 1936: "Gabino Alustiza Echeverría, domiciliado en Barrio de Laurgain, 6. Varón. Nacido en 25-10-1888. Cabeza de Familia. Natural de Segura. Administrador de finca como profesión. Residente en Aya".*
[84] *Mikel Uria Iruretagoienari eginiko elkarrizketa.*
[85] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*
[86] *Francisco Azkue Etxeberria.*

Kontaketa hau Aiako herriak alkatearen estutasunari buruzko gertaeraz duen oroimen kolektiboaren adierazgarri da. Kasu honetan, halere, Francisco Azkue Etxeberriaren testigantza osoa jartzea erabaki dugu, Gabino Alustizarekin gertutakoa laburbiltzeko modua ikusita, ez baitirudi gertaera orain dela hirurogeita hamar urtetik gora jazotakoa denik, baizik eta aste hartan bertan gertatutakoa dirudi. Elkarrizketak iraun zuen bitartean, hizketakideak nabarmen adierazten zuen bere mugimenduetan eta begietan oinaze handia sentitzen zuela jazotakoa gogora ekartzen zuenean.

Gabino Alustizaren alderdikide eta gertuko lagun izandako Miguel Uria Eloseguiren bilobak eskaintzen digu beste testigantza bat. Halaxe dio:

> *Komentatzen dutenez Gabino fusilatua izan zen dokumentu bat sinatu zuelako. Nere aitona hori firmatu ez zuenez horregatik utzi zuten bizirik[87].*



63

63 - 1-Luis; 2-Joaquin; 3-Maria; 4-Milagros; 5-Isabel; 6-Manoli; 7-Jose.

Isabel alabak aitari buruz gordetzen dituen oroitzapen urri horiek bereziki hunkigarriak dira:

> *Ni Errepublika garaian oso gazte nintzen. Ez dakit aita politika sartuan zegon, baina Aiako alkatea zen. Nazionalista zan, baita bere nagusiak ere, administradoreak (Lardizabal jauregiko jabeak). Gerra hasi zanean haiek (Lardizabaleko jabeak) Frantzira joan ziren eta aita geratu zan ainbeste umeekin (Bederatzi)[88].*

Eta bereziki hunkigarria da matxinatuak aita atxilotzera etorri zireneko une horrekin nola gogoratzen den:

> *Ez ziren gure etxera etorri aitaren bila, bera udaletxera joan beharrean izan zen. Berak etxean esan omen zuen: "Nei ze inbeardie, ni danei on itea besterik ez diet egin" jun omen zela udaletxera eta guk ez genun aita berriro ikusi. Gero aizpa zaharrena lanean gendun Donostin eta hura joaten zan Ondarretara bisitan. Baita jana eta behar zituen gauzak eramate. Egun batean bertara joan zela eta bakaziokin bidali zutela etxera esan zioten. Eta akabo guk ez genuen berriro aita ikusi[89].*

[87] *Mikel Uria Iruretagoienari eginiko elkarrizketa.*
[88] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*
[89] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*

Inguruan gertatzen ari zena ongi ulertzen ez zuen haur baten begiekin bizitako oroitzapen horiek, urteak joan ahala, inoiz baino garbiagoak bihurtu ziren. Beharbada, hazi ahala, hobeto ulertu ahal izan zituen bere herri kutuna indarrez hartu zuten erokeriaren eta burugabekeriaren joko-arauak zein ziren. Baina ez zuen sekula ulertu zergatik eraman zuten aita maitea bere ondotik. Eta aldi berean, ez zuen utzi hori bere bizia eta bere familiarena honda zezakeen pozoi bihur zedin.

Baina gatozen berriro atxilotu zuten unera. Isabelek kontatzen digunaren arabera, matxinatuek Gabino eraman zutenean, ez zuten inongo kezkarik izan familiaren etxera indarrez sartzeko:

> *Gerra garaian gure etxera sartu ziren, "Guardia de Asaltokoak". Galdetuta zer bilatzen ari ziren, zera esan zuten; Azaña edo Prietoren bila zeudela. Gora eta bera nola ibili ziren bere botekin oraindik gogoan dakat[90].*

Egun hartatik aurrera ez zieten utzi berriro etxera bizitzera sartzen eta, beraz, haien lehengo etxearen ondoan zegoen baratzean jarri behar izan zuten bizitzen.

Azken alkataren familiaren gora berak horretan geratu ziren. Gabino Alustizaren familiaren lehen erreakzioa, herriko udaletxera jotzea izan zen, haien babesa lortzeko eta familiaren askapena lortzeko.

> *Udaletxean bigarren zegoena jarri zen Gurrutxa izeneko. Udaletxeari firma eskatu genion aita askatzeko eta ukatu egin zuten. Hemen militarrak sartu eta joan egin ziren, herrikoak besterik ez ziren gelditu[91].*

Ikusten denez, udaletxetik jasotako erantzuna ez zen haiek espero zutena. Errealitate gordinean bakar-bakarrik zeudela konturatu ziren; beldurra laguntasunari gailendu zitzaion. Eta horri kartzelan gertatzen ari zenaren ezjakintasuna gehitu behar diogu. Isabel Alustizak gogora dakarrenez: *"gure aita kartzelan zegoenean ez zuen eskutitzik idatzi nik dakidala baino..."* Baina zamarik handiena Luisa Telleria Oyarbide emazteak zuen orduan sorbalda gainean, senarraren egoerak sorrarazten zion larritasuna ordena gordetzearen eta familiaren egunerokotasuna mantentzearen erantzukizunarekin batera eraman behar zuelako.

> *Gure ama bitartean jauregian jarraitu zuen lanean eta bizimodua ahal bezala ateratzen zuen. Anai bat etxean geratu zan, beste biak soldadu eta honek irabazten zuenarekin. Etxean eginiko arto eta taloekin.*

Egun nahasi horietan hainbat aldaketa izan ziren Alustiza Telleria familian eta guztiak kalterako. Bi anaia armada frankistan engaiatzera behartu zituzten, derrigor joan behar izan zuten eta etxeko agintea nagusienak hartu behar izan zuen une hartatik familia-gunearen erantzule bakarra zen ama Luisarekin batera. Antza, Alustiza Telleria sendiaren familia-egoerak bereziki arduratuta zuen Zarautzeko komandantzia. Hurrengo asteetan jazotakoa ikusita, ez da inola ere zentzugabea pentsatzea indar militarren agintariak familiarekin arduratuta zeudela. Pobrezia eta babesgabetasuna familiaz jabetu zen, familiako aitaren heriotzari gehitutako zigor modura. Luisa Telleriarentzat hori guztia gutxi balitz, hiru alaba gazteenak berreziketa eremu batera eraman nahi zituzten, zetozen urteetan sistemari arazorik sor ez ziezaieten.

> *Behin Zarauztik etorri zan komandante bat, Jose Maria Huarte, Naparra. Guri nola ginen ikusi eta Zarautzera jeitsi gintuen eta hortik Agilafuentera eraman zigun kolonian. Han urtebete pasa genuen, gero hospitala jarri zuten eta urtebete ondoren Sukarrietara eraman ziguten. Gero hura ere ospital jarri zuten eta aldamenena zegoen Kapillauaren etxera eraman gintuzten. Guk, ospitalera erituk nola eramaten zituzten ikusten genuen. Guztira hiru urte egon ginen etxetik kanpo. Hiru aizpak egon ginan batera[92].*

Bizitzea egokitu zitzaien abentura horretan, gerrako zauriak oraindik osatu gabe, gerraren izenean egindako basakerien lekuko zuzenak izan ziren.

> *Pedernalesea joan aurretik, bonbardeo hotsa entzuten genuen. Pedernalesea iritsi ginenean zaurituak ikusi genituen[93].*

Basakeria aipagarrienen artean, argi eta garbi gogoratzen du gure elkarrizketatuak Gernika nola geratu zen. Euskaldun gehienentzat Euskal Herri askearen ikurra zen herri hura, Gernikako Batzar Etxean baitzegoen ehun urtetik gorako haritza. Haritza eta Batzar Etxea izan ziren Francoren zerbitzura zeuden hegazkin alemaniarrek suntsitu ez zituzten bakarrak, beste guztia ia erabat txikituta utzita.

> *Gu Sukarreitan ginen eta oraindik gogoan dakat nola Gernikatik pasa ginanen hura dena txikituta zegoen. Komunak eta edifizioetik zintziliak eta hori oso ondo akordatzen naiz[94].*

[90] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*
[91] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*
[92] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*
[93] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*
[94] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*

64

64 - 1-Ezezaguna; 2-Amelio (praktikantea); 3-Gabino Alustiza; 4-Francisco Echave (Armendia); 5-Jose Agustín Orbegozo (Aguerre); 6-Petra; 7-Joaquín Urretavizcaya; 8-Jose Mª Azcue.

Denbora luzea igaro zen Gabino Alustizaren alabak jaioterrira itzuli ziren arte. Baina herrira iritsi bezain pronto konturatu ziren zein desberdina –eta zaila– zen etorkizuneko egoera.

"Gerra bukatuta, galtzaile eta irabazleen artean banatutako herri bat zegoen. Gure auzoan bagendun batzuk lardizabaleko jauregiarenkin gelditu zirela eta galerazita geneukagun baratzeko elikagaiak hartzea. Gero lur horiek Zarautzko Jauntxo batzuk hartu zituzten. Beren abizinak Aristi eta Manterola. 30 baserriren lurrak beraien artean banatu zituzten[95]. Gu hantxe gelditu ginen ezer gabe, lau aizpa eta mutil txikia. Aurrera ateratzeko, bakarrik herrikoek ez ziguten lagundu. Herrira eskolara joaten ginanean jaten ematen ziguten baina inorrek ez zigun lagundu[96]."

Aipatzekoa da ez zela hori izan gerran markatuta geratu zen familia bakarra. Izan ere, jarraian ikusiko dugunez, errepresioak ondorio latzak izan zituen herritar askorengan. Eta familia guztiek bizi behar izan zuten mehatxupean. Horrek esan nahi du edozein unetan gal zitzaketela, agintari arbitrario eta mendekari batzuen eskutik, zituzten ondasun guztiak. Horrexegatik, etxe gehienetan beldurraren eta isiltasunaren legea zen nagusi, eta bitartean, gerraz ez mintzatzeko ahaleginak egiten zituzten garaileek ezarritako egoera kaskar horietan bizi berri bat hasten saiatzen ziren.

"Gerra ondoren gure etxean ez zen politikaz hitz egiten, baina ikusten genuen nola baserritako lan guztiak entregatu egin behar zituzten. Dena alondigan entregatzen zan, orain Jauregi taberna dagoen tokira. Zenuen elikagaien gainean zati bat eraman behar genuen. Gu gutxi genuen baina baserritar batzuk gauza asko eraman behar zituztez. Esaten zen, bertara eramaten zen guztitik zerbaitekin gelditzen zirela, entregatu beharreko tokira ez zela dena iristen."

[95] *Ikus 1. eranskina.*
[96] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*

Alustiza Telleria sendiaren harira, alaba gazteenak berreziketa eremutik itzuli zirenean, amak lasaitua hartu zuen alabekin berriro elkartu zelako, nahiz eta gainean zeraman zama areagotu eta familia mantentzeko baliabideak gero eta urriagoak izan.

> *Gu ama beti triste ikusten genuen, guk ama parrez ikustean hura milagrua, gu eraman zigutenean hiru urte egon ginen beretik hurrun eta ikustean orduan poztu zen. Baina nola eterako zituen bera bakarrik ainbeste seme alaba. Guk kolonietan ondo pasa gindun baina etxen geatu zianak.*
> *(..) Gure ama etxean egiten zuen lan, Jauregian lan egiten jarraitu zuen. Justu baina bizi ginen, gaztainak bildu eta antzekoak egiten. Sardin zaharrak jaten genituen bientzako sardina bakarra.*
> *Razionamendua egon zen, eta gu beste familekin bezala jasotzen genuean*[97].

Oso gazte izanagatik ere, Isabelek ez du sekula ahaztuko familia zein babesgabe geratu zen. Denboraren joanak eztitu du oroitzapena eta ia arrunt izango balitz bezala kontatzen du, inorenganako gorrotorik gabe; aitzitik, familiak gainditzea lortu zuen oztopotzat du. Horrek ez du esan nahi, ordea, egoera benetan latza zela ohartzen ez zenik:

> *Hasiera batean gure familia baztertua izan zen herriarengatik, handik denbora batera gutxinaka berriro azeptatzen hasi ziren.*

Isabelek kontatzen digun kasua Euskal Herriko herri guztiek bizi izan zuten sistematikoki. Frankismoaren errepresaliak jasan zituzten eta estigmatizatuta zeuden familiei laguntzea eta haiekin harremanetan jartzea oso arriskutsua zen horretan ausartzen zenarentzat. Mespretxuz edo, gehien bat, beldurraren ondorioz, II. Errepublikan karguagatik errespetagarritzat jotzen zituztenak gaitzesgarritzat hartu zituzten diktadura-aldian. Eta horri Alustiza Telleria sendiak Aian zuen egoera zehatza gehitu behar diogu: Hogei urtetik gora bazeramaten ere bertan bizitzen, ez zuten, beste auzotar askok ez bezala, hain egoera konplexuan askori aurrera ateratzen lagundu zieten senitartekoen babesaren mesederik izan. Seniderik gertukoenak Segura aldean bizi zirenez, haien bakardadea are eta nabarmenagoa zen.

Gaur egun badakigu Gabino Alustiza fusilatu egin zutela, epaiketarik gabe, Hernaniko kanposantuan eta bertara Ondarretako kartzelatik eraman zutela. Horma horietan fusilatutako hainbat pertsonen artean azkena izan zen. Aipatzekoak dira, besteak beste, frankisten "cruzada" edo gurutzadak hiltzeko zalantzarik egin ez zuen zenbait euskal apaiz (Celestino Onaindía edo José Ariztumuño "Aitzol", hala nola), besterik gabe, "una, grande y libre" ideiarekin bat ez zetozelako. Espainiako Eliza katolikoak berrogei urtez zigortu zuen hori. Baina une latz horietan ere, aita hil zutenek familiari are atsekabe handiagoa gehitzeko zalantzarik ez zuten egin. Hain zuzen, arestian esan bezala, alabari, iseka eginez, aita "oporretan" joan zela esan zioten. Donostiako espetxe-fitxetan ondoko dokumentu hau aurkitu dugu ordea:

> *Alustiza Echeverria Gabino*
>
> *Juzgado Militar 1936*
> *Delito..... Núm. de causa .....*
> *Natural de Segura Provincia de G.ª*
> *Hijo de Blas y de Fermína*
> *Fecha de Nacimiento 47 años*
> *----------*
> *Otras Responsabilidades.....*
> *Observaciones... Ingreso 23.10.36*
> *Huido 28-10-36*

Dokumentu honetan argi geratzen da behin eta berriro gezurra esan zutela. Gabinoren hilketa bezalaxe, hain gogaikarri iruditzen zitzaien Euskal Herri berriaren erakusgarri zirenen kontra egiteko modua zen hura eta haien senideei min emateko zalantzarik ez zuten egiten.

Familiak hogei urte baino gehiago itxaron behar izan zuen erregimenaren erakunde bateko dokumentu ofizial batek, kasu honetan Guardia Zibilaren Hernaniko Komandantziako batek, Gabino Alustiza 1936ko urriaren 27tik hilik zegoela aitortu zuen arte. Dokumentuak, gainera, hilketaren erantzule zein izan zen ere adierazten zuen: armada frankista eta agintari berriak:

143 COMANDANCIA DE LA GUARDIA CIVIL - 1ª COMPAÑIA LINEA Y PUESTO DE HERNANI*

Relación Nominal de los enterramientos colectivos que existen el (sic.) la demarcación de este Puesto, expresiva de antecedentes.

IZEN ETA ABIZEN	HERIOTZA DATA EGUNA-HILEA-URTEA	LURPERATUTAKO TOKIA	OBSERBAZIOAK
Don Martin Lecuona Echaveguren	*9 Octubre 1936*	*Cementerio de Hernani*	*Ejecutado por los Nacionales*
Don Gervasio Albisu Bideaur	*9 Octubre 1936*	*Cementerio de Hernani*	*Ejecutado por los Nacionales*
Don José Aristimuño Olaso	*18 Octubre 1936*	*Cementerio de Hernani*	*Ejecutado por los Nacionales*
Don José Adarra Larburu	*18 Octubre 1936*	*Cementerio de Hernani*	*Ejecutado por los Nacionales*
Don Celestino Onaindia Zuluaga	*28 Octubre 1936*	*Cementerio de Hernani*	*Ejecutado por los Nacionales*
Don Jose Maria Elizalde Zubiri	*18 Octubre 1936*	*Cementerio de Hernani*	*Ejecutado por los Nacionales*
Don Gabino Alustiza	*27 Octubre 1936*	*Cementerio de Hernani*	*Ejecutado por los Nacionales*

Nota Se hallan enterrados juntamente con los reseñados anteriormente unos 190 individuos mas aproximadamente, cuyos nombres se desconocen totalmente los cuales tambien fueron ejecutados por las Fuerzas Nacionales.

Hernani 17 de junio de 1958
El Cabo 1º Comandante Puesto Actal
firma[98]

[97] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*
[98] *Hernaniko artxiboa, Ejecutados por las fuerzas nacionales HUA - Hernaniko Udal Artxiboa // E-5-II-27/4: Guerra Civil 1936 - 1939. Asesinado en Hernani Anexo 2.*
* *Kopia originala.*

Eta hori nahikoa gordina ez balitz, egoera berriak, Agustin B. Puente Veloso jaunaren eskutik, "Juez especial núm. 1 de incautación de Bienes de la provincia de Guipuzcoa", behin eta berriz jokatu zuen bihozgabe Gabinoren familiarekin. 1938ko uztailaren 28ko Estatuko Aldizkari Ofizialean, ostegunez, honako ohar hau irakur daiteke:

> ***Don Agustín B. Puente Veloso, "Juez especial núm. 1 de incautación de Bienes de la provincia de Guipúzcoa ";***
> ***HAGO SABER: Que en este Juzgado especial se siguen expedientes de responsabilidad civil:***
> ***...134 contra don Gabino Alustiza Echeverría, vecino de Aya.***
> ***...Por el presente se cita, llama y emplaza a los designados para que en plazo de ocho días hábiles, a contar de la publicación, se personen en este Juzgado especial, sito en el edificio de la Audiencia Provincial, personalmente o por escrito, para que aleguen y prueben en su defensa lo que estimen conveniente.***
> ***Dado en San Sebastián a dos de diciembre de mil novecientos treinta y siete.- El Secretario Judicial (ilegible)[99].***

Horrekin, epaileak Gabino epaitegira bertaratzea lortu nahi zuen, bere ondasunak ez bahitzeko zer arrazoi zituen argudiatu zezan. Indar nazionalek 1936ko urriaren 27an hil zuten Gabino ordea.

Hala ere, historiak patuaren indarrari aurre egiteko baliabideak ditu. Heriotzak Gabinoren bizia eraman zuen, baina haren ideiak eta ondarea geratu egin ziren. Eta ez familiaren oroimenean soilik, baita alkate izan zen bitartean Aiaren adierazgarri izan ziren ikurretan ere. Alabak gogora ekartzen duenez, lehen ikurrina aitak jarri zuen lehendabizikoz udaletxean dantzan:

> ***Gero anekdota bezela, Errepublika garaian zegoen ikurrina gorde egin zen eta legalizazio iritsi zenean. Ikurriña libratu zanen, Aiako udaleko ikurriña Orioko Erzillak ekarri zun. 1936tik gordea izan zuen[100].***

65 - 1-Luisa Telleria; 2-Gabino Alustiza.

Aia ez zen ahaztu lehen egun nahasi haietan alkate izan zutenarekin eta, haren alabak bertan zirela, udaletxean omenaldi bat egitea erabaki zuten. Une aproposa da, beraz, Iñaki Iturainek idatzitako hitz hunkigarri haiek gogora ekartzeko:

> ***Hirurogeita hamabost urte pasatu dira egun artatik eta gaur guk, Aiako udaletxean, Gabinoren gogoa ekarriko dugu gogora Gabino, guk gogoan dugula, gure bidez, berriro etorri da Aiara, bere herriko udaletxe, gaur 75 urte arte bera zen aulkira. Gabino ez zen guztiz hil. Haren izpiritua bizitrik dago. Hemen daukagu, bere seme-alaba eta ilobengan, Aiako herria ordezkatzen duen udalbatzar hoentan. Gabino Alustizak irabazi egin du. Eta haren kriminalek galdu. Haiek ekarri zuten gorrotaren gainetik, bake Itxaropena ari zaigu zabaltzen Euskal Herrian. Kriminal haiek galarazi nahi izan ziguten hizkuntzan, euskaraz, hari gara gaur gizon xume haren horoimena bereskuratzen, alkate haren ohore dagokion lekura ekartzen[101].***

[99] *Boletin Oficial del Estado, Año III- 2º trimestre Jueves, 28 Julio 1938-III Año Triunfal- 28. – 65. or.*
[100] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*
[101] *Aiako udaletxean Gabino Alustizaren omenez eginiko omenaldian Iñaki Iturainek esandako hitzak.*

66

Alústiza Echeverría Gabino | Celda 79

1.936

Juzgado Militar

Delito ..... Núm. de la causa 4ª

Natural de Segura Provincia de .....

Hijo de Blas y de Fermina

Fecha de nacimiento ..... 47 años

Otras responsabilidades .....

Observaciones Ingresa 23.10.36.

Salida 28-10-36

67

143ª COMANDANCIA DE LA GUARDIA CIVIL — 1ª COMPAÑIA — LINEA Y PUESTO DE HERNANI

RELACION nominal de los enterramientos colectivos que existen el la demarcacion de este Puesto, expresiva de antecedentes.-

Nombres y apellidos	Fecha del fallecimiento Dia	Mes	Año	Lugar en que se hallan enterrados		Observaciones	
Don Martin Lecuona Echaveguren	9	Octubre	1.936	Cementerio de	Hernani	Ejecutado por los	Nacionales
Don Gervasio Albisu Bideaur	9	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.
Don José Aristimuño Olaso	18	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.
Don José Adarraga Larburu	18	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.
Don Celestino Onaindia Zuluaga	28	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.
Don Jose Maria Elizalde Zubiri	18	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.
Don Gabino Alustiza	27	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.

N O T A .- Se hallan enterrados juntamente con los reseñados anteriormente unos 190 individuos mas aproximadamente, cuyos nombres se desconocen totalmente los cuales tambien fueron ejecutados por las Fuerzas Nacionales.

Hernani 17 de Junio de 1.958
El Cabo 1º Comandante Puesto acctal

C. Aramayo
Zua

68

BOLETIN OFICIAL DEL ESTADO

Administración y venta de ejemplares: Calle Cuesta, 23. — BURGOS. — Teléf. 1238

Ejemplar: 25 cts.—Atrasado, 50 cts. Suscripción. — Trimestre: 22,50 ptas.

AÑO III.—2.º SEMESTRE — JUEVES, 28 JULIO 1938.—III AÑO TRIUNFAL — NÚM. 28.—PÁG. 409

S U M A R I O

COMISIÓN DE INCAUTACION DE BIENES DE GUIPUZCOA

Don Agustín B. Puente Veloso, Juez especial núm. 1 de Incautación de Bienes de la provincia de Gui-

SABER: Que en este Juzgado especial se siguen expedientes de responsabilidad civil:

Echezarreta, vecino de Legazpia.
134 contra don Gabino Alustiza Echeverría, vecino de Aya.
143 contra don Isidro Bengoe-

Por el presente se cita, llama y emplaza a los designados para que en el plazo de ocho días hábiles, a contar de la publicación, se personen en este Juzgado especial, sito en el edificio de la Audiencia Provincial, personalmente o por escrito, para que aleguen y prueben en su defensa lo que estimen conveniente.

Dado en San Sebastián a dos de diciembre de mil novecientos treinta y siete.—El Juez, Agustín B. Puente. = El Secretario judicial, (ilegible).

66 - Donostiko presondegiko agiritegitik ateratako dokumentua. Bertan, ikus daiteke nola Gabino Alustiza iheslaritzat jotzen duten bere espedientean. "Huido 28-10-36" Sic.

67 - "Ejecutados por las fuerzas especiales" bertan Gabino hildako eguna eta tokia azaltzen da, Guardia Zibilaren dokumentu honetan (HUA_E-5-II-27_4). Hernaniko Agiritegiak utzita.

68 - 1938ko Uztailaren 28ko BOE. Bertan, Gabino Alustizaren aurka irekitako "expediente especial" defentsa prestatzeko aukera ematen diote.

4.1.2. Miguel Uria zinegotziaren kartzela-zigorra eta errepresioa

Oso mingarria izan bazen ere, Gabino Alustizaren bizipena ez zen Aiako udalaren baitan bizi izan zen garbiketa-kasu bakarra izan. Bilaketan, bilobaren testigantzaren bitartez, zinegotzi eta alderdikide baten kasua aurkitu dugu. Osabak kontatutakoak dira Uria Elosegi sendiaren oroimen kolektiboan bizirik iraun duten oroitzapenak. Tropa frankistek herria hartu eta berehala atxilotu zuten alkatea lankide eta nagusi zuelako. Dena dela, zorte hobea izan zuela esan dezakegu, ez baitzuten fusilatu. Horrek ez du esan nahi, ordea, errepresio latza jaso izan ez zuenik.

69 - Miguel Uria zinegotzia.

> *Uztaila eta abuztua artean Alkatea eta Teniente Alkatea, biak atxilotu egin zituzten, nazionalak sartu zirenean inguru honetan. Dakidana da, nere osabak kontatuta. Gabino fusilatu egin zuten bezala, Alkatea fusilatu zuten bezala, nere aitona libratu zan multa bat ordainduta. Uste det 3.000 pezetako isuna zala, 3.000 edo 8.000 pezetakoa, dudan nago[102].*



70 - Teresa Leunda, Miguel Uriaren emaztea.

Urte asko igaro direnez eta diruak garai hartan zuen benetako balioa zein zen jakin gabe, zaila da esaten isunaren zenbatekoa neurrigabea zen ala ez, baina kontuan izan behar dugu 1936ko batez besteko langile baten soldata 30 eta 50 pezeta bitartekoa zela. Eta, beraz, isuna 100 hilabeteko lanaren baliokidea zen[103]. Ondorioz, halako diru-zigorrarekin, ordaintzea egokitzen zitzaion familia biziarteko miserian geratzea ez da harritzekoa.

Ziurtasun osoz dakigu aske utzi osteko egunak ez zirela batere errazak izan. Izan ere, agintari berriekin zituen zorrak kitatu baino lehen utzi zuten aske eta, ondorioz, Miguel Uria Eloseguiren bizia hein batean haien mende zegoela sinetsita, herriko batzuk atzetik joaten zitzaizkion etengabe gogoraraziz zorrak egin zituela.

> *Beno nik uste ordaindu aurretikan libre utzi zutela, nere osabak esan didanez. Baino klaro, arazoak izango zitun diru hori biltzeko. Badakit etorri zirala baserrira; Beno herriko bat eta beste gizon bat jueza ote zan edo.. berena erreklamatzea; "ordaintzen duzu edo bestela enbargatzen dizugu daukazun ganadua". Eta ezdakit nondikan baina azkenean ordaintzea lortu zuen. Ez dakit berak zuen diru kopuru hori edo norbaitek utzi zion. Baina ez dakat horren agiririk zuei erakusteko[104].*

Miguel Uriaren bilobaren oroitzapenek ezagutarazten digute familiak nola bizi izan zituen egun nahasi horiek:

> *Udaletxean zerbait badagoela uste det, multana ez nuen bilatu baina uste det zerbait badagoela. Jakin badakigu ondarretako kartzelan egon zela, baina ez dakigu nola. Gainera ez zitzaigun inolako paperik eman. Ez dakit zenbat denbora egon zen kartzelan baina dakidana da, Aita 14 urtekin nola joaten zan baserritik kalera janaria eramaten. Itsura danez garai horretan beraiek jarri behar zuten. Eta hortikan aurrera ez dakit. Saiatu nintzen martuteneko paperak lortzen baina bertan ez zeudela esan zidaten[105].*

[102] *Mikel Uria Iruretagoienari eginiko elkarrizketa.*
[103] *Sabín Rodríguez, José Manuel eta Elena Fernández Sandoica, La dictadura franquista (1936-1975): textos y documentos. Madril: Akal, 1997.*
[104] *Mikel Uria Iruretagoienari eginiko elkarrizketa.*
[105] *Mikel Uria Iruretagoienari eginiko elkarrizketa.*

Elkarrizketatuak kontatutakotik berriro ere ondorio bera ateratzen dugu: hasiera batean zigorra familiaburuari zuzenduta zegoela zirudien arren, atxilotua Ondarretako kartzelan giltzapetzeak familia osoaren oreka triskatzen zuen. Egunerokotasunaren baretasuna senide maite baten gabeziagatiko larritasunak eta haren egoeraren ziurgabetasunak ordezten zuen. Horri egunero Aiatik Donostiaraino joan behar izateak sortzen zituen eragozpenak gehitu behar zaizkio. Eta are gehiago hamalau urte zituen mutiko batek egin behar bazuen.

Edonola ere, aske utzi eta kartzelatik atera zutenean familiak ezin izan zuen lasaitua hartu, arestian aipatu bezala, aske utzi izanagatik ere, agintari berriak jazarri egiten zitzaizkiolako.

> *Nere amona ezagutzeko aukera izan nuen. Ni 12 urte nituenean hil egin zen, baina sekula ez zigun ezer komentatzen. Nere Amona emakume nahiko apala zen, inoiz ez zen inolako diskusioetan sartzen. Baino Aitona kartzelatik atera ondoren multa kobratzera etorri zirenean, Aitona nahiko kokilduta zegoen. Bera indartsua, gogorra eta egoskorra zen arren, beldurtuta zegoen jakinda bere lagunari zer egin zioten (Gabinori) eta amonak egin zien hauei aurre*[106].

71

71 - Miguel Uria. 2. lerroan, lehena eskubitik hasita.

Mikel Uria Iruretagoienak kontatzen duenez, agintariak etengabe etortzen zitzaizkien bisitan eta horregatik, Uria sendiak etxean zeuzkaten bitxi urriak eta balio handiko (materiala zein sentimentala) beste objektu batzuk ezkutatu behar izan zituzten:

> *Beste istorio bat, kezka zegoen baserria miatzera etorriko ziren edo ez eta horregatik, bertan zeuden hainbat gauza; Urrezko txanpon batzuk... Boltsa batean sartu eta baso baten "Tronco" huts baten sartu zituen. Familikoek bazekiten non zeuden txanpon horiek gordeak, baina ez dakit zenbat denbora izan zituzten hauek gordeak*[107].

[106] *Mikel Uria Iruretagoienari eginiko elkarrizketa.*
[107] *Mikel Uria Iruretagoienari eginiko elkarrizketa.*

Bada gauza bat lerro hauek idatzi dituena txundituta utzi dutena eta da, hain zuzen, elkarrizketatuek argi eta garbi gogoratzen dituztela hain umiliagarriak eta bidegabekoak izan ziren bizipen mingarri horiek baina ez ziotela, hargatik, gorrotoari eta mendekuari tokirik utzi bizitzan. Hala, gerra bukatu ostean, bizilagunengandik jasotako tratua nahiko zuzena zela aitortzen dute.

> *Ez gehiegi ez, hombre samina...gertatu ziren beste gauzekin; hilketak, afusilaketak gizartea goitik bera zapaldua.. alde horretatik. Baina amorruakin ez, ez zigun inoz aipatu bere aita gartzelan egon zelako beraiek gaizki tratatuak izan zirenik. Gero gainera, nere aita helduago egin zenean kontzejal egon zen. Ez dakit Francoren azken urtetan edo hau hil ondoren izan zen[108].*

72

72 - Miguel Uria eta Teresa Leunda.

Zerk piztu zion politikarekiko grina hamalau urteko mutiko hari? Aitari egunero jana eramatera kartzelara bisitatzera joan behar zitzaiola-eta, gerra garaian bizitakoak bizkor-bizkor gizondu zuelako izan ote zen? Segur aski bai. Hala ere, interesgarria da familiak hartu zuen jarrera zein izan zen nabarmentzea:

> *Ni ez nekien batzuekin harreman txarrik zuenik, berak ez baitzuen aipatzen. Baino... Bai, beraiekin hitz egiten zuten baino bazegoen... Hala ere, guri ez ziguten ezer kontatzen. Hortan oso onak izan ziran sekula ez ziguten ezer txarrik jarri horren inguruan. Batzutan, esaten ziguten halako famila frankista zan... baina hortikan pasa gabe. Gainera ez zuten beraien artean ixilean ezer komentatzen (nik dakidanez). Berarentzako historia hori pasata zegoen, nahiz eta gauza batzuk buruan izan[109].*

Labur-labur esanda, hauxe zen mezua: Ezin da bizitakoa ahaztu, baina iraganeko kontua izanik, etorkizunari begiratzen ikasi behar zen normaltasun apur batez bizimodu berri bat eraiki nahi bazen.

[108] *Mikel Uria Iruretagoienari eginiko elkarrizketa.*
[109] *Mikel Uria Iruretagoienari eginiko elkarrizketa.*

4.1.3. Aiako parrokoa

Ikerlan honetarako bildu ditugun testigantzen artean, Aiako parrokoaren heriotzarekin lotutako gertaera argitzen lagunduko digun bat aurkitu dugu, Leandro Urretavizcayarena hain zuzen. Kontalariak zuzenean jaso zuen heriotzaren berria eta bere aitak lagundu zuen parrokoa bilatzen.

Desagertu baino lehenagoko egunetan parrokoaren jokabidea zein izan zen ezagutzea komeni da lehenik eta behin. Horretarako, aipatu dugun lekukoaren oroitzapenetara joko dugu:

> *Uztailaren 18 hasi zen. Gerraren lehen oroitzapena det, Aiako erretorearen inguruan. Bera, Don Leandro Urretavizcaya deitzen zen Afrikako gerran kapilau ibili homen zan eta han non bait gerra guztitan bezela momentu estu asko pasa zuen, oso gaizki pasa zuen[110].*

73

73 - Organoaren inaugurazio eguneko argazkian: Behean eta ezkerrean indiano ezezaguna, Jesus Aurizenea, Jose Olaizola organista eta semea, Urdanetako apaiza, On Leandro parrokoa, Jose M. Aurizenea apaiza eta Roke Eizagirre atzean. Atzean: Isidro Zabala sakristaua, Kaperotxipi pintorea, apaiza, apaiza baten aita, On Julian eta On Severo apaizak, gazte ezezagun bat. Azken lerroan: J.M. Eleuterio Aiako idazkaria, On Juan apaiza, Zinkunegi Zarautzko medikua eta Plazido Pagola Aiakoa.

Argi dago, beraz, ez zela Leandro Urretavizcayak gerraren krudelkeria zer zen bizitzen zuen lehen aldia. Hain zuzen, bere eskarmentuagatik sentitzen omen zuen lurraldean gertatzen ari zen guztiaren aurrean halako ezinegona.

> *Bera Aiako Aizpea kalean zegoen erretore etxean bizi zen. Bera atera zenerako Zarate eta Andazarrate gainean atakia eman zuten Francoren aldekoak eta hemen abertzalek eta gorrik zeuden[111].*

Dirudienez, parrokoak ez zuen ihes egin Errepublika defendatzen zuten tropak iritsi zirelako. Aitzitik, kolpistak herrian sartzear zeudela jakin zuenean egin zuen alde, liskarrak gertu zeudela adierazten baitzuen berri horrek.

> *Don Leandro beldurrez zegoen, gau batean paisanoz jantzita Argingo baserriruntz joan zen. Bitartean Argin baserri aurrean zegoen zakurra gau osoa egon zen zaunkaka. Hurrengo Goizean, Felix Arrillaga etxeko aitona ateratzea erabaki zuen, jakiteko zer zen zakurrari hainbeste urduritasun sortutakoa. Soroan behera jetsi zen Anketa deitzen zen belardirarte. Bertan belar tartean etzanda ustez lo zegoen gizon bat ikusi zuen. Hankak hotzak eta mugitzen ez zenean antzeman egin zion hilda zegola. Baina ezagutu gabe etorri zan. Argingoa gure aitaren lehengusua zen eta gurera etorri zen esatera zer zen aurkitu zuena. Gorputzaren gana hitzuli zirenean eskubiko aldean etzanda eta galtza milrraiekin homen zegoen. Ezagutu gabe herrira joan ziran parte ematea. Ordurako zabaldua homen zegoen erretorea galdu zala eta... Parte eman zuenean herrian uste txarrenak zabaltzen hasi ziren, alegia aurkitutako gorpua Don Leandrorena izan zitekeela[112].*

Gertaerek kutsu dramatiko hura hartu zutenean, bi herritar horien asmoa agintariei abisua ematea izan zen hasieran.

> *Ordun herritik garaiko Jueza eta guardian zeuden mutilak atera zian bere bila, beste apaiz baten laguntzaz. Bertara iritsi ziranen segituan ezagutu zuten, hua zala. Ni Argingo atariaren aurrean nengoen bertako bizilagunekin. Altsa zutenenan, buruan zeukan zapia kendu zioten eta aurpegia beltz gorria zuen. Hura izan zen Aian Mobimentuaren ondorioz egondako lehengo hila[113].*

[110] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*
[111] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*
[112] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*
[113] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa..*

Halaber, gau hartan jazotakoaren oroimenez egindako monumentua hildakoaren anaiak egin zuela kontatzen digu lekukoak. Monumentua, dio lekukoak, ez zen gorpua aurkitu zuten lekuan altxa, gertuko toki batean baizik, jende gehiagoren bistara geratzen zelako horrela.

> *Erretore horren anaia Argiña zen, bizarduna zan gainera ta "Bizarra" esaten zioten. Hori gertatu eta pixkatea anaiarentzako gurutzea egin zuen. Baina hau hemen goien jarri zuten, Azkue baserrin Aiatik Oriora bidean dagoen baserriaren aurrean. Han Jende gehiok ikusteko, gezurra askotan jartzen da eta bertan jartzen zuen. "Aqui fallecio Don Leandro Urretavizkaya 2 de septiembre de 1936" Hau izan zan Aian gerraren inguruan egondako historioa[114].*

Gertaera hura ez zuten ahaztu eta, gertu zegoen gatazkaren lehen biktima zela-eta, udaleko osoko bilkurak haren heriotzagatiko mina jaso zuen.

> *Por último, el Sr. Presidente dió cuenta del Fallecimiento de Don Leandro Urretavizcaya Ormazabal, rector que, por espacio de cuatro años, desempeñó con tan singular acierto tal cargo en la Iglesia de San Esteban de esta Universidad, recordando el Comité Municipal conste el profundo dolor que el Comité Municipal y vecindario todo embarga por pérdida tan irreparable, y que se haga saber en tal sentido a la familia[115].*

Baina ez zen Leándro Urretavizcaya jauna izan Aiako unibertsitatean gerraren ondorioak pairatu zituen parroko bakarra. Nahiz eta ez zen hain dramatikoa izan, Aiako beste parroko batzuek ere pairatu zituzten altxamendu militarraren ondorioak eta kargu hartu zieten edo ordeztu egin zituzten erregimenarekin bat ez etortzeagatik.

> *Aian ordun zegoen erretorea Urretabizkaia, bere lagun baten etxera ihesi zijoanean bihotzekoa eman zion. Orain txaletetan ikus daiteken gurutzean eta bertan plaka ikusi daiteko. Orduan bi apaiz detenitu zituzten, Don Juan Telleria eta Don Julian Legarra. Hurak detenitzean Don Hilario etorri zan, hura Frankista zan. Franco herrira maniobra batzuk egitera etorri zenean Bajo Palio eraman zuten. Danak etorri beharrean aurkitu ginen prozesioa egon zen. Harrera bat egin zitzaion[116].*

Aurrerago itzuliko gara Francisco Francok Aiara egindako bisitaldira. Baina hori baino lehenago, gatozen berriro herria konkistatu osteko hilabete horietara. Agintari berriek beste eginkizun batzuk zituzten, haientzat premiazkoagoak zirenak. Haien ordena ezarri ahal izateko eta hauteskundeetan onartutako sistema politikoa ezgaitzeko, lehendabizi diktadura berriaren kalterako ziren aukera politikoen defentsan esanguratsuak izan ziren pertsonen eta familien garbiketa egitea ezinbestekoa zen. Hala, Euskal Herriko eta estatuko beste toki askotan bezalaxe, Aian ere purga eta errepresioa izan ziren nagusi frankismoaren lehen urteetan.

74

74 - Aiako biztanleek, beren omenez jarritako mugarria.

[114] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*
[115] *Aiako udaleko akten liburutik ateratako kopia bat da. 1936ko irailaren 6ko ohiko bilkura, 136b or. (AUAH).*
[116] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*

4.1.4. Garaileek auzipetu, errepresaliatu eta hil zituztenak

SARRERA

Lan honen xedea ez da martiriak bilatzea eta sortzea. Hargatik, bidegabe jokatzea litzateke, zinikoki "santa cruzada" edo gurutzada santua izenaz batailatu zutenaz baliatuta, estatu espainola izugarrizko odol-isurian murgildu zutenen kontra, beste modu batera pentsatze hutsagatik errepresio gogorra jasan eta askotan auzipetu, kartzelaratu eta hil egin zituztenak ahaztuta uztea.

Los alcaldes deberán tomar filiación a todas las personas que con caracter voluntario se incorporen a este movimiento, remitiéndolo juntamente con una relación de todos ellos a esta Junta de Guerra.
Por acuerdo de la JUNTA CARLISTA DE GUERRA DE GUIPUZCOA, se le faculta para que en nombre de esta entidad haga nombramiento de alcalde de este pueblo y constituya ayuntamiento con las personas de confianza absoluta que V. designe.
Es sumamente urgente e interesante cumplas las instrucciones que al dorso se detallan, dando cuenta inmediata de cuantas gestiones realicen en este sentido.

Dios guarde Vd. muchos años.
Tolosa, 21 de Septiembre de 1936.
Presidente[269]

108 - Eusko Jaurlaritzak erbestean ateratzen zuen "Boletin de Información", 1937ko Irailaren 25eko alea, 11 horrialdea.

Ezin dugu ahaztu, erregimenaren lehen urteetan, gaur egun burutik pasa ere egiten ez zaizkigun neurriak hartu zituztela herritarrak kontrolatzeko eta, besteak beste, herritarrak nola mugi zitezkeen arautzen zuten makina bat arau, kontrol eta debeku ezarri zituztela. Donostiara joateko baimena eskatu behar zuten adibidez:

ALCALDIA DE SAN SEBASTIAN

Tengo el honor de remitir a V.S. un ejemplar de las disposiciones dictadas por esa Alcaldía para regular la inmigración en esta ciudad de San Sebastián.
Le agradeceré vivamente las haga llegar a conocimiento del vecindario, por cuantos medios de publicidad pueda disponer al objeto de evitar molestias a cuantos por ignorar las disposiciones de referencia llegaren a esta Ciudad sin cumplir los requisitos que en ellas se especifican... [270]

[269] *Gipuzkoako Gerra Batzorde Karlista, Tolosa, 1936ko irailaren 19an. Aiako alkate jaunari bidalia (AUAH).*
[270] *Donostiako alkatetzak 1936ko urriaren 15ean Aiako alkate jaunari bidalitako mezua. (AUAH).*

Baina gatozen berriro eskola girora. Eskola publikoko edo gerora Aiako "Escuela nacional" izena jarri zioten eskolako maisu-maistren eskutitzak ongi erakusten du frankismoak hezkuntzarekiko erakusten zuen interesa doktrinamendu ideologikoa lortzearen alde zegoela zuzenduta eta ez, ordea, hezkuntzaren kalitatea hobetzearen edo eskola-eraikinaren egoera materiala hobetzearen alde. Maisu-maistrek kontatzen zuten: "habiéndose procedido a la traída de aguas y colocación en las viviendas de los vecinos que integran el casco de esta localidad, siendo en la actualidad la casi totalidad de las casas las que disfrutan de este beneficio, a excepción de las habitadas por los maestros". Eta maisu-maistren etxebizitzez gain, eskolak berak ere ez zuen urik eta horregatik eraikinera ura ekartzeko eskatzen zioten udalari:

> *Al propio tiempo, y cuando más adelante las circustancias lo permitan, con miras en la salud de los niños y niñas de estas Escuelas y como medidad elemental de higiene, se atreven a solicitar dichos Maestros, la instalación de agua corriente en los retretes de las mencionadas clases.*
> *Aya 30 de octubre de 1936*
> *Javiera Ausan Ernesto Rodriguez Boyer*
> *(Es firma) (Es Firma)*
> *¡¡¡Viva España!!!*
> *¡¡¡Arriba España!!![271]*

Espainiaren handitasuna goraipatzen zuten oihuak derrigor jarri behar ziren dokumentu ofizial guztietan eta erakunde ofizialei bidalitako idatzietan, baina ez dakigu halako oihuek zenbateraino islatzen zuten maisu-maistren ideologia. Edonola ere, gauza bat argi dago: erregimenari ez zitzaion axola eskoletako higiene-egoera zein zen. Aitzitik, gogor ahalegindu ziren, fio ez zirelako, maisu-maistrek eskoletan egiten zuten lana ideologia aldetik garbia zela eta erlijio aldetik ortodoxoa zela zaintzen.

> *Informe confidencial detallado de esa Alcaldía sobre la conducta profesional , social y particular, así como las actuaciones políticas de todos y cada uno de los Maestros que realicen labor docente en la actualidad o que aun estando ausentes estén adscritos a las escuelas de ese termino municipal , sean de párvulos, niños, niñas, Artes y oficios o de Trabajo, debiendo especificar si se trata de maestros nacionales o afectos a la Diputación provincial, Municipal o escuelas privadas.*
> *Asimismo deberá Vd. solicitar con toda urgencia de los Sres. Cura Párroco, Comandante del puesto de la Guardia civil y de un padre de familia bien reputado del lugar en que radique la escuela, bien pudiera ser si lo hubiera del presidente de la Asociación Católica de Padres de Familia de esa localidad, idéntico informe sobre todos y cada uno de dichos Maestros cuyos informes deberán remitirme por separado y en pliego distinto para cada Maestro, a fín de que cada informe al serme por Ud. enviado pueda ser unido al expediente particular que a cada interesado haya de ser abierto...[272]*

Kontakizun hauen bidez, maisu-maistrak eta ikasleak zaintza zorrotzaren eta errepresio ideologikoaren lehen une horietan nola moldatzen ziren ezagutzeko aukera dugu.

> *Guk eskolara ez ginan joaten, partikular izan genun maisu bat. Partikular bat ekartzen gendun Donostitikan maisu bat, da ona gainera maisua. Guk ere galerazita gendun euskeraz hitz egitea, bata bestearekin aldatu egiten zigun horrela ibili ezkeroz. Zerbait bagenun (eraztuna edo fitxa) ez dakit zer, baina kastigatu egiten gindun. Euskalduna zan maisu hura, Don Ramon Irazusta Peña. Donostikoa zen, baina hemen egoten zan eta 15etik behin Donostira joaten zan. Ta horri berai egin zioen ... hartu eta eraman zuten. Eraman aurretik gauza bat iten zuen, iten zuen lista bat Zaatea (Zarate gaina) jana eramateko zaaten zeuden, bakizue zein den goien. Hara jana eramateko, Gorri esaten zioenaki, Nazionalista eta Errepublikarrei. Hara jana eramateko, hemen baserritatikan ba beorrak, astok... dana dala janak... geo Olatxotikan hartu janak eta hara eraman. Gero "Gaur hi izan haiz eraman duena beraiz bihar hi" hori esaten zigun irakasleak, etzi beste bat, hola iten zun lista bat zein egunetan zein jun, aberiakin jana eramatea. Hua egiten zulako, hartu zuen hemendikan ta eraman zuen gure maisu hoi. Guk zera errepikatzen gendun: "Ze pasako ote da, Ze pasako ote da". Gero Maria Haundia, Olaetxekua edo Olaberri Zaharrekua, hua jun eta harrek librau zun. Hura libratu zuen bestela afusilatu egingo zuten. Hura afusilatu egin nahi zuten abereen lista eraman zuelako (errepublikarrei jana eramaten zutenena). Listan zera jartzen zuen; Gaur animaliak hi, ta hi ta hi. Etzi, hi ta hi ta hi. ola lista, hoi egun zuela hartu egin zuen. Libratzeko ez zuen ezer ordaindu, beste andre handi horrek, bertan zegoen komandaten napar batekin. Horrek, komandatean, fitxen arduraduna zen. Baina bere semea partikularretan gure eskolan ibili zen partikularretan. Beste eskolik ez zan ordun. Behintzak juizio ostean etxera bidali zuten gure maisu hori eta gu gustora. Ta holaxe bukatu zan asunto hura. Irakasle horrek ondo erakutsi zigun numerotan, ez historian baina doktrinan erakusten zigun[273].*

[271] *Aiako maisu-maistrek udaleko alkateari 1936ko urriaren 30ean bidalitako idatzia. (AUAH).*
[272] *Gipuzkoako eta Bizkaiko gobernadore zibilek Aiako alkate jaunari bidalitako Agindu Publikoa. Donostia, 1936ko azaroaren 17a. (AUAH).*
[273] *Francisco Azkue Etxeberriari eginiko elkarrizketa.*

Urte haietan eskola ez zen ikasteko eta mundura irekitzeko tokia, doktrinamendurako, zaintzarako eta itxitasunerako toki bihurtu baitzen. Lehen zientzia zegoen tokian orain doktrina zegoen:

Ez dakit libururik debekatu zuten edo ez, baina beraiek ezagutu zuten liburu bakarra doktrina zela. lehenengo jaunartzerako doktrina buruz ikasi homen behar zuten. honekin batera gure aitonak, beti anekdota kontatzen zuen: Jaunartze haundia izan zen egunean (Komunioa) neska bat urduri jarri zela eta galderak egiterako orduan ahaztu egin zitzaiola, horregatik jaunartza egin gabe gelditu zela[274].

Herriaren zaintza eta doktrinamendua ohituren eremura ere eraman zen. Agintari berriek ahalegin handiak egin zituzten haien ustez portaeraren moraltasuna eta zuzentasuna zena gordetzen, betiere ikuspegi tradizionalistatik eta katolikotik. Hainbat lekukotza ditugu herriaren eguneroko bizimodua nola isilarazten zuten kontatzen dutenak. Gehienetan festa giroaren eta pozaren adierazpenekin lotuta zeuden, bekatutzat eta ezmoraltzat hartzen baitzituzten.

Leheno ere egin ahal duzue balseko kontu hori? Ba zian neska eta mutil 15 eta Vals-a itea galerazita zeon. Eta in zuten Vals-en, ez dakit gainera Aian bertan ez ote zan edo Olatsen beheko, leheno taberna zan, horain itxita daukate. Ez dakit nun zan garbi eta egin zituen denuntzia jarri, Vals-en egin zutelako denuntzia. Gero hoi hola, jarri zituen 15 bat duro multa. 15 duroko multa jarri eta ez zutela pagauko eta ez zutela pagatuko. Ba kartzela eramango zituela, eramateko nahi balinbazuen da esan eta izan hartu eta kartzelara eraman zituen. Ondarretara eraman zituzten eta bertan 15 bat egun edo, baina ez dakit seguruikan ere. Kasua gertau zan oraindik zelebre hura, dantzan ibilitako bate ez zen ailatzen edaden kartzelara eramateko eta ze in zuen... aita eraman zuten. Alaban ordez aita.
Ta gure osaba difuntu bat, anaia eraman zuten. Hura jun, pagatu behar zuena pagatu eta etxera eraman zuen. Hoiek hemen pasa zian, Aian bertan. Erretoria, auskalo zer desagertu in zan, ta gainea bilau zuen, he!! erretoria zen egoskorra serietik kanpokoa[275].

Testigantza honetan ezin argiago ikusten da delitu guztiek zutela zigorra. Eta delitugilea espetxeratzeko adin txikikoa bazen, haren gertuko senideek (amak edo aitak) betetzen zuten kartzela-zigorra.

Labur-labur esanda, frankismoa ezarri osteko lehen urteak eta, batez ere, 1936ko azken hilabete horiek, matxinatutako tropek Aia konkistatu zutenetik alegia, betiko geratu dira oroimen kolektiboan. Herritarren gogoetan oso une ilunak eta mingarriak dira, errepresioz, mendekuz, debekuz eta irainez beteak. Hona hemen, laburpen gisa, bi testigantza:

Bukatzeko, gure herriko gazte jendean humilatua, zapaldua eta lotsatuarazia izan zen. Lapurreta asko egin zizkieten gerrako eta hau bukatu ondorengo urtetan. Beti esaten zuen, gerra bukatu ondoren, praile eta bikarioak baserriz, baserri ibiltzen zirela eskean. Bere produktu onenak edo dirua eman behar zietela[276].
Udaletxeko langileen aurka zerbait gertatu al zen, ni gogoratzen nahiz sekretarioa jendea asko ezagutzen zuen. Geu eskolara eta mezara joaten ginen egunero, hemendikan ordubete behar izaten genun etxetik eskolara. Gure ordutegia Bederatzitatik 12:30etara zan eta ordibitatik laureta. Etxera joaten ginereko gautu egiten zuen. Jan Aian bertan egiten genuen, guk eramaten genuen jenerua eta familiko baten etxeetara joaten ginen bazkaltzera. Jendea oso ondo portatzen ziren gurekin. Gure monja oso ona zen Señorita Javiera. Bestea Señorita isabel nahiko gogorra zen, monja oso gogora zan azkenean bere lanpostua utzi behar izan zuen Haurdun gelditu zelako[277].

TERMINO MUNICIPAL DE Aya

PROVINCIA DE GUIPÚZCOA AÑO DE 1936

RECTIFICACION

DEL

PADRON MUNICIPAL DEL EXPRESADO TERMINO

COMPRENDE

todos los habitantes que al tiempo de la rectificación del mencionado padrón deben ser baja o alta en el mismo, ya por fallecimiento, bien por traslación de vecindad, nacimiento o declaración de incapacidad legal, en virtud y con arreglo a las prescripciones del Estatuto municipal vigente.

Imp. de F. Esquiaga.-Beasain

109

109 - 1936an Aiako herrian egindako padroia. Azala.

[274] *Gorka Larrarte Aizpururi eginiko elkarrizketa.*
[275] *Francisco Azkue Etxeberria.*
[276] *Gorka Larrarte Aizpururi eginiko elkarrizketa.*
[277] *Dolores Larrarte Eguskiza.*

110

110 - Aiako Mugetan jarritako Gurutze abertzalea, bere lauburu zahar eta guzti.
Lauburua aldatu egingo baita, Hitler boterera iritsierarekin batera. Pagoetako Gurutzea.

RELACION ADICIONAL DE ALTAS Y

NÚMEROS De las hojas	NÚMEROS De las personas de cada hoja	CALLE, PLAZA, PASEO, CASERIO, CORTIJADA, ETC.	Número de la casa o de la vivienda	NOMBRE Y APELLIDOS	SEXO — Varón o hembra	FECHA DEL NACIMIENTO	Soltero casado o viudo	Parentesco o razón de convivencia con el cabeza de familia
								Bajas del
								Por pérdida
								Sección
6	8	Plaza del Recreo	7	Angel García Altuna	Var	1-8-1887	C	C. de familia
"	"	" "	"	Juan García Aspillaga	Var	7-10-1914	S	hijo
"	"	" "	"	Enrique García Azpillaga	Var	5-4-1917	S	hijo
15	4	" "	13 1º	José María Arizabalaga Unsoni	Var	18-3-1904	C	C. de famil.ª
21	2	" "	19	Silvano Antonio x Aguerresarobe	Var	12-9-1889	C	C. de famil.ª
42	4	Calle de la Fuente	9-1º	Manuel Angel Aguinaga Aperain	Var	24-3-1907	C	C. de famil.ª
"	"	" "	"	Manuela Josefa Eulogia Aranguren Aguinaga	Hem	2-2-1911	C	esposa
"	"	" "	"	Juan Antonio Aguinaga Aranguren	Var	14-6-1933	S	hijo
"	"	" "	"	José María " "	"	1º-9-1935	S	hijo
43	3	" "	9-2º	Ignacio Zumarraga Sagastizabal	Var	15-1-1900	C	C. de famil.ª
62	6	" de Aitzpea	8	Victoria Vnetavizcaya Ormazabal	Hem	1871	C	hermana
"	"	" "	"	Baldomero Lopez Sanchez	Var	1929	S.	2º sobrino
								Sección
4	11	Barrio de Curpidea	3	Secundino Miguel Fonsanero Arruti	Var	20-5-1913	S.	hijo
"	"	" "	"	Pedro José Fonsanero Arruti	Var	29-6-1916	S.	hijo
10	10	" "	8	Julita Mª Franca Huegun Echenagusia	Hem	28-1-1912	S.	hija
31	11	" de Saurgain	6	Gabino Mustiza Echeverria	Var	25-10-1888	C.	C. de familia
"	"	" "	"	Luisa Tellería Ozarbide	Hem	6-1-1888	C.	esposa
35	2	" "	9	Pedro José Zubeldia Chacón	Var	15-12-1901	S.	C. de famil.ª
"	"	" "	"	Ana Joaquina Zubeldia Chacón	Hem	17-1-1897	S	hermana
46	11	" "	17	Ramón Gárate Aldaz	Var	31-8-1919	S.	hijo
52	9	" "	21	José Gregorio Macazaga Illarramendi	Var	17-11-1906	S.	hijo
"	"	" "	"	Modesto — id — id —	Var	15-6-1911	S.	hijo
"	"	" "	"	Andres — id — id —	Var	30-12-1916	S.	hijo
"	"	" "	"	Martin id id	Var	24-11-1918	S.	hijo
53	12	" "	21 dup.	Josefa Ignacia Aizpurua Beristain	Hem	27-9-1917	S.	hijastra
"	"	" "	"	Pedro Aizpurua Beristain	Var	15-4-1910	S.	hijastro

(a) Cabeza de familia, vecino, domiciliado o transeunte. En los cabezas de familia se especificará si son vecinos o transeuntes.

111

BAJAS AL PADRON MUNICIPAL

¿SABE leer?	¿SABE escribir?	NATURALEZA Municipio	NATURALEZA Provincia (y para los extranjeros) Nación	Nacionalidad de los extranjeros	Profesión, oficio u ocupación	Renta, sueldo anual o jornal diario — Ptas.	RESIDENCIA LEGAL punto donde tiene su residencia como vecino o como domiciliado — Municipio	RESIDENCIA LEGAL — Provincia (y para los extranjeros transeuntes) Nación	Tiempo que lleva residiendo en este Municipio donde se inscribe	¿Es ausente? ¿Es transeunte? — Se pondrá A o T según proceda	Clasificación vecinal del habitante (a)	Observaciones
1936.												
de Vecindad												
primera												
sí	sí	Zumaya	Guipúzcoa		Labr. Viudo		Ayza	Guipúzcoa	7 a		vecino	huido con rojos
sí	sí	Guetaria	"		Pelotari		"	"	7 a		domiciliado	id
sí	sí	"	"		Peluquero		"	"	7 a		id	id
sí	sí	Ayza	"		Chanista		"	"	32 a		vecino	id
sí	sí	"	"		Labrador		"	"	47 a		vecino	por traslación vecindad
sí	sí	"	"		Jornalero		"	"	29 a		vecino	
sí	sí	"	"		Labores		"	"	25 a		domiciliada	por traslación de vecindad
no	no	"	"		—		"	"	2 a		domiciliado	
no	no	"	"		—		"	"	16 m		"	
sí	sí	Urquiza	"		Ilegible		"	"	4 a		vecino	huido con rojos
sí	sí	Oreja	"		Labores		"	"	20 d	T	Transeunte	por traslación de vecindad
no	no	Monforte-Lemus	Lugo		—		"	"	20 d	T	id	
segunda												
sí	sí	Ayza	Guipúzcoa		Labrador		Ayza	Guipúzcoa	22 a		domiciliado	huido con rojos
sí	sí	"	"		"		"	"	19 a		id	id id
sí	sí	"	"		Labores		"	"	23 a	A	vecino	por traslación vecd.
sí	sí	Segura	"		Administrativo		"	"	21 a		vecino	por desaparecido mandato.
sí	sí	"	"		Labores		"	"	21 a		domiciliada	por viudez
sí	sí	Zuarzu	"		Sacerdote		"	"	2½ a		transeunte	huido Gobierno rojo
sí	sí	"	"		Labores		"	"	2½ a		"	por traslación
sí	sí	Ayza	"		Labrador		"	"	17 a		domiciliado	huido con rojos
sí	sí	"	"		Labrador		"	"	29 a		vecino	id con id
sí	sí	"	"		id		"	"	24 a		id	id con id
sí	sí	"	"		id		"	"	22 a		domiciliado	id con id
sí	sí	"	"		id		"	"	19 a		id	id con id
sí	sí	"	"		Labores		"	"	19 a		domiciliada	por casamiento
sí	sí	"	"		Labrador		"	"	25 a		vecino	huido con rojos

111 - 1937an Aiako herrian egindako padroia. Kolore ilunago batean herri utzi zutenen izenak. Hauek markatuak geldituko dira udal gobernu berriarentzat.

RELACION ADICIONAL DE ALTAS Y

NÚMEROS De las hojas	NÚMEROS De las personas de cada hoja	CALLE, PLAZA, PASEO, CASERIO, CORTIJADA, ETC.	Número de la casa o de la vivienda	NOMBRE Y APELLIDOS	SEXO — Varón o hembra	FECHA DEL NACIMIENTO	Soltero casado o viudo	Parentesco o razón de convivencia con el cabeza de familia
55	11	Barrio de Lauxgain	23	Daniel José Aizpurua Aristi	Var	2-1-1910	S.	hijo
"	"	" "	"	José Ignacio " "	Var	12-4-1915	S.	hijo
"	"	" "	"	Leandro " "	Var	27-3-1917	S.	hijo
56	7	" "	23 dup	Gregorio Manuel Mª Aguirre Aizpuru	Var	11-3-1912	S.	hijo
60	4	" "	24 trip 2º	Juan Gualberto Epelde Segurola	Var	12-7-1887	C	C. de famil.ª
"	"	" "	"	Josefa Ramona Rezusta	Hem	25-12-1882	C	esposa
"	"	" "	"	José Leon Justo Epelde Rezusta	Var	12-12-1909	S	hijo
"	"	" "	"	María Luisa " "	Hem	9-9-1919	S.	hija
							Sección	
30	10	Barrio de Iturrieta ezquina	8	José Joaquin Zulaica Ilarramendi	Var	20-1-1913	S	hijo
							Sección	
22	12	Barrio de Andatza	17	Agustin Arrieta Guereñu	Var	8-12-1883	C	C. de familia
"	"	" "	"	Lorenza Tolosa Zavala	Hem	19-11-1890	C	esposa
"	"	" "	"	José Arrieta Tolosa	Var	2-9-1914	S	hijo
"	"	" "	"	Isidra " "	Hem	14-5-1917	S	hija
"	"	" "	"	Prudencio " "	Var	1º-10-1919	S	hijo
"	"	" "	"	Francisca " "	Hem	8-7-1922	S	hija
"	"	" "	"	José Francisco " "	Var	5-4-1926	S	hijo
"	"	" "	"	Juana Josefa " "	Hem	11-3-1928	S	hija
"	"	" "	"	Josefa Antonia " "	Hem	14-5-1932	S	"
"	"	" "	"	(a) María " "	Hem	17-11-1935	S	"
"	"	" "	"	María Esperanza " "	Hem	1915	S	prohijada
"	"	" "	"	José Tolosa Zavala	Var	1896	S	cuñado
41	6	" "	28 dup	Rosina Ignacia Orbegozo Larrumbide	Hem	19-10-1911	S.	hija
59	5	" de la Ría	10	Juana Josefa Marichalar Marichalar	Hem	23-6-1910	S.	hija
66	7	" "	17	José Julian Iribar Olazabal	Var	1º-2-1889	C.	C. de familia
"	"	" "		Emilia Perurena Salaberria	Hem	2-8-1893	C	esposa
"	"	" "		Bibiana Iribar Perurena	"	26-9-1919	S	hija
"	"	" "		Martin Ignº " "	Var	17-7-1921	S	hijo
"	"	" "		Pedro José " "	"	18-10-1924	S	"

(a) Cabeza de familia, vecino, domiciliado, o transeunte. En los cabezas de familia se especificará si son vecinos o transeuntes.

112

BAJAS AL PADRON MUNICIPAL

¿SABE leer?	¿SABE escribir?	NATURALEZA Municipio	NATURALEZA Provincia (y para los extranjeros) Nación	Nacionalidad de los extranjeros	Profesión, oficio u ocupación	Renta, sueldo anual o jornal diario — Ptas.	RESIDENCIA LEGAL punto donde tiene su residencia como vecino o como domiciliado — Municipio	RESIDENCIA LEGAL punto donde tiene su residencia como vecino o como domiciliado — Provincia (y para los extranjeros transeuntes) Nación	Tiempo que lleva residiendo en este Municipio donde se inscribe	¿Es ausente? ¿Es transeunte? — Se pondrá A o T según proceda	Clasificación vecinal del habitante (a)	Observaciones
Sí	Sí	Aya	Guipúzcoa		labrador		Aya	Guipúzcoa	25		vecino	huido con rojos
Sí	Sí	"	"		labrador		"	"	20		domiciliado	id id
Sí	Sí	"	"		labrador		"	"	18		id	id id
Sí	Sí	"	"		labrador		"	"	230		vecino	id id
Sí	Sí	Zumarraga	"		hoy Comercio		"	"	12 a		vecino	id id
Sí	Sí	Gaviria	"		labores		"	"	12 a		domiciliada	id id
Sí	Sí	Orio	"		peon		"	"	12 a		vecino	id id
Sí	Sí	"	"		viviendo		"	"	12 a		domiciliado	id id
tercero												
Sí	Sí	Aya	Guipúzcoa		labrador		Aya	Guipúzcoa	22 a		domiciliado	por casamiento
cuarto												
no	no	Andoain	Guipúzcoa		labrador		Ayer	Guipúzcoa	11 a		vecino	
no	no	Amezqueta	"		labores		"	"	11 a		domiciliada	
Sí	Sí	"	"		labrador		"	"	11 a		domiciliado	por
Sí	Sí	"	"		labores		"	"	11 a		domiciliada	
no	no	"	"		labrador		"	"	11 a		domiciliado	hasta
Sí	Sí	"	"		labores		"	"	11 a		domiciliada	el 1
Sí	Sí	Aya	"		labrador		"	"	9 a		domiciliado	
Sí	Sí	"	"		—		"	"	7 a		domiciliada	de
no	no	"	"		—		"	"	5 a		id	
no	no	"	"		—		"	"	1 a		id	Necesidad
Sí	Sí	Urnieta	"		viviendo		"	"	11 a	A	id	
Sí	Sí	Amezqueta	"		labrador		"	"	1 a	T	transeunte	
Sí	Sí	Aya	"		labores		"	"	23 a		vecino	por matrimonio
Sí	no	"	"		"		"	"	25 a		vecino	por matrimonio
Sí	Sí	"	"		labrador		"	"	46 a		vecino	
Sí	Sí	Goizueta	Navarra		labores		"	"	21 a		domiciliada	por traslación de
Sí	Sí	Aya	Guipúzcoa		"		"	"	17 a	A	"	
Sí	Sí	"	"		labrador		"	"	14 a		domiciliado	Necesidad
Sí	Sí	"	"		"		"	"	11 a		"	

112 - 1937an Aiako herrian egindako padroia. Kolore ilunago batean herri utzi zutenen izenak. Hauek markatuak gelditu dira udal gobernu berriarentzat.

RELACION ADICIONAL DE ALTAS Y

NÚMEROS De las hojas	NÚMEROS De las personas de cada hoja	CALLE, PLAZA, PASEO, CASERIO, CORTIJADA, ETC.	Número de la casa o de la vivienda	NOMBRE Y APELLIDOS	SEXO — Varón o hembra	FECHA DEL NACIMIENTO	Soltero casado o viudo	Parentesco o razón de convivencia con el cabeza de familia
66	7	Barrio de la Ría	17	Miguel Iribar Perurena	Var	10-7-1927	S	hijo
"	"	" "	"	Leocadia " "	Hem	22-12-1933	S	hija
								Sección
36	6	Barrio Olascoagaeguia	24	Josefa Fran.ca Ibarguren Echezarreta	Hem	10-9-1914	S	hija
"	"	" "	"	José Ignacio " "	Var	16-8-1917	S	hijo
41	10	" "	28	Carmelo Baouza Ventura	Var	16-7-1893	C	C. de familia
"	"	" "	"	Julia Ubargui Vellido	Hem	19-6-1900	C	esposa
"	"	" "	"	María Ramos Vellido	"	20-3-1863	V	Suegra
"	"	" "	"	Carmen Baouza Ubargui	"	15-1-1918	S	hija
"	"	" "	"	Julio " "	Var	16-10-1922	S	hijo
"	"	" "	"	Luis " "	"	11-12-1923	S	"
"	"	" "	"	Fortunata " "	Hem	11-1-1924	S	hija
"	"	" "	"	Pedro " "	Var	11-4-1925	S	hijo
"	"	" "	"	Manuel " "	"	11-12-1932	S	"
"	"	" "	"	Raul " "	"	15-12-1934	S	"
45	10	" "	33	José Antonio Ibarguren Echezarreta	"	30-1-1923	S.	hijo
49	6	" "	35	Nicolas Albizu Trecu	"	13-11-1903	S.	hijo
50	11	" "	36	José María Gaspar Idarreta Mendizabal	"	6-1-1915	S.	hijo
51	7	" "	37	José Francisco Huegun Ostotaza	"	13-1-1907	S.	hijo
69	8	" Arrutieguia	17	Juan José Marcos Lizaguirre Goenaga	"	7-10-1911	S.	hijo
76	10	" "	22	Juan José Serchundi Zuloaga	"	26-9-1915	S.	hijo
83	6	" "	29	Felix José María Echave Echave	"	4-12-1916	S.	hijo
								Por
								Sección
23	7	Plaza del Recreo	20	Manuela Felisa Azpiroz Echave	Hem	31-7-1923	S.	hija
46		Calle de la Fuente	13	Antonio María Sete Alperrami	Var	1867	S.	asilado
"	"	" "	"	José María Inarra Olascoaga	"	4-12-1881	S.	"
62	6	" de Aitzpea	8	Gaspar Mugica Aróstegui	"	1870	S.	sirviente
"	"	" "	"	Leandro Urretavizcaya Ormazabal	"	13-3-1872	S.	C. de familia

113

BAJAS AL PADRON MUNICIPAL

¿SABE leer?	¿SABE escribir?	NATURALEZA Municipio	NATURALEZA Provincia (y para los extranjeros) Nación	Nacionalidad de los extranjeros	Profesión, oficio u ocupación	Renta, sueldo anual o jornal diario — Ptas.	RESIDENCIA LEGAL punto donde tiene su residencia como vecino o como domiciliado: Municipio	RESIDENCIA LEGAL: Provincia (y para los extranjeros transeuntes) Nación	Tiempo que lleva residiendo en este Municipio donde se inscribe	¿Es ausente? ¿Es transeunte? — Se pondrá A o T según proceda	Clasificación vecinal del habitante (a)	Observaciones
no	no	Aya	Guip.ª		—		Aya	Guip.ª	8 a		domiciliado	por traslación de vecindad
no	no	"	"		—		"	"	2 a		domiciliada	
quinta												
si	si	Aya	Guip.ª		labores		Aya	Guip.ª	21 a		domiciliada	por matrimonio
si	si	"	"		labrador		"	"	19 a		domiciliado	huido con rojos.
si	si	Camillejas	Madrid		Sep. Estación		"	"	11 m	T	transeuntes	huidos con los rojos
si	si	Viana	Navarra		labores		"	"	11 m	T	"	
si	si	"	"		"		"	"	11 m	T	"	
si	si	Placencia	Guipúzcoa		"		"	"	11 m	T	"	
si	si	"	"		—		"	"	11 m	T	"	
si	si	"	"		—		"	"	11 m	T	"	
si	si	"	"		—		"	"	11 m	T	"	
no	no	"	"		—		"	"	11 m	T	"	
no	no	Deva	"		—		"	"	11 m	T	"	
no	no	"	"		—		"	"	11 m	T	"	
si	si	Aya	"		labrador		"	"	13 a		domiciliado	huido con rojos
si	si	"	"		"		"	"	32 a		vecino	id id
si	si	"	"		"		"	"	21 a		domiciliado	id id
si	si	"	"		jornalero		"	"	29 a		vecino	id id
si	si	Zarauz	"		labrador		"	"	6 a		vecino	id id
si	si	Aya	"		labrador		"	"	21 a		domiciliado	id id
si	si	"	"		Herrador		"	"	20 a		id	id id
Defunción												
primera												
si	si	Aya	Guip.ª		labores		Aya	Guip.ª	11 a		domiciliada	
no	no	Tolosa	"		labrador		"	"	14 a		vecino	
no	no	Guetaria	"		"		"	"	11 a		vecino	
si	si	Segura	"		Criado		"	"	6 a		vecino	
si	si	Oreja	"		Presbítero		"	"	34 a		vecino	

113 - 1937an Aiako herrian egindako padroia. Kolore ilunago batean herri utzi zutenen izenak. Hauek markatuak geldituko dira udal gobernu frankistarentzat.

RELACION ADICIONAL DE ALTAS Y

NÚMEROS De las hojas	NÚMEROS De las personas de cada hoja	CALLE, PLAZA, PASEO, CASERIO, CORTIJADA, ETC.	Número de la casa o de la vivienda	NOMBRE Y APELLIDOS	SEXO — Varón o hembra	FECHA DEL NACIMIENTO	Soltero casado o viudo	Parentesco o razón de convivencia con el cabeza de familia
							Suma de la Sección	
								"
								"
				Grupo cuarto -				"
								"
								"

Aprobada en sesión del día de hoy, Ayer 19 de

V.º B.º
El Alcalde -
Manuel Irurebagoyena

Aprobada
SAN SEBASTIAN, 8 de Noviembre de 1937
El Jefe provincial de Estadística,
Fidel M.ª Ramila

114

BAJAS AL PADRON MUNICIPAL

¿SABE leer?	¿SABE escribir?	NATURALEZA Municipio	NATURALEZA Provincia (y para los extranjeros) Nación	Nacionalidad de los extranjeros	Profesión, oficio u ocupación	Renta, sueldo anual o jornal diario — Ptas.	RESIDENCIA LEGAL punto donde tiene su residencia como vecino o como domiciliado: Municipio	RESIDENCIA LEGAL: Provincia (y para los extranjeros transeuntes) Nación	Tiempo que lleva residiendo en este Municipio donde se inscribe	¿Es ausente? ¿Es transeunte? — Se pondrá A o T según proceda	Clasificación vecinal del habitante (a)	Observaciones
vuelta		116										
primera		2										
segunda		8										
tercera		7										
Cuarta		8										
quinta		10										
sexta		5										
		156										

Noviembre de 1937

El Secretario
Eleuterio Pluricenca

114 - 1937an Aiako herrian egindako padroia.

4.3. Frankismoaren ezarpena Aian

Gure helburua ez da frankismoaren inposizioak Aian iraun zuen 40 urteez mintzatzea, eta ez dugu aipatuko, orobat, erregimen berriaren agintariek nola kontrolatu, moldatu eta aldatu nahi izan zuten herriaren erabateko euskalduntasuna horren ordez espainiartasun katolikoaren ideia inposatzeko. Baina nabarmendu nahi dugu, diktadurak, hasieratik, konkistatutako lurraldeetan ezarri nahi izan zuen normaltasunaren lehen zantzua tokiko agintariak baztertu eta haien ordez erregimenarekin bat zetozenak jartzea izan zela, udalbatzetan eta beste korporazioetan erregimenaren aurkako kidetasunik zuen pertsonarik egon ez zedin. Hori esanik, eta gure burua engainatu nahi ez badugu, aitortu beharrean gaude baldintza horiek betetzen zituen bertako jendea aurkitu zutela herrian, lehen Gabino Alustiza alkatea buru zuen udalbatza ordeztu zuen udalbatza berriak erakusten duenez:

> *En la Universidad de Aya a veinticinco de Septiembre de mil novecientos treinta y seis, siendo la hora de las nueve y por orden de la Junta de Guerra de Guipuzcoa se nombre alcalde Presidente a D. Manuel Iruretagoyena, persona autorizada por dicha Junta de Guerra de Guipuzcoa para la constitución de dicho ayuntamiento de esta Universidad en la forma siguiente:*
> *Alcalde Presidente: D. Manuel Itruretagoyena*
> *Primer Teniente Alcalde: D. José Agustin Orbegozo*
> *Segundo Teniente Alcalde: D. Paulino Tolosa*
> *Concejales: D. Ramon Lerchundi*
> *" : D. Juan Roteta*
> *" : D. Secundino Eizmendi*
> *" :D. José Joaquin Iruretagoyena*
> *" : D. José Luis Lizarralde*
> *" : D. Donato Rezabal*
> *" :D. Benito Manterola*
> *Por lo que se declaran todos conformes de sus respectivos cargos*[278]

115

115 - Franco Aiara sartzen 1945eko irailaren 20ean. Aia konkistatu zutela 9 urteurena ospatu zuten maniobra batzuen bidez.
116 - Franco Aiara zeuden tropen errebisioa egiten. 1945eko irailaren 20ean.
117 - Franco Aiaran zeuden mandoei agurtzen, 1945eko irailaren 20ean.
118 - Franco Aiako komitiba batekin herritik pasiatzen,1945eko irailaren 20ean.

[278] *1936ko irailaren 25eko Aiako udal berriaren eratze-akta (AUAH).*

116

117

Gure asmoa ez da antzinako zauriak irekitzea, aspaldi zenduta-ko pertsonak salatzea, edo herritar onen eta txarren arteko bereizketa egitea. Historia ez da salaketak eta zigorrak ezartzeko auzitegia. Historiagandik ikasi egin behar dugu, antzinako hutsegiteak berriro egin ez ditzagun. Eta zalantzarik ez da horietako akats bat herriko zenbaitek, obligazio eta gerra giroan, erregimen berria ezartzeko eskaini zuen laguntzaren gai korapilatsua izan zela. Eta hain zuzen, herrian izan ziren jazarpen-kasuak zein izan ziren banan-banan kontatzen saiatu izan garenetan, bildutako testigantzetan, lekukoek askotan esan izan dute errepresioa bertako batzuek horretan lagundu zutelako gauzatu ahal izan zela. Inork ez du esan nahi, ordea, laguntzaileak zein izan ziren.

Herrian egon ziren fusilamenduekin, esaten zuten herritaren laguntza izan zutela. Herritarren bat abisua pasa ziela noiz joan horien etxera harrapatzera. Eskapu egin behar zuen, barkua bila joan eta hura huts egin zion orduan etxera izuli zenean harrapatu zuten.
Gure herrian Gudari bezala Juan Argin egon zen nik dakidala. Baina hura ere gartzelan egon zan. Hura zan ni dakidan kasu bakarra.
Juan Argin Juaneneko tabernakoa, eraman egin zuten gartzelara, baina gero atera zuten. Aian bertan gartzelarik ez zegoen[279].

Izenak ez ematearen jarrera ez dugu isiltasun konplizetzat jo behar. Testigantza hauen bidez, hainbat aiar betiko markatu zituen gertaera mingarriak ekarri nahi dituzte gogora –berriro sekula gerta ez daitezen-. Baina haien asmoa ez da jazoera haietan parte hartu zutenen oroimena zikintzea eta, are gutxiago, gertaberritze historiko honen bidez, haien ondorengoak erdeinatzea, ez baitira inondik inora orain dela zazpi hamarkada baino gehiago gertatu zenaren erantzule. Historia, berriro diogu, ezin da izan bizi izan ez zutenak akusatzeko.

Kontua da herriko bizimodua errotik aldatu zela. Aldaketa batzuk oso nabarmenak izan ziren, hala nola, hasiera-hasieratik babes ofizialaren laguntzaz oparo egiten ziren garaileei egindako omenaldiak.

Gero herrian irabazleei homenaldiak egiten hasi ziren, beren artean ume kozkorrak ginanak hartu eta desfilatzen jartzen gintuzten. Baina beno jolasa zen guretzat[280].

Beste aldaketa batzuk mingarriagoak izan ziren gerra aurreko urteetan herri euskalduna eta euskaltzalea zela erakutsi zuen Aiarentzat. Horren adibide dugu maila guztietan egin zuten euskararen debekua eta errepresioa:

Garai hartan, elizan sermoia euskeraz egiten zutenak atzera joatea behartuak zeuden. Eskolan; erderaz hitzik ez genekigun, euskeraz hitz egitea galerazia, maisuk erdaldunak.... Guri eskolan eraztuna baino okerragoa jartzen ziguten, Fitxa bat. zigorra hura zan, bata besteari pasa eta azkeneko zigorra izaten genun[281].

Hala ere, kasu batzuetan, herriko erresistentzia isilaren ondorioz, erregimenaren zenbait ekimen bateratzaile eta doktrinatzaile ez ziren sustatzaileek espero bezain arrakastatsuak izan:

Nik dakidanez Aian ez ziren frankismoaren fakzio ezberdinik sortu (margaritas eta pelayos). Uste det, emakume falangista taldea sortu zela hasieran, baina ez zuten indar handia izango (hala ere ez nago oso zihur).

118

[279] *Isabel Alustiza Telleriari eginiko elkarrizketa.*
[280] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa..*
[281] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*

Gerra 1936an bukatu zen Aian. Eta gerra bukatzearekin batera hasi zen errepresioa. Baina, zalantzarik gabe, bada Aiako historian eta herriak frankismoarekin izan zuen erlazioan betiko sinbolikoki geratu den egun bat. Gauza jakina da Francisco Francok, antzinako monarkiaren egiteko moduak eta modak imitatzeko asmoz, Donostia aukeratu zuela udako oporraldiak igarotzeko. Eta hain zuzen, 1945eko udan zenbaitek argi ikusi zuen Espainia berriaren nagusitasuna eta ohartu ziren Aiak bereganatuak zituela "Movimiento Nacional" edo Mugimendu Nazionalaren baloreak, ideiak eta doktrinak. Egun seinalatu hori Francok Aia bisitatu zuenekoa da.

Edonola ere, ez zen protokolozko bisitaldia izan, ezta turistikoa ere. Estatu espainoletik kanpoko beste eremu geografiko batzuetan ez bezala, Francok ez zuen bisitaldiarekin masa-bainua hartu nahi izan. Armadarekin etorri zen, lurralde osoaren, Euskal Herriaren zein Espainiaren nagusitasuna lortzen lagundu zion indarrarekin alegia. Oraingo honetan aitzakia ez zen gerra izan. "Kasualitatez" Gipuzkoan egiten ari ziren jarduera militar batzuk zirela medio etorri zen Generalisimoa, Azor itsasontzian praktikan jartzen ari zen arrantza-zaletasunarekin bat eginez. Diktadoreak ez zuen halabeharrez aukeratu Aiako Unibertsitatera etortzeko eguna. Egun hartan, 1945eko irailaren 20an, bederatzi urte egin ziren matxinatutako tropak su eta gar sartu zirenetik. Hemen behean duzu erregimenaren hurbileko egunkariek nola islatu zuten Francok Aiara egindako bisitaldi laburra, diktadurak bere-berea zuen idazkera goratzailean:

> ***EL CAUDILLO EN SAN SEBASTIAN DESDE EL CAMPO DE POLO DE AYA, EL GENERALISIMO PRESENCIÓ UN SUPUESTO TACTICO***
> ***Entusiastico recibimiento en Aya. Ofrenda de frutos. Visita, en Orio, el campamento de Artilleria.***
> *San Sebastian 19, 3 tarde. Su Excelencia el Jefe del Estado salió a primera hora de la mañana de su residencia oficial de Ayete para trasladarse al pueblo de Aya con objeto de asistir a los ejercicios de los supuesto táctico. Le acompañaron los jefes primero y segundo de su Casa Militar. Teniente general Moscardo y general Franco Salgado. Momentos antes había llegado al Campo de Polo de Aya el Ministro del Ejercito, teniente General Davila.*
> *Su Excelencia fue recibido por este último, el capitan general de la sexta Región, teniente general Yagüe; el jefe del estado mayor del Sexto cuerpo de Ejército, general Aizpuru. También se encontraban en el Polo los Generales Alcubilla, jefe de la segunda división de pamplona; Navarro, jefe de la 161 división; Diaz Varela, jefe de la artilleria de la sexta Rejión Militar; Gonzalez Antonini, jefe de los servicios de ingenieros de la sexta región; el Gobernador militar de San Sebastián, general pimentel; otros jefes de cuerpo de la sexta Región y oficiales de la guarnición de San Sebastián. Asimismo se encontraban alli el gobernador civil de Guipuzcoa, Baron de Benasque y el alcalde de San Sebastián, únicas personas civiles invitadas por el capitán general de la sexta Región. También figuraban el comandante de la Marina de San Sebastián y el coronel jefe de los Servicios del Aire, con otras personalidades militares.*
> *El Caudillo se dirigió al pueblo de Orio, donde revistió las fuerzas del batallón de Infantería número 123, que le rindieron honores y desfilaron luego ante su excelencia. Seguidamente, volvió a Aya, donde desde un puesto de mando presenció los ejercicios del supuesto de mando presenció los ejercicios del supuesto táctico, que fueron realizados por el batallón de Infantería número 122, con un grupo de Artillería.*
> *Los ejercicios consistian en un combate con las vanguardias de un batallón que había recibido la orden de realizar una posición establecida en la carrtera (sic.) de Villabona, entablando combate con el enemigo. Su excelencia siguió con gran interés las diferentes fases del ejercicio táctico, que resultó magnifico y duró una hora y cuarto.*
> *Terminadas las maniobras, el Caudillo y los altos jefes militares se dirigieron al pueblo de Aya, donde el vecindario dispensó a Su Excelencia un entusiástico recibimiento. Se dirigió a la parroquia y a la entrada del templo fué recibido por el cura párroco. Bajo palio el Generalísimo penetró en la iglesia; subió las gradas del altar y permaneció arrodillado, orando algunos momentos. Se cantó una salve y, a continuación, salió el Caudillo del templo, también bajo palio, y en el pórtico un grupo de niños le hizo ofrenda de los frutos de la localidad. Una banda militar interpretó el Himno Nacional, y el Caudillo fué nuevamente vitoreado con gran entusiasmo. Su Excelencia regresó a Orio, donde se dirigió al campamento de Artillería, que visitó detenidamente. En este campamento almorzó en compañía de los generales, autoridades y jefes y oficiales*[282].

119

[282] *ABC (Madril)-1945/09/20,17. or.1945ko irailaren 20ko beste egunkari batzuek ere eman zutenalbiste horren berri;* ***El Diario Vasco****, lehen orrialdean: El Generalísimo Franco presenció ayer en Aya un magnífico supuesto táctico. Zamorako* ***El Imperio*** *egunkariak, lehen orrialdean. El CAUDILLO asiste a unos ejercicios militares en el pueblo de Aya.* ***La Voz de España,*** *lehen orrialdean: El Generalísimo asistió a un ejercicio táctico de la división 162. Oró en la iglesia de Aya rodeado del fervor de los soldados y el pueblo. Barcelonako* ***La Vanguardia española*** *egunkariak, lehen orrialdean: La estancia del Jefe del Estado por tierras del Norte. Su excelencia asiste a los ejercicios de un supuesto táctico realizados en Aya, acompañado del ministro del ejercito.*

120

121

122

123

119 - Franco Aiatik sartzen, biztenleen begiradapean, 1945eko irailaren 20ean.
120 - Franco Aiako Elizara sartzen, 1945eko irailaren 20ean. I
121 - Franco Aiako Elizara sartzen, 1945eko irailaren 20ean. II
122 - Franco Aiako Elizara sartzen,1945eko irailaren 20ean. III
123 - Franco Aiako Elizara sartzen,1945eko irailaren 20ean. IV

Aiarren oroimenean, ordea, bisitaldia eta herritarren txalotzea aurretiaz antolatuta eta zuzenduta zegoen, hau da, erregimenarekiko atxikimendua aldez aurretik prestatuta zegoen.

> *Ekitaldi Garrantzitsuena, Franco Aiara etorri zenean 1945a izango zan. Herri azpikaldean kanoiak jarri zituzen. Han zarate azpi eta deskargan zeuden hiru baserri ustu egin zituzten, ganadu eta guzti alde egin beharrean aurkitu ziren.*
> *Gainera horrengatik kobratu egingo zutela esan zieten eta gero ezin kobratu gelditu homen ziren hori, aitu nun. Hori guztia ikusi ahal izateko tribuna bat prestatu zuten hemengo bide baten. Azkenean gerrako erakustaldi bat egitea etorri ziren eta egunak eman zituzten hori prestatzen, kanoikadak ematen eta... soldaduk bitartean ondoko baserritara joaten ziren zeozer jatea. Tribuna jarria zutenean gau baten, batek hura bota egin zuen. Ez zuten inor harrapatu baino, hura egitea lortu zen*[283].

Aiarrek ez zekiten orduan Franco hil eta haren erregimena desegin arte beste hiru hamarraldi luze zeuzkatela aurretik. Eta aiarrek bezala, lurraldearen baitan zein erbestean frankismoaren errepresio eta politika latzen ondorioak pairatzen zituzten beste askok ere ez zuten horren susmorik hartzen. Azkenik, bukatu zenean, ikusi zuten gerra aurretik bezain zutik eta tinko jarraitzen zuela aiarrengan Euskal Herriaren parte izateko borondateak.

124

125



124 - Aiako Plaza 40 hamarkadan eginiko festa batean.
125 - Herriko plaza 1926ean eginiko dantza soka batean.

[283] *Joxe Mari Lertxundi Zuloagari eginiko elkarrizketa.*

5. Lekukotzak

Josefa Aguirre Maiz

«Mendi handi bat zan Bulano deitzen ziotena,balak di ta da Gelditu be txikitu eta gure teilatua pasa, baina bera ez zitan pasa, dena saltoka noiz baino noiz hilko ginela uste genuen. Hemen denok negarrez ez genekien zer gertatuko zitzaigun. Ume eta gurasok nola egon ginan gogoratzen zat, baina izugarri itxusia izan zan. Atakia, kor denak jarrita, ametralladora jartzen zituzten eta...»

Mari Carmen Aguirre Huegun
Juan Egurza Iruretagoiena

«Hamar Bat konpania pasa ziren, atea irikita geunkan da, Aita eta denak hemen barrun ginen. Nik bultza eta itxi. Aitak esan zidan ez zak itxi atia iriki atia. Eta atea irikierazi egin zidan atia. Atia ireki egin nuen aitak uste zuelako itxita egonda gaizki iruditko zitzaiela soldaduei. Egun guztia egon ziren bidetik pasa ta pasa.»

Joxe Mari Aiertza Arruti
Bittori Zinkunegi Txapartegi

«Hemen Laurkainen bertan, palaziotik aurrera, kamino azpian miliziano bat fusilatu zuten, eta disimulatzeko garua ebaki eta bertan jarri gorputza dizimulatzeko. Oiartzuarra omen zen. Bera zelatan omen zegoen eta harrapatu zutenean auzitegira eraman zuten eta gero honera ekarri zuten fusilatzea. Zapata gorriak zituen hori ez zait ahaztuko.»

Manuel Aizpurua Idiaquez

«Santa marinako jaiak ziren 1936ko uztailaren 18, bertako hermitan erromeria egiten zen egun horretan. Gerra iritsi zenean Aian bi ideologia zeuden nagusi Nazionalistak eta karlistak, egun horretik aurrera bi idiologietako gazteak desagertzen hasi ziren, Gerrarako prestatzen.»

Jose Ramon Albeniz

«Bizimodua Irabaztea oso zaia zen gerra ondorengo urteetan. Gosete ikarragarriak egon ziren. Hemengo nekazari askok bizimodua aurrera ateratzea lortu zuten behien esnei esker. Ez zan asko ordaitzen baina bizitzeko ematen zun.»

Isabel Alustiza Telleria

«Ez ziren gure etxera etorri aitaren bila, bera udaletxera joan beharrean izan zen. Berak etxean esan homen zuen " Nei ze inbeardie, ni danei on itea besterik ez diet egin" jun omen zela udalexera eta guk ez genun aita berriro ikusi. Gero aizpa zaharrena lanean gendun donostin eta hura joaten zan Ondarretara bisitan. Baita jana eta behar zituen gauzak eramate. Egun batean bertara joan zela eta Bakaziokin bidali zutela etxera esan zioten. eta akabo guk ez genuen berriroa Aita ikusi.»

Angeles Arregi Illarramendi

«Gure etxe ondon, tiroteuak egon ziren. Bertan, bat herituta gelditu zen lurrean etzanda. Nazionalista omen zen, ordun gure etxera ekarri zuten. Saitzen saiatu baina segituan atzetik zetozena (Erreketeak) hura hartu eta herrira eraman zuten. Ez dakit zer gartatu zen berekin hil egin zela esaten zuten baina...»

Eusebio Arregi Illarramendi
Juan Azpiroz Lertxundi

«Gu eskolara guten ginen bakoitzean, Egurkada ederrak jasotzen genituen euskaraz hitz egiteagaitik. Irakaslea kanpotik ekarri zuten, bere izena manolo baina ez dakit nola zuen abizena. Irakasle honek fitxak erabiltzen genitun euskeraz entzuten genuenean horri eman behar genion. Fitxarekin juten zinanen ederrak hartu behar izaten genitun.»

Pedro Arruti Azkue

«Gure etxea bi frenteen artean geratu zen, alde baten Eztenatxo edo zonalde horretan erreketeak eta kanpo santuko magalean errepublikarrak edo gorriak izan ziren. Guri iritsi zitzaizkigun albisteen artean esan ziguten baten bat kanposantuan hil egin zutela baina gero ez genun jakin zer egin zuten haren gorpuarekin.»

Mariano Arruti Lertxundi
Julian Ibarguren Iturzaeta
Manuel Uranga Osinalde

«Gerra bukatzean, gosea amorratzeko eta edozein tokitan aurkitzen zen. Guri merendatzeko (orduan 9 urte genitun) sardinzahar erdia ematen zigueten eta ogia izan ezkero ondo. Beste batzutan taloa edo... Harrautzak eta ordea, azokarako gordetzen ziren pezetaren bat edo lortzeko. Hura zen krisisa, hura...»

Belen Auricenea Aguirresarobe
Gemma Auricenea Aguirresarobe

«Nazionalak herrira sartu zirenean gure aita eta aitona eraman zituzten Ondarretako gartzelara. Gure aita herriko sekretarioa zen, Gero esaten zuen barkazioa eskatu zietela eta horregatik askatu zituztela. Aitona Gabino Alustizarekin egon zan. Aitonak esaten zun, hartu emana gartzelan izan zuela Gabinokin eta aitari joaten zitzaion apaiza Gabinorekin hitz egiten egon zela. Hori izan zen Gabino ikusi zuen azkeneko aldia. Gure aita eta anaia etxera itzuli ziren.»

Maria Jesusa Azkue Beldarrain

«Gerra garaian Jendea Mihira (Mehagas) eramaten zituzten bertara fusilatzea. Kriminala oso kriminala. Gerra garaian gazte jende asko hil egiten zian, asko hil egiten zian. Horregatik berrio itzuli egiten zian gazte jende gehiagoren bila.»

Francisco Azkue Etxeberria

«Euskalduna zan maisu hura, Don Ramon Irazusta Peña. Donostikoa zen. Gerra ondoren desagertu in zen. Eraman aurretik gauza bat iten zuen, iten zuen lista bat Zaatea (Zarate gaina) jana eramateko zaaten zeuden, bakizue zein den goien. Hara jana eramateko, Gorri esaten zioenaki, Nazionalista eta Errepublikarrei. Hara jana eramateko, hemen baserritatikan ba beorrak, astok... dana dala janak... geo Olatxotikan hartu janak eta hara eraman.»

Joxe Mari Beldarrain Bidarreta

«Gerra Aiara iritsi zenean, hor zegoen gure herrian defentsa jarrita. Kanposantu aldean jarri ziren. Beldarrain aldetik etortzen hasi ziren tropak eta errez sartu ziren. Mendian gora hasi ziranen kanposantukoak hasi ziren tiraka. Gehienak alde egin zuten arren, bat edo bi hil egin zituzten. Ez ziren aiakoak, hori ziur. Joandakoak, Iturraraneko bidetik, Agorregira jeitsi ziren eskapu egiten.»

Juan Huegun Agirre

«Gure herria Gerra iritsi zenean, dena aldatu egin zen. Jendea oso triste zegoen beste herri bat zirudien. Horri gainera erregimen berriak ekarritako gauzak batu behar dizkiogu; Beldurra eta Gosetea.»

Maria Josefa Irazuzta Alcain
Joxe Miguel Rezabal

«Ni eskolara egun bat bakarrik joan nintzen eskolara, Errepublika zer zen ez genekigun. Baserrian lana besterik ez genduen egiten. Guerra Hasi zenean Oriotik. etorri zitzaizkigun lehenengo notiziak. Gero neri guerrara jutea behartu zidaten zazpi urte pasa nituen bertan.»

Gorka Larrarte Aizpuru

«Gure familian aitonaren lengusua zena, Esteban Larrarte, bi etxe homen zituen Zarautzen, horiek kendu eta Mehagas-en fusilatu egin zuten. Bere emaztea ordea ezkutatzea lortu zuen ganbara batean eta urteak bertan bizitzen egon ondoren, burua galdu egin zuen. Izandako bizimodua eta senarraren galtzearen ondorioz.»

Dolores Larrarte Eguskiza

«Nire osaba, Esteban Larrarte, lehenbizitikan familiatikan despeditu eta bazijoala. Nere osaba nazionalista edo gorritakoa zan. Gero horri mendin Oiartzun alden harrapatu egin ote zuten. Muga pasatzen saiatu zen baina harrapatu egin zuten. Harrapatu zuten mendin eta akatu zuten, ez dakit gero gorpuarekin zer egin zuten baina... akaso aitak edo amak jakingo zuten.»

Joxe Mari Lertxundi Zuloaga

«Hor sartu ziranen, teniente coronel bat zan beren buruzagia. Jakina, leheno zeuden gorrik, eta Azañaren argazkia zegoen udaletxean. Sartu homen zan buruzagia, zenean, Teniente coronel hori, atera pistola eta bi tiro eman zizkion argazkiari.»

Teresa Lopetegi Etxabe

«Gerra pasa zenean bizitza gutxi egin ahal izan genuen gure etxean. Baina segituan pasa zen, guretzako okerrena gero etorri zen 1938an anai zaharrena gerrara joaten behartu zuten eta 1939 an bestea. Herriko beste batzuk suerte okerragoa izan zuten; beraiekin joan zen Kortaberrikoa hil egin zan eta...»

Encarna Manterola Agote

«Umea nintzan baino oupazioko gauza batzuk okupazioa hemen sartu zeneko gogoratzen naiz. Iralaren 20 izan zen Barandalla Coronela Andazarrate aldetik etorri egin zan. Berarekin soldadu pila eta herrira sartu zenean errezibimendua egin zioten bere tropek. Egun horretan gure amak zeuzkan guztik soldaduei eman behar izan zien afaltzeko.»

Joxe Mari Mendizabal Ayestaran

«Herrian sartutako tropek, gerran dirua beharko zuten eta.. Gainotzean gure baserriko ganaduarekin eta ezgendun aldrebeskeria izan. Hemen lokateko Gure osaba zen Joakin, nere amaren anaia, ta hua Aian oso ezaguna zan nazionalista izateagatik. hari 6.000 erreal kendu zizkien.»

Francisco Rezabal Iruretagoiena

«Herrira sartu zirenean gu bereala etxera joan ginen eta orduan elizako kanpaia jotzen hasi ziren. Francoren aldekok Abisua emateko sartu zirela eta herria beren mende hartu zutela adierazteko. Hemendikan bereala pasa ziren, egun batetik bestera joan egin ziren.»

Manuela Telleria Iribar Luis Eizaguirre Landa

«Falangekoak herrian gauza asko egin zituzten, lehenengoa herriko izenen kaleak aldatze. Kale hau, Sartalde kalea deitzen zen. Izen hau, pinturarekin tapatu eta Calle Poniente jarri zioten. Herriko kaleen izenak denak aldatu zituzten.»

Mikel Uria Iruretagoyena

«Nere Amona emakume nahiko apala zen, inoiz ez zen inolako diskusioetan sartzen. Baino Aitona kartzelatik atera ondoren multa kobratzera etorri zirenean, Aitona nahiko kokilduta zegoen. Bera indartsua, gogorra eta egoskorra zen arren, beldurtuta zegoen jakinda bere lagunari zer egin zioten (Gabinori) eta amonak egin zien hauei aurre.»

Maria Isabel Zuloaga Azcue
Ignacio Zuloaga Azcue
Axun Zuloaga Azcue

«Hemen dantzan egitea uzten ziguten, baina sueltoan bakarrik. Batzuk kartzelara joan ziren Valsean egiteagatik. Uste dugu hiru mila pezeta ordaindu behar izan zutela bertatik ateratzeko. Gainera eramandakoen artean neska gaztee-gia zenez aitea hartu zuten preso bere ordez.»

6. Anexoak Anexos

1936Ko URRIAREN 27a ZEN

Urriaren 27a zen, 1936koa, urte hartako udazken hasi berrian. Donostiako Ondarretako kartzelako patioan, eguzkiaren lehen errainuak sartzen ari ziren. Gabino Alustiza, bi egun lehenago berrogeita zortzi urte bete zituen gizona, goiz esnatu zen egun hartan, egunsentiarekin batera. Etzanda zegoen ziega txiki hartako ohe zikinaren gainean. Hilabete lehenago, reketeek atxilotu egin zuten. Geroztik preso zegoen Ondarretako espetxean.

Kresalaren usain gazia sumatu zuen leihoko berroteen artetik, gelan sartzen zitzaion haize leunean. Kresalak gidatuta, Gabinores gogoak kartzela utzi eta, Donostiako hondartzatik barrena, itsasoratu egin zen. Itsaso gainean, hegan, Orioko barraraino iritsi zen. handik garbi ikusi zuen, han goian, bere herria: Aia.

Bat-batean burura etorri zitzaizkion oroitzapenek kopeta belztu zioten. Atzo bertan gertatuta bezala, ikusi zituen soldaduak udaletxean sartzen, fusilak eskuetan zituztela zuzenean beregana zetozkiola. Militarrek, zalaparta betean, Gabinoren eskuak lotu eta inori ezer esateko astirik eman ere gabe, eraman egin zuten, zakar.

